5. ekimena. Hiri-eremu finkatuetan eraikinen erabilera aldatzea ahalbidetuko duen prozedura arin bat bultzatzea, eraikin publiko eta pribatuak erabilerarik gabeko eraikin bihurtzeo.

20. konpromisoa. Etxebizitza eskuragarrien premiari aurre egiteo formula berriak aztertzea eta bultzatzea.

1. ekimena. Bizileku-formula berritzaileak zabaltzea, hala nola aldi baterako bizitokiak, cohousing elkarlaneko etxebizitzak, belaunaldien arteko etxebizitzak eta tutoretzapeko apartamentuak, segurtasun juridikoa emanez eta errealtate berriei erantzuna ematen dieten proiektu horiek bideragarri bihurtuz.
2. ekimena. Alokairu babesturako etxebizitza erosteko programa publikoa bultzatzea.
3. ekimena. Hiriguneetan erabiltzen ez diren eta merkataritza-jarduera txikia duten etxabeen eta lonjen erabilera-aldaketak bultzatzea, etxebizitza bihurtu ahal izateo. Horretarako, beharrezkoak diren arau-aldaketak sustatzea.
4. ekimena. Etxebizitza kooperatibisten sustapenak sustatzea erabilera-lagapeneko erregimenean, eta horrek etxebizitza pertsonalizatu batean sartzea erraztuko du, hileko kuota baten truke. Kuota hori, irabazi-asmorik ez duenez, ohiko alokairuarena baino txikiagoa izango da.
5. ekimena. Etxebizitza Parke Publikoa baliatzea egokitu gabeko etxebizitzak trukatzeko edo permutatzeko. Adineko pertsonen eta/edo mugikortasun urriko pertsonen jabetzakoak dira etxebizitza horiek, eta irisgarritasun-baldintza egokiak eskaintzen dituen etxebizitza bat eskuratu ahal izango dute, etxebizitza Administrazioari euren ematearen truke, zeina Administrazioak alokairu sozialera bideratuko baitu.

6. ekimena. Udalekin lankidetzan, azalera handiko pisu zaharren bereizketak bultzatzea, batez ere hiriburuetan, aholkularitza-zerbitzu baten bidez, era berean, ondoriozko etxebizitzak alokairuko etxebizitzaren bitartekaritza-programetara erakartzea ahalbidetuko duena.
7. ekimena. Jabetzan izan daitezkeen etxebizitza-kooperatibak sortzeko udal-ekimenak aktibatzea, interesa duten udalei aholkuak emango dizkien bulego tekniko baten bidez.

21. konpromisoa. Etxebizitzak birgaitzea eta berritzea sustatzea, energia-eraginkortasuna, irisgarritasuna eta eraikuntza jasangarria hobetuz.

1. ekimena. Birgaitze-esku-hartzeak areagotzea irisgarritasunaren eta energia-eraginkortasunik ezaren ondorioz sortzen diren arazoak konpontzeko, horretarako dirulaguntza eta finantzaketa-lerro berriak aurreikusiz.
2. ekimena. Alokairu-parke publikoa birgaitzeko eta deskarbonizatzeko Zero Plana gauzatzen jarraitzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren Ekimen Estrategikoaren barruan. Alokabizi proiektua, alokairuko parke publikoaren kudeaketa digital, jasangarri eta sozialki aurreraturako, herri-azpiegitura gisa ulertuta.
3. ekimena. Programa espezifikoak sortuz eta Europako programetan parte hartuz, etxebizitzak diseinatzeko eta eraikitzeko prozesuen berrikuntza, alokairuko etxebizitzaren sustapenak optimizatzen bereziki bideratutako ekoizpen industrializatua eta arkitektura aurreratua sustatzea, jasangarritasun-irizpideekin, energia-kontsumo nulurekin eta CO2 isurketarik ezarekin.
4. ekimena. Udalekin lankidetzan, aholkularitza eta laguntzak ematea jabe partikularrei, hirigune historikoetako etxebizitza zaharkituak birgaitzea ahalbidetzeko, bitartekaritza-programa publikoetan sartzeko konpromisoaren truke.

4.Hezkuntza

Euskadik Hezkuntza Lege berria onartu berri du. Lege hau Eusko Jaurlaritza osatzen duten bi indarrek adostu dute, eta hainbat legebiltzar-talderen, hezkuntza-sektorearen, profesionalen eta irakasleen, familien eta hezkuntza-komunitateko gainerako eragileen arteko elkarlanaren emaitza izan da.

Hezkuntza gizarte-aurrerapenaren sinonimo da maila guztietan. Hezkuntza Lege berriak egonkortasuna eta izaera estrategiko berria emango dio Euskal Hezkuntza Sistemari, etorkizuneko erronka berriei ekiteak eskatzen duen bidea markatzeko. Legeak azpimarratzen du euskal eskola publikoaren protagonismoa, hezkuntza-sistamarako sarbide unibertsala modu ekitatiboan bermatuko duen oinarritzko erreferente gisa, eta aukera-berdintasuna bermatzen du, ikasleen gizarte-, ekonomia- edo bestelako abiapuntu-baldintzak alde batera utzi gabe.

Hezkuntzaren Euskal Lege berriaren funtsezko balioak bultzatu nahi ditugu. Berdintasuna eta kohesioa bermatzea. Etorkizuneko ikuspegia duen heziketa-eredu baten alde egitea, euskal gizarteak dituen erronkei helduko diena. Kalitate-sistema bat, inklusiboa, ekitatiboa eta lankidetzakomunitarioan oinarritua, familien eta udalerrien erantzunkidetasunarekin eta irakasleen konpromisoarekin, eta gure ikasleen eskola-arrakasta bermatuko duena.

Jaurlaritzak heziketa-eredu propio berri bat bultzatzearen aldeko apustua egin du, ikasleak gizarte konprometitu eta aurreratu baterantz bideratuko dituzten balioekin. Kohesioa eta berdintasuna egituratuko dituen, segregazioaren aurka borrokatuko duen, bizikidetzak positiboa eta hezkidetzak hartuko dituen eta kulturartekotasuna sustatuko duen eskola-eredu inklusiboa, betiere familien eta komunitateko eragile guztien inplikazioa bilatuz.

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza

22. konpromisoa. Kalitatezko hezkuntza-sistema inklusibo eta ekitatiboa sustatzea, gure ikasleen eskola-arrakasta bermatuko duena, eskola publikoa erreferentea izanik sarbide unibertsala bermatzeko.

1. ekimena. Euskal Eskola Publikoaren eredu eta funtsezko izaera indartzea, besteak beste, Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua bultzatuz, ikastetxe publikoen heziketa-lana eta -lorpenak identifikatzeko, beharrak eta interesak defendatzeko eta ikusarazteko, eta ikastetxe horiek ingurunean integratzeko eta ikastetxeen arteko lankidetzak-lana bultzatzeko, beren nortasunaz jabetzea eta euskal eskola publiko lehiakor bat garatzea bultzatuz, kalitateari dagokionez.
2. ekimena. Lau urteko plan estrategikoak bultzatzea, aldi bakoitzeko helburuak, horiek garatzeko baliabide materialak eta giza baliabideak, azpiegituren hobekuntza eta zuzendaritza- eta irakasle-taldeen segurtasuna eta egonkortasuna ezartzeko.
3. ekimena. Eskola Publikoaren azpiegituretan inbertsioa egitea, heziketa-eredu koherente eta adostuen aldeko apustua egiten duten ikastetxe integralak bultzatuz. Eraikinak eta ikastetxeak sustatzea kontrol eta efizientzia energetikoko neurriekin. Programa honek, gutxienez, ondorengo jarduera hauek aurreikusten ditu:

- Ondorengoetan lanak amaitzea:
 - Etxebarri BHI
 - Muskiz BHI
 - Zumaia BHI
 - Salburua BHI
 - Aldaialde HLHI (Vitoria-Gasteiz)
 - Orixe BHI (Tolosa)
 - Musakola HLHI (Arrasate)
 - Astigarraga HLHI

- Abian dauden proiektuetan aurrera egitea:
 - Trueba Institutua (Barakaldo)
 - José Miguel Barandiaran BHI (Leioa)
 - Egape Ikastola BHI (Urnieta)
 - Haizeder HLHI (Ea)
 - Elorrieta-Erreka Mari LHII (Bilbao)
 - Ispaster HLHI
 - San Jorge LHII (Santurtzi)
 - Urkitze HLHI (Bakio)

- Ondorengo hezkuntza-azpiegiturak diseinatzea eta abian jartzea:
 - Hezkuntza azpiegitura berria Sopelan
 - Murgia IPI (Zuia)
 - Aldaialde BHI (Vitoria-Gasteiz)
 - Astigarraga BHI
 - Urritxe BHI (Amorebieta-Etxano)
 - Gatika HLHI
 - Manuela Zubizarreta HLHI (Etxebarria)
 - Balmasedako LH Zentroa

4. ekimena. Eskolaratze inklusiboa sustatzea Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa ematen duten ikastetxeetan, eta ikasketetarako laguntzen eredu propio bat bultzatzea, ekitatezko heziketarako plan baten esparruan, heziketa-maila guztietako ikasle kalteberezko beharrezko laguntza ekonomikoak eta babesak emango dizkiena, ikasle horien erabateko eskolaratze beharrei erantzuteko eta hezkuntza-arrakasta sustatzeko.
5. ekimena. Eskola-mapa berrikustea eta egungo beharretara egokitzea, epe ertainerako biztanleria-proiektzioak kontuan hartuta, eta eskola publikoaren eredia indartzea.
6. ekimena. Ikastetxe publikoen autonomian aurrera egitea eta sakontzea, bai alderdi pedagogikoetan, bai antolakuntzakoetan.
7. ekimena. Zuzendaritzen lidergo pedagogikoa indartzea, zuzendaritza-eginkizunaren prestakuntzaren eta profesionalizazioaren bidez. Beharrezkoa izanez gero, administrazioko taldeak handitzea, zuzendaritzaren zeregin burokratikoak murrizteko, zuzendaritzak alderdi pedagogikoetan, talde-harremanetan eta irakasleen antolaketan aritu daitezen, eta hobekuntzarako, bikaintasunerako eta eskola-bizikidetzarako eta bullyingaren aurkako borrokarako plan propioak bultzatzeari ekin diezaioten.

8. ekimena. Eskola Publikoko eskola-jantokien eginkizun pedagogikoa sustatzea, kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko, elikadura osasungarria eta jasangarria irakasten laguntzeko. Oporraldian familia kalteberetan eskolatutako adingabeen elikadura egokia bermatzeko aukera aztertzea.

23. konpromisoa. Ekitatearen eta gizarte-kohesioaren aldeko apustu garbia.

1. ekimena. Eskola-segregazioaren aurkako Itun Soziala garatzea, zalantzarik gabeko apustu gisa heziketa inklusiboaren, gizarte-kohesioaren eta aniztasunaren kudeaketaren alde, Berdintasun eta Bizikidetzaren Planen garapena eta aplikazioa indartzea, eta eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari arreta emateko Plan Estrategikoan jasotako neurrietan sakontzea.
2. ekimena. Eskola-plaza baten kostua definitzea, ekitate- eta bikaintasun-printzipioetan oinarritutako zerbitzua ematen duten ikastetxe guztien doakotasun eraginkorrean aurrera egiteko tresna gisa.
3. ekimena. Konplexutasun handiko ikastetxeetan heziketa-proiektu bereziak eta erreferenteak indartzea eta sustatzea, eta baliabide gehigarriak ematea.
4. ekimena. Beken eta laguntzen sistema finkatzea, arlo honetan desparekotasun-egoerak saihesteko. Sistema hori zerbitzu osagarriari, eskolaz kanpoko jarduerari eta eskola-materialari ere aplikatzen zaie.
5. ekimena. "Haurreskolak Patzuergoa" proiektua sendotu egingo dugu, doako eta kalitatezko eskolaratze goiztiarrerako hezkuntza-eredu gisa, eta udal-eremuekiko lankidetzaz jarduerak jarriko ditugu martxan.
6. ekimena. Lurraldeetako matrikulazio-bulegoak prestatzea, eskolaratze orekatu eta inklusiboa bermatzeko.

24. konpromisoa. Euskal hezkuntza inklusiboaren eredu propioa.

1. ekimena. Heziketa-jarduna ikasleen laguntza-premia espezifikotara egokitzeko eta ikasleen garapen integralean laguntzeko programak eta neurriak sustatzea.
2. ekimena. Orientazioko zerbitzuak indartzea eta hobetzea, ikasle guztien garapen ahalik eta handiena ziurtatuz, bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz eta ibilbide profesional egokiak aukeratzen lagunduz. Eskola uzte goiztiarra murriztea.
3. ekimena. Gaitasun handiko ikasleek behar duten erantzuna emateko estrategia indartzea, euren heziketa beharretan dituzten premiei laguntzeko eta erantzuteko programak eta jarduerak bultzatuz eta talentuaren sustapena sustatuz.

4. ekimena. Ikastetxe guztietan bizikidetza positiboa eta hezkidetzaillea bultzatzea, ikastetxeetan berdintasuna eta bizikidetza sustatzen duten ekimenen garapena eta aplikazioa indartuz, irakasleentzako eta orientazio-taldeentzako prestakuntza aurreikusiz.
5. ekimena. Ikasle sartu berriei arreta integrala emateko "EUSLE" programa bultzatzea eta zabaltzea.
6. ekimena. Zailtasunak dituzten haurrei arreta goiztiarra emateko programak indartzea, dagoen protokoloa eta haren aplikazioaren kudeaketa hobetuz.
7. ekimena. Osasun Sailarekin lankidetzak indartzea, ohitura osasungarriak bultzatzeko eta osasun mentalari eta beste gaixotasun batzuei egokiro heltzeko.

25. konpromisoa. Erronka berriei heltzeko curriculumak.

1. ekimena. Gure hezkuntza-sistema etengabe hobetzearen alde egitea. Gaitasunen arabera heziketan aurrera egitea, ikaslea irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren erdigunean jarriko duena eta bikaintasuneko hezkuntzaren alde egingo duena, hezkuntza-arrakasta lortzeko eta inor atzean ez geratzeko errefortzu-neurriak bermatuz. Eskolako emaitzak eta adierazleak hobetzeko plan berri bat garatzea.
2. ekimena. Irakurketa-planetan ekimen estrategiko berriak txertatzea: irakurketa da hezkuntza-curriculumeko arlo guztien zeharkako ardatza.
3. ekimena. Proposamen metodologiko egiaztatutako bultzatzea, arrazoiaketa matematikoa sustatzeko eta hezkuntza-etapa guztietan ikasleen ikaskuntza hobetzeko.
4. ekimena. STEAM bokazioak sustatzeko ekimen berriak txertatzea.
5. ekimena. Nazioarteko Batxilergoa hiru lurraldeetan bultzatzea, curriculum-ikuspegi aurreratuak bultzatzeko.
6. ekimena. Ikastetxeetan estrategia digitala sustatzea, gaitasun digitalak garatzeko, programazioan eta pentsamendu konputazionalan alfabetatze digitala lantzeko eta adimen artifiziala ikaskuntza eta ebaluazioa hobetzeko tresna gisa sartzeko. Horretarako, irakasleekin eta ikastetxeetako zuzendaritzekin gogoeta partekatua irekiko da, haien egokitasunari buruz, bai eta eskola-orduetan gailu elektronikoak kontrolatzeari buruz ere.
7. ekimena. Heziketa-proiektuen iraunkortasuna sustatzeko ezagutzak eta balioak bultzatzea.

26. konpromisoa. Hezkuntza-sistema eleaniztuna eta kulturartekoa nazioartekotze-esparru batean.

1. ekimena. Esparru eleanitz eta kulturarteko berria garatzea, euskara eta euskal kultura ardatz hartuta, eta bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, euskara berezko hizkuntza gisa hartuta, ondo ezagutzea eta gutxienez atzerriko hizkuntza baten ezagutza optimoa lortzea helburu hartuta. Horretarako, ingurune bakoitzaren abiapuntua eta ezaugarri soziolinguistikoak eta sozioekonomikoak hartuko dira kontuan, ikasleek hezkuntza-etapa bakoitzaren amaieran eskatzen diren hizkuntza-maila eta beharrezko gaitasunak eskura ditzaten. Hori guztia ikastetxe bakoitzaren

hizkuntza-proiektuan egituratu behar da, esparru komun baten barruan, Hezkuntzari buruzko Legean eta haren zioen azalpenean ezarritakoaren arabera.

2. ekimena. Euskara eta Hizkuntzak Ikasteko Institutua sortzea. Institutu horrek bere gain hartuko du curriculumeko hizkuntzen esparruko estrategia eta jarduera nagusiak lantzeko eginkizuna. Ingelesaren ezagutza ona sustatzea lege berrian ezarritako helburuak betetzen direla bermatzeko.
3. ekimena. Ikasleek curriculumeko hizkuntza guztietan duten hizkuntza-gaitasuna indartzea, hizkuntzetan eskatzen diren hizkuntza-mailak lor ditzaten eta curriculum osatzen duten gainerako irakasgaiak eta gaitasunak behar bezala ikas ditzaten.
4. ekimena. Irakasle guztientzako hizkuntza- eta metodologia-prestakuntzako programak ezartzea.
5. ekimena. Proiektuak sustatzea tokiko erakundeekin elkarlanean, euskararen erabilera sustatzen duten eskolaz kanpoko jardueretan parte har dezaten bultzatzeko.

27. konpromisoa. Irakasleen lidergoaren aldeko apustua, hezkuntza-eraldaketarako eta etengabeko hobekuntzarako eragile gisa.

1. ekimena. Irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza eguneratzea, euskal unibertsitate-sistemako eragileekin lankidetzan.
2. ekimena. Irakasleen unibertsitate-prestakuntzan alternantziako prestakuntza duala sustatzea, ikastetxeetako kontratu eta beken bidez ikaskuntza praktikoa errazten duelako.
3. ekimena. Ebaluazioaren kultura eta emaitzen hobekuntza sustatzea. Ebaluazio-sistema integral bat sustatzea, hezkuntza-sistemaren eremu guztiak barne hartuko dituena: irakasleak, zuzendaritza-taldeak, ikasleak eta laguntza-zerbitzuak.
4. ekimena. Euskal hezkuntza-sistemako ikastetxeetan metodologia aurreratuen eta kontrastatuen garapena sustatzea, heziketa hobetzeko bidean aurrera egiteko aukera emango dietenak. Horretarako, lankidetzaren sareak sortuko dituzte, "Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa" osatuko duten arloen bitartez.
5. ekimena. Heziketa-lanetan arrakastatsu gertatu diren esperientziak eta ikastetxeen eta irakasleen arteko lankidetzaren sareak identifikatzea eta sustatzea, ikaskuntzako arrakasta-eredu horiek transferitzeko.
6. ekimena. Euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateen eta Euskal Hezkuntza-sistemako ikastetxeen arteko elkarlaneko ikerketa sustatzea, egiaztatutako ikaskuntza-ereduak baliozkotzeko.

28. konpromisoa. Nazioartean proiektzioa izango duen Euskal Hezkuntza

1. ekimena. Hezkuntza-sistemaren nazioartekotzea bultzatzea, ikastetxeen nazioartekotzea eta ikasleen eta irakasleen trukea sustatuz.
2. ekimena. Berrikuntza-programa arrakastatsuetan lankidetzaren sareak sustatzea, Europako programetan parte hartuz.
3. ekimena. "Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearekin" lankidetzaren bultzatzea.

Lanbide Heziketa

29. konpromisoa. Errendimendu Handiko Prestakuntza Lanbide Heziketan.

1. ekimena. Euskal Lanbide Heziketa munduko erreferente gisa jartzea laugarren eta bosgarren industria-iraultzari erantzuneko dion prestakuntzaren garapenean. Garapen profesionalaren paradigma berri bat ezartzea, haren nazioarteko proiektzioa bultzatuz eta Euskadiko lehiakortasunaren balio-katea indartuz, horretarako beharrezkoak diren araudiak eta planak ezarri.
2. ekimena. Lanbide Heziketako eskaintza malguagoa eta eskuragarriagoa zabaltzea, ikaskuntza erdi presentziala eta urrutikoa ere sustatuz, eta, horretarako, online prestakuntza eta modalitate horretako tituluak eta/edo ziurtagiriak egiaztatzeke aukerak zabaltzea.
3. ekimena. Lanbide Heziketaren eremuan, ikasleen euskarazko prestakuntzan eta eleaniztasunean aurrerapenak sustatzea, bigarren hezkuntzako hizkuntza-integrazioa eta -jarraitutasuna lortzeko.
4. ekimena. Lanbide-irakaskuntzetan ingelesa erreferentziazko hizkuntza gisa sar dadin bultzatzea, ikasleek lan-aukerak eskura ditzaten, enpresen nazioartekotze-testuinguru batean.
5. ekimena. Industria, osasuna edo nekazaritza adimendunak bezalako sektore berriei erantzuneko dien Lanbide Heziketa bultzatzea, bai eta sektore estrategikoetan eta garapen bidean dauden sektoreetan beste prestakuntza batzuk ematea ere.
6. ekimena. Talentu berritzailea sustatzea, emakumea industria- eta zientzia-sektoreetan sartzea indartuz, Lanbide Heziketak Unibertsitatearekin dituen ibilbideak, loturak eta lankidetzak zabalduz, eta sortzen ari diren sektoreetan enpresa berriak sortzea bultzatuz.
7. ekimena. Lanbide Heziketako ikastetxeak erakunde adimendun bihurtzea, LHko sistema osoan eraldaketa digitala erabat garatzen gida daitezkeen. Zentroek ETEei eta mikroETEei laguntza ematea, teknologia adimendun aurreratuenekin lan egin dezaten, erronka berriei eraginkortasunez erantzuteko behar den ezagutza praktikoa eskuratuz.

8. ekimena. Erasmus+ beka sustatzea Lanbide Heziketako ikasleentzat. Ikastetxeei Europako ikasleak hartzeko zentro izatea sustatzen laguntzea.
9. ekimena. Lanbide Heziketa Dualeko sistema indartzea. Beren sektorearekin zerikusia duten enprekin akordioak egitea sustatzea, alternantziako prestakuntza-eredu duala, ikasleen prestakuntza-kontratuen, beken edo praktiketako kontratuen bidez, eta gizartean edo lan-eremuan eskuratutako gaitasunak egiaztatzeko prozesuak bultzatzea, Gaitasuna Aitortzeko eta Ebaluatzeko Dispositiboa sendotuz, bai eta deialdi irekiak ere, herritarrek lehendik dituzten lanbide-gaitasunak egiazta ditzaten.

30. konpromisoa. Lanbide Heziketa etengabeko prestakuntza malgu eta eskuragarria jasotzeko tresna gisa.

1. ekimena. Etengabeko ikaskuntza sustatzea Euskal Lanbide Heziketaren bidez, prestakuntza-eskaintza malgua, doitu eta irisgarria eginez pertsona guztientzat, bai ikasleentzat, bai lanean ari direnentzat, bai langabezian daudentzat. Horrela, prestakuntza horrek indartu egingo ditu lan-esparruan, eta online bidea bultzatu eta zabalduko du, prestakuntza erdi presentzialaren bidez edo urrutitik.
2. ekimena. Lanbide Heziketako ikasleen artean ekintzailtza-kultura bultzatzea, enpresak sortzean haien proaktibitatea bultzatzeko.
3. ekimena. Erdi-mailako kualifikazioak dituzten pertsonen kopurua handitzea, goi-mailako LHren aurrerapena geldiarazi gabe. Titulazio bikoitzen eredua hiru urtera zabaltzea eta bultzatzea.

31. konpromisoa. Garapen iraunkor eta inklusiboaren helburuekin bat datorren Lanbide Heziketa.

1. ekimena. Lanbide-heziketa inklusiboa bultzatzea eta sendotzea, egoera ahulean dauden edo premia bereziak dituzten pertsonen laguntzeko.
2. ekimena. Garapen iraunkorreko helburuekin bat datorren lanbide-heziketa sustatzea eta garatzea.
3. ekimena. Emakumeak Lanbide Heziketa industrialean sartzeko programa espezifiko berri bat garatzea, emakumeen enpleguaren kalitatea hobetzeko eta soldata-arraila murrizteko tresna gisa.

Unibertsitatea eta Ikerkuntza

32. konpromisoa. Euskal unibertsitate-ekosistema indartzea.

1. ekimena. Unibertsitateko eragileekin akordio zabal bat garatzea, Euskal Herriko eta Nazioarteko Unibertsitate Prestakuntza eta Ikerketaren aldeko Gutun batean jasoko dena. Gutun horrek nazioarteko ikuspegia duen euskal unibertsitate eta ikerketa politikaren zutabeak jasoko ditu hurrengo hamarkadarako.
2. ekimena. Bikaintasunera eta talentua eta ezagutza aurreratua sortzera bideratutako unibertsitate-sistemaren alde egitea, Euskadiren erronka teknologiko-digitalari eta garapen ekonomiko eta sozialari erantzuteko eragile gisa.

33. konpromisoa. Unibertsitate Sistemaren Plan berria, plangintza eta kudeaketa estrategikorako tresna izango dena.

1. ekimena. 2026-2030 epealdirako Euskal Unibertsitate Sistemaren Plan berri bat onartzea, inbertsio publiko-pribatua sustatzera begira.
2. ekimena. UPV/EHuren funtsezko izaera bermatzea euskal unibertsitate-sistemaren barruan, bere helburuak betetzeko eta kalitatea hobetzeko finantzaketa-eredu nahikoa ziurtatuz. Unibertsitate-azpiegitura publiko berriak hobetzeko eta eraikitzeko inbertsioak bermatzea.

34. konpromisoa. Ekitatea eta berdintasuna bermatzea eta euskara euskal unibertsitate-ekosisteman hizkuntza akademiko gisa sustatzea.

1. ekimena. Ikasteko beken eta laguntzen sistema bizkortzea, zenbatekoa eta prozedura hobetuz eta kopurua urtero % 6 handituz.
2. ekimena. Unibertsitateko prestakuntzan eta ikerketa zientifikoan gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna bermatzeko estrategiak bultzatzea, unibertsitateen alorretik eta elkarlanaren bidez STEAM Euskadi estrategia garatuz.
3. ekimena. Euskarazko prestakuntza eta ikerketa sustatzea.
4. ekimena. Euskarazko online prestakuntza-eskaintza sustatzen duten programak indartzea.
5. ekimena. Tresna bat sortzea, ikasleek Euskaditik kanpoko beste ikastetxe batzuetan unibertsitate-ikasketak, ikasketa teknikoak edo lanbide-ikasketak egiteko finantzaketa jaso ahal izan dezaten.

35. konpromisoa. Enpresa + unibertsitatea harremana sendotzea eta LH + Unibertsitatea prestakuntza sustatzea.

1. ekimena. Alternantziako prestakuntza duala bultzatzea, unibertsitateen eta enpresen arteko akordioen bidez, lan-kontratuen edo beken bidez praktikak eta alternantziako prestakuntza duala egiteko.
2. ekimena. Ezagutza zientifikoa gizarteari, pertsoneri zein enpresei, transferitzeko bideak sustatzea. Unibertsitateek gizarteari zientzia-zabalkundea ematearen aldeko

apustua egitea, bai eta herrialde-proiektuen aldekoa ere, hala nola Basque Quantum konputagailu kuantikoarena, herrialde-azpiegitura zientifiko berri bat emanez.

3. ekimena. LHko eta Unibertsitateko baterako titulazioen eskaintza zabaltzea.
4. ekimena. Prestakuntza duala zabaltzen jarraitzea, bai Lanbide Heziketan, bai unibertsitatean, euskal enpresa-sarearekin elkarlanean.

36. konpromisoa. Zientzia-politika eta bikaintasun-ikerketak hobetzea, eta Europarekin lerrokatzea, Ikerbasque eragile nagusi izanik.

1. ekimena. Doktoratu aurreko eta ondoko programetan egindako inbertsioak urteko batez beste % 6 handitzea.
2. ekimena. Doktoratu ondoko ikertzaileen kontratazio-aldia bikoiztea, buelta daitezen, eta 4 urtera iristea.
3. ekimena. Zientzian, teknologian eta berrikuntzan 2030ean BPGren %3ko inbertsio publiko-privatua lortzeko bidean aurrera egitea, politika zientifikoan eta bikaintasun-ikerketan egindako inbertsioa urteko batez beste % 6 handituz.
4. ekimena. Estrategia bat egitea, prestatzen ari diren ikertzaileen eta bitarteko irakasleen lana egonkortzeko.
5. ekimena. Ikerbasqueren bidez bikaintasuneko ikertzaileak erakartzea sustatzea, bikaintasuneko ikerketa-taldeen arteko lankidetzak sustatuz.
6. ekimena. "Ikerbasque + Enpresa" programa abian jartzea, zientziak Euskadiko garapen ekonomiko eta sozialean duen eragina areagotzeko. Unibertsitateko eta BERC bikaintasuneko zentzuen ikerketa sustatzea, bai eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako gainerako euskal sarearekin duten lotura ere.

37. konpromisoa. Euskal unibertsitate-ekosistemaren nazioartekotzean sakontzea.

1. ekimena. Euskal unibertsitate-sistemak beste unibertsitate-sistema bikain batzuekin duen harremana bultzatzea, bereziki Euskadi-Nafarroa-Akitania Berria lankidetzan sakonduz.
2. ekimena. Euskal unibertsitate-sistemako ikasleen nazioarteko mugikortasuna modu ekitatiboan bermatzea, egungo beka-sistema indartuz.
3. ekimena. Nazioarteko aipamena duten doktorego-tesiak egin daitezkeen bultzatzea.
4. ekimena. UPV/EHU nazioarteko ikasleei zuzendutako masterrak gehitzea.
5. ekimena. Ingeleseko prestakuntza-eskaintza zabaltzea eta ikerketa-jardueraren nazioarteko aintzatespena bultzatzea, ikertzaile bikainenak erakartzea, prestatzea eta atxikitzea eta ikerketa-taldeein laguntzea ere erraztuz.

5.Segurtasuna

Segurtasuna funtsezko zutabea da edozein gizarteren ongizatean, egonkortasunean eta aurrerabidean. Herritarrak mehatxu fisikoen aurka babestetik haien oinarrizko eskubideak, osotasun emozionala eta psikologikoa babestearaino bermatzeko konpromisoari erantzuten dio. Polizia eta legeak funtsezko zutabeak dira gizarte baten segurtasunari eusteko.

Poliziak berebiziko garrantzia du herritarren babesean eta delituaren prebentzioan. Haien presentziak eta jardunak ezarritako arauetako errespetua sustatzen dute, eta segurtasuna eta bake publikoa arriskuan jar ditzaketen portaerak baztertzen dituzte. Poliziak aurrea hartu behar die delitu-modalitate berriei, eta, horretarako, bere antolamendua, giza baliabideak eta baliabide teknologikoak eta funtzionamendua egokitu behar ditu.

Hori dela eta, irmotasun osoz eta inolako atzerapenik gabe egin behar diegu aurre une honetan aurkezten zaizkigun barneko segurtasun-erronkei zein erronka orokorrei: ziberkriminalitatea, kriminalitate antolatua eta gorroto-delituen gorakada, indarkeriaren erradikalizazioa eta ordena publikoko desordenak kirol-ekintzen aitzakian, genero-indarkeria, klima-aldaketa eta abar.

38. konpromisoa. Ertzaintzaren egitura hobetzea eta modernizatzea.

1. ekimena. Ertzaintzaren lan-baldintzak arautzen dituen akordioari buruzko elkarrizketa eta ituna bultzatzea. Esparru horretan, Ertzaintzako langileen produktibitateak, indize zuzentzaileak eta garapen profesionaleko sistema eguneratzen aurrera egitea. Langile gehiago jartzea eta plantillak egokitzea, plazak betetzeko plana eta deialdien egutegia eta Ertzaintza Modernizatzeke Plana landuz.
2. ekimena. Ertzaintzaren azpiegiturak eta erabiltzen dituzten tresnak berritzea. Nabarmendu beharrekoen artean daude Durangoko ertzain-etxea berritzea, helikopteroen flota berritzea eta ibilgailuen flota berri eta modernizatzea.
3. ekimena. Ekipamendu eta Material Batzordeak bultzatzea, Ertzaintzako langileen ordezkarien parte-hartzea indartuz.
4. ekimena. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari eusteaz gain hobetzea eta garatzea, Euskal Polizia prestatzeko erakunde nagusi den aldetik, Ertzaintzaren eta udaltzaingoen egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Etengabeko prestakuntza indartzea lanbide-etapa osoan, agenteen ezagutzak eguneratuz, etengabe aldatzen den errealitate kriminologiko baten aurrean.
5. ekimena. Polizia-agenteei banakako kamerak ematea, segurtasun juridikoa emateko, agintaritza judizialari zigor-arloko arau-haustea egin izanaren froga-elementuak emateko eta beren jardueren gardentasuna bermatzeko.
6. ekimena. Larrialdietarako Unitatea indartzea, larrialdi- edo hondamendi-egoerei erantzuteko gaitasuna hobetzeko.

39. konpromisoa. Zerbitzua hobetzea eta eguneratzea, egungo errealitate kriminologikoaren ildotik.

1. ekimena. Sortzen ari diren delituekin lotutako ikerketa-unitateak indartzea, hala nola delinkuentzia antolatua.
2. ekimena. CyberZaintza (Zibersegurtasunaren Euskal Agentzia) garatzea, Euskadin Interneten eta teknologia berrien erabilerak eragindako mehatxuei modu integral eta zeharkakoan aurre egiteko eta sistemetan eta adimen artifizialean inbertitzeko.
3. ekimena. Iruzurrak, maulak, mehatxu digitalak eta estortsioak ikertzen espezializatutako unitateak ezartzea.
4. ekimena. Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria prebenitzeko, hautemateko eta garaiz jorratzeko programak garatzea, estrategia espezifiko baten bidez. Ziberjazarpena eta genero-indarkeria online prebenitzeko eta kontzientziatzeko programen sorrera sustatzea.

40. konpromisoa. Genero-ikuspegia duen segurtasun-sistema bat garatzea.

1. ekimena. Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren aurkako EBA sistema arrisku-balorazio berrietara egokitzea, indarkeria matxistako kasuak identifikatu eta horiei aurrea hartzeko.
2. ekimena. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimenzako arreta koordinatua indartzea, espedienteen kudeaketa integratuaren eta elkarreragingarritasunaren bidez. Biktimaren babesa eta ongizatea lehentasunezko elementu gisa artikulatzea, biktimari indarberritzen laguntzeko eta erreparazioa emateko.
3. ekimena. Emakumea Ertzaintzan sartzea eta barne-sustapena sustatzea, horretarako estrategia espezifiko bat ezarri, bereziki genero-ikuspegidun kontrataziotik.

41. konpromisoa. Segurtasun integrala eta interkonektatua lortzea.

1. ekimena. Euskadiko Segurtasun Plan berri bat garatzea, Euskal Segurtasun Publikoaren Sistema osatzen duten erakundeak errealitate sozial eta kriminologiko berrira egokitzeko.
2. ekimena. Euskadiko Polizia Koordinaziorako Sistema bat ezartzea, informazioa denbora errealean partekatzeko aukera emango duena, Segurtasun Publikoaren Sistemak unean-unean dituen premiei erantzunez baliabide operatiboak banatzeko.
3. ekimena. Gizarte zibilarekiko, herritarren elkarrekin eta kolektiboekiko harremanen sarea antolatzea, komunikazio-bide egonkorak ezartzeko. Kanal horiek aukera ematen dute herritarren eskaerak jasotzeko eta haiei eragin diezaieketen gertakariei buruzko informazioa denbora errealean helarazteko.
4. ekimena. Euskal segurtasun-sistemak babes zibileko eta polizia-lankidetzako nazioarteko esparru eta agentzietan duen posizioa indartzea.

5. ekimena. Administrazioen artean koordinazio eraginkorra ezartzea, herritarrentzako prozedurak sinplifikatzeko, eta genero-indarkeriaren eta erradikalizazio bortitzaren aurrean berariazko prebentzio-programak sustatzea, adinekoen segurtasuna sustatzeko eta bizikidetzaren errazteko.

42. konpromisoa. Ikerketa-espezializazioa eta bide-segurtasuna sustatzea.

1. ekimena. Ertzaintzako ikertzaileen karrera profesionala sustatzea, etengabeko trebakuntzan eta prestakuntzan inbertsioa areagotuz, batez ere teknologia eta auzitegi-zientzia aurreratuaren erabileran.
2. ekimena. Bide-segurtasuneko espezialisten garapena sustatzea Ertzaintzaren barruan, lanbide-prestakuntza egokia eskainiz.

6.Euskara

Erakundeen jardunari eta euskal gizartearen erabakiari esker, euskararen ezagutzak eta erabilerak gora egin dute azken hamarkada hauetan. Erronka berria da behar besteko baldintzak sortzea gure hizkuntzaren erabilerak gizarte-eremuan hazten jarrai dezan. Horretarako, Euskadik "Aroa. Euskara biziberritzeko eta ahalduentzeko esparru estrategikoa" dauka hurrengo 10 urteetarako, hurrengo hamarkadan hedatuko dena.

Mundua aldatzen ari da, eta pertsonon arteko harremanak eurak eta ezartzeko moduak aldatzen ari dira, bai modu presentzian, bai digitalean. Eleaniztasuna gero eta hedatuago dagoen testuinguruetan bizi gara. Hau aukera bat da gure hizkuntzarentzat. Kultura soziolinguistikoa berri baten atarian gaude eta elebitasun orekatua bilatzen duen eta, gainera, hiztun eleanitzen aniztasuna onartu nahi duen gizarte batean bizi gara.

Euskara euskal herritar guztion ondarea da, hitz egin ala ez, eta euskarak gure gizartean eta mundu digital konplexu eta aldakorrean lekua hartzen jarrai dezan beharrezkoak diren politikak bultzatu behar ditugu.

Euskara biziberritzeko prozesuak aurrera jarraitu behar du. Ezinbestekoa da hiztun aktiboek kopurua biderkatzea. Helburua da familian, kalean, eskolan, aisialdian, kirolean, lan-eremuan, osasun- eta zaintza-guneetan edo ingurune digitalean euskarazko komunikaziorako esparru berriak irabaztea, euskal herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko helburuarekin.

Euskara hizkuntza ofiziala da Euskadin, gaztelaniarekin batera. Helburua da euskara ere hizkuntza ofiziala izan dadila Europan.

43. konpromisoa. Euskararen ezagutza handitzea eta ingurune guztietan euskararen erabilera sustatzea.

1. ekimena. Edozein pertsonari euskara doan ikasteko aukera eskaintzeko prozesuari ekitea, pixkanaka, maila guztietan, A1etik C2ra.
2. ekimena. Negoziazio kolektibotik abiatuta, langileek euskara ikasteko behar dituzten baimenak eta orduak errazten dituzten akordioak babestea, prestakuntza denbora pertsonalaren gainean kargatu behar izan gabe.
3. ekimena. Gailu elektronikoetatik euskara autoikasteko app bat sortzea.
4. ekimena. Behar bereziak dituzten migratzaileei eta ikasleei euskarazko prestakuntza espezifiko eskaintzea.
5. ekimena. Helduei euskara irakasteko sistema finantzatzen laguntzea, Euskaltegien ohiko finantzaketa-deialdien bidez, irakasleen lan-baldintzak hobetzeko.
6. ekimena. Eremu Sozioekonomikoan 2024-2027 epealdirako Euskara Normalizatzeko Plana garatzea.

7. ekimena. BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria sustatzea, eta ziurtagiri hori eraginkorragoa izan dadin beharrezko egokitzapenak egitea.
8. ekimena. Gizarte-eragileekin eta enpresa-eragileekin aholkularitza eta laguntza teknikoko tresnak lantzea, herritarrei arreta ematen dieten zerbitzu-enpresetan euskararen erabilera hedatzeko, enpresa handiei lehentasuna emanaz.
9. ekimena. Izen handiko kirol-taldeak euskararen erabileran erreferente bihur daitezen bultzatzea, bereziki haurrei zuzendutako ikastaro eta jardueretan.

44. konpromisoa. Hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta hizkuntza-bizikidetzaren normalizatu baterako bidean aurrera egitea.

1. ekimena. Pertsona bakoitzak hautatutako hizkuntza ofizialaren erabilera bermatzea, euskal administrazio publikoak herritarrekin dituen harreman guztietan.
2. ekimena. Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa, hedatzea eta ezartzea, eta, horretarako, langile publikoek euskara ikas dezaten sustatzeko eta errazteko laguntza eta liberazioetarako beharrezko neurriak hartzea. Karrerako funtzionarioek gainerako langile publikoei eta Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeetako langileei euskara ikasteko dituzten laguntzak eta liberazioak bultzatzea.

45. konpromisoa. Euskara suspertze bidean dauden eremuetara eta eremu berrietara zabaltzeko estrategiak eta prozesuak bultzatzea.

1. ekimena. Euskara hizkuntzaren teknologietan integratzen jarraitzea, ahotsa ezagutzeko sistemak (transkripzioa), elkarrizketa automatikoko sistemak (chatbotak) edo zuzentzaile ortografikoak, gramatikalak eta hizkera ez-sexistakoak bezalako tresnak garatuz.
2. ekimena. Estatuko eta nazioarteko ikus-entzunezko ekoizpen gehienetan euskarazko azpitoluak eta bikoizketa sustatzea, eskatutako ikus-entzunezko edukiak eskaintzen dituzten nazioarteko operadore handiekin lankidetzan arituz.
3. ekimena. Eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabilera sustatzea, Foru Aldundiekin, udalekin eta kirol-federazioekin lankidetzan. Aisialdiko eta kiroleko jardueren horietan 16 urtetik beherako haur eta gazteen artean euskarak ohiko hizkuntza gisa aurrera egitea da helburua.
4. ekimena. Euskarazko lanak beste edozein hizkuntzatara eta alderantziz itzultzea sustatzea, euskarazko kulturaren eskariaren arabera eskuragarri dauden kalitatezko lanen kopurua handituz.

7.Kultura

Kultura funtsezkoa da balio indibidualak eta kolektiboak etengabe garatzeko, egokitzeko eta transmititzeko. Hitz gutxitan, komunitatea eraikitzen du. Horregatik guztiagatik, ezinbestekotzat jotzen dugu gure Herrian kultura-sorkuntza eta -ekoizpen propioa garatzea, hurbilekoa, jasangarria eta askotarikoa, bai eta irisgarritasuna eta kultura-arloko ekitatea, eta gure kultura-ondarearen kontserbazioa, kudeaketa eta transmisioa bermatuko dituzten politika publikoak ere.

Printzipio demokratikoetan sendo errotuta dagoen gizarteak behar du inguruan duen munduari buruzko iritzi pertsonala eta ikuspegi propioa sortzeko aukera emango dioten tresnak eskura izango dituen hiritargoa. Ondo informatutako herritarrak, kritikoak eta analitikoak prestatzeko zeregin horretan, funtsezko zutabea da kultura, iraganekoa, orainekoa eta etorkizunekoa, eskuragarri izatea.

Kultura ere bada gero eta eragin ekonomiko handiagoa duen esparrua. Kultura- eta sormen-industriek gero eta garrantzia handiagoa dute ekonomian, enpleguan eta berrikuntzan. Alde horretatik, lankidetzaren publiko-pribatua funtsezkoa da kulturaren esparruan ere, eta, horregatik, politika publikoek, kultura-jarduera sustatzeaz gain, lankidetzaren hori bultzatu behar dute.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzak, Euskal Herriko kultura-eragileekin batera, kultura-talentua sustatzeko politikak garatuko ditu, kultura-eskaintza bultzatzeko politikak, eta Euskadiko memoria eta kultura-ondarea transmititzen lagunduko du.

46. konpromisoa. Erakundearen arteko lankidetzaren eta kultura-arloko politika publikoaren gobernantza onen sakontzea.

1. ekimena. Kultura 2028 Plan Estrategikoa hedatzea eta garatzea, Euskadiko gainerako erakundeekin eta sektoreko eragileekin elkarlanean.
2. ekimena. Kultura Sistemaren Legea bultzatzea, herritarrei bermatzeko kultura eskuratzeko duten eskubidea, erakundeek kulturaren arloan dituzten eskumenak zehazteko eta etorkizunari begira kultura-sistema sendo eta koordinatu baten oinarriak ezartzeko.

47. konpromisoa. Kulturaren sortzaileei, artistei eta profesionalei laguntzea, Euskadin kultura-sorkuntza eta -ekoizpena bultzatzeko eta talentua garatzeko aukerak biderkatzea.

1. ekimena. Kultura sortzeko eta ekoizteko laguntza publikoa mantentzea eta eguneratzea, bereziki euskarazko kultura eta emakumeen ahalduntzea bultzatuz.
2. ekimena. Artista eta sortzaileentzako prestakuntza-programak eta egoitzak sustatzea, nazioarteko programak azpimarratuz.
3. ekimena. Kulturaren profesionalizazioa hobetzea eta sendotzea, artisten errolda eginez, kultura-ekimenak kontratatzeke jardunbide egokien gida eginez, kontratazio-baldintzen jarraipena eginez eta erabaki fiskalak bultzatuz, Foru Aldundiekin lankidetzan.

4. ekimena. Ekosistema kulturalako profesionalen lan-baldintzei buruzko akordioak sortzen laguntzea.
5. ekimena. Kultura- eta sormen-sektoreko langile autonomoen eta mikroETeen kudeaketako prestakuntza sustatzea. Kultura-eragileen ekintzailtza babestea, haien jarduera sozial eta ekonomikoaren berezitasuna kontuan hartuta.
6. ekimena. Kultura eta hezkuntza arloen, Foru Aldundien, kultura sektorearen eta hezkuntza-komunitatearen arteko lankidetzaren bidez, haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan sormen-gaitasunak sustatzea, bai eta arte-diziplinekiko harreman goiztiarra ere, eta hezkuntza-sisteman sorkuntza artistikoa eta kulturala deskubritzeko eta sustatzeko programak bultzatzea,
7. ekimena. Euskal artisten lanak sustatzea munduan antolatzen diren azoka, jaialdi eta merkatuetan, batez ere Euskadirentzat estrategikoak diren eskualdeetan, Etxepare Institutuarekin lankidetzan.
8. ekimena. Euskal kultura- eta ikus-entzunezko ekoizpenak bultzatzen jarraitzea, "Euskadi Basque Country" marka mundu osoan zabaltzeko, EITBrekin lankidetzan.
9. ekimena. Foru Aldundiekin elkarlanean, sorkuntza kultural amateurrak ere bere adierazpen-eta sozializazio-bideak izan ditzan behar den ingurunea sortzeko.

48. konpromisoa. Kultura-eskaintza aberastea eta gizarteari hurbilaraztea, eta herritarrei kulturarako sarbidea erraztuko dieten proiektu estrategikoak bultzatzea.

1. ekimena. Irakurketa sustatzeko ekintza-plan bat sustatzea euskal gazteentzat, eta Euskadiko Irakurketa Mapa bultzatzea, oinarritzko tresna baita irakurketa sustatzeko politikak garatzeko. Horretarako, parte hartzen duten eragile guztiak hartuko dira kontuan, liburuak sortu, editatu edo banatzetik merkaturatzeraino, bai eta liburutegien euskal sareak jokatzeko jarraitu behar duen ezinbesteko papera ere.
2. ekimena. Gasteizko Udalarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin batera, Gasteizko Principal antzokia eraberritzen eta handitzeko proiektuan parte hartzea.
3. ekimena. Donostiako Udalarekin lankidetzan aritzea hiria Europako kultura-erreferente gisa kokatzeko, Victoria Eugenia Antzokiaren espazio teknikoa hobetzea eta berritzea edo egoitza artistiko bat sortzea bezalako proiektuak aztertuz.
4. ekimena. Kontuan hartzea Busturialdea-Urdaibai eskualdea suspertzeko planaren esparrua eta Trantsizio Ekologikoko Ministerioarekin egindako akordioan jasotako ingurumen-jarduerak, Guggenheim Urdaibai proiektuan aurrera egiteko Guggenheim Bilbao Museoaren Patronatuaren baitan eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan.

5. ekimena. Ikuskizunen ekoizpena eta zabalkundea, publiko berrien sorrera eta Euskaditik kanpoko euskal kultur ekimenen presentzia sustatzea, beste erakunde publiko batzuekin, arte eszenikoen prestakuntzan, sorkuntzan, produkzioan eta zabalkundean parte hartzen duten espazio eta eragileekin lankidetzan.

49. konpromisoa. Euskadiko kultura-ondarearen kontserbazioa, kudeaketa eta transmisioa balioestea eta ziurtatzea.

1. ekimena. Kultura-jarduera tradizionalak sustatzea, hala nola euskal abesbatzak edo dantzak, belaunaldien berrikuntza eta iraupena ziurtatzeko.
2. ekimena. Euskadiko kultura-ondarean inbertsioa bultzatzea, herri-lanak finantzatzeko aurrekontu-partiden % 1 gutxienez eremu horretara bideratzeko konpromisoan aurrera eginez.
3. ekimena. Iruditeria kolektiboa eta kultura-ondarea eraikitze bidean emakumeek egiten duten ekarpenaren garrantzia ikusaraztea, Emakunderen parte-hartzearekin.
4. ekimena. Euskal industria-ondarea berreskuratzeko, kontserbatzeko, balioesteko eta eskualdatzeko plan integratua bultzatzea.
5. ekimena. Gure liburutegi-sarea indartzea eta profesionalei beharrezko prestakuntza eta trebakuntza ematen laguntzea, kultura herritarrengana hurbiltzeko, Euskadiko Liburutegiei buruzko 11/2007 Legea garatuz.

50. konpromisoa. Kulturaren berrikuntza eta digitalizazioa bultzatzea.

1. ekimena. Adimen artifizialak kulturaren duen eragina aztertze lantalde bat sortzea.
2. ekimena. Kultura-sektorearen trebetasun digitalak eta enpresa-gaitasunak indartzea, eta kultura- eta sormen-industrien aldeko apustua indartzea. Euskadi Europako erreferentziatzko lurralde gisa kokatzea da helburua, Basque District of Culture and Creativity izenekoa sendotuz.

8. Gazteria

Euskal gazteek laguntza eraginkorrek behar dituzte nahi duten adinean emantzipatzeko eta beren bizi-proiektuak autonomiaz garatzeko, gizartean erabat parte hartuz eta beren eskubideak erabiliz.

Gazteen Legeak eta gazteen emantzipazioa bultzatzeko 2030erako Euskal Estrategiak, duela gutxi onartu direnak, eskubide-esparru bat eta laguntza-neurrien ekosistema bat ezartzen dute funtsezko eremuetan, hala nola etxebizitza eskuratzea, kalitatezko enplegua edo errenta erabilgarria, besteak beste.

Funtsezkoa da politika publiko horiei jarraipena ematea eta indartzea, eskubide eta laguntza horiek guztiak gauzatzeko, euskal gazteen emantzipazio-adina aurreratzeko eta gazteen bizi-proiektuen autonomia ahalbidetzeko.

Helburu horrekin, legegintzaldi honetan aurrera egin behar da 2030erako Euskal Estrategiaren hamar proiektu bultzatzaileetan, gazteen emantzipazioa bultzatzeko eta, oinarri horren gainean, ekimen berriak inplementatzeko. Ekimen horiek, jarraian azalduko ditugunak bezala, edukiak sendotu eta finkatuko dituzte.

51. konpromisoa. Kalitatezko enplegua sustatzea eta gazteen artean ekintzaitza babestea.

1. ekimena. Gazteentzako kalitatezko enplegua sortzen laguntzea, enplegu horrek soldata onak, lan-baldintza onak, asmo handiko garapen profesionala, lan-malgutasun handiagoa eta lana eta bizitza pertsonala uztartzeko aukera gehiago izan ditzan.
2. ekimena. Gazteen enplegua babesten jarraitzea, lehen lan-esperientzia lortzen lagunduz. Aldi berean, enpresetako praktiken programen kontrola egitea, praktikak gazteentzat baldintza egokietan egiten laguntzeko.
3. ekimena. Bereziki zahartutako sektoreetan, hala nola lehen sektorean edo merkataritza txikian, belaunaldien arteko errelebo-programak areagotzea.
4. ekimena. Ekintzaile gazteentzako finantzaketa-tresna espezifiko bat bultzatzea.

52. konpromisoa. Gazteei bizi-proiektu berri bati ekiten laguntzea.

1. ekimena. Laguntzak areagotzea, gazteek alokairuko etxebizitza bat arrazoizko prezioan eskura dezaten, bai dirulaguntzen programen bidez, bai pizgarri fiskalen bidez, Foru Aldundiekin lankidetzan.
2. ekimena. Legegintzaldian zehar alokairu sozialeko 7.000 etxebizitza eraiki daitezzen sustatzea, kolektibo horrentzako (36 urtetik beherako pertsonak) egungo erreserba % 40tik %50era handituz Eusko Jaurlaritzak sustatutako alokairuko etxebizitzaren esleipenetan.

3. ekimena. Emantzipa laguntza-programaren barruan urteko diru-sarreraren muga 30.000 eurora arte handitzea, gazteen emantzipazio-prozesuak hasten edo finkatzen laguntzeko.
4. ekimena. Gaztelagun programako etxebizitza alokatzeko laguntzen irizpideak handitzea, banakako gehieneko diru-sarrerak 30.000 eurora handituz.
5. ekimena. Udalekin hitzarmenak sustatzea, udalen etxebizitza-planak bultzatzeko eta gazteentzako alokairu-pisuak gaitu ahal izateko, txandakako 3.000 etxebizitza berri sortuz. Udalekin lankidetzan, zuzkidura-bizitokien eraikuntza bultzatzea, batez ere gazteentzat.
6. ekimena. Gazteei zuzendutako abal-lerro bat bultzatzea, etxebizitza bat erosiz gero eskatutako maileguaren finantzaketa osatu ahal izan dezaten.
7. ekimena. Biziguneren bidez eskuratutako etxebizitza hutsen % 50 gazteentzat alokatzea.
8. ekimena. Foru Aldundiekin eta Udalekin lankidetzan, GAZ (Gazteriaren ibilbideak Abiarazteko Zerbitzua) Zerbitzuaren bulegoak martxan jartzea azkartzea, gazteen emantzipazio-prozesuei buruzko informazioa, orientazioa eta laguntza pertsonalizatua emateko, eskura dituzten baliabide guztiak hurbilduz.

53. konpromisoa. Gazteen lehentasunei erantzungo dien gazte-politika integrala garatzea.

1. ekimena. 2024-2030 aldirako Gazteriaren Euskal Estrategia definitzeko eta onartzeko prozesua garatzea, Euskadiko gainerako herri-administrazioekin eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan, gazteek partaidetza-prozesuetan adierazitako lehentasunei (osasuna, hezkuntza, klima-aldaketa, kultura, aisia, parte-hartzea, berdintasuna edo bizikidetzak) erantzungo dieten baterako erantzunak artikulatzeko.
2. ekimena. Gazteriaren aldeko herrialde-itun bat lortzeko akordio-prozesua amaitzea. Ildo horretan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan, elkarriketarako guneak bultzatzea, gazteek politika publikoak elkarrekin sortzeko prozesuan parte har dezaten sustatzeko, haien premiei erantzuteko.
3. ekimena. Mailegu-programa bat bultzatzea, epe luzera itzultzeko aukerarekin, gazteen prestakuntza-proiektuak finantzatzeko, hala nola graduondoko ikasketak edo hizkuntzak ikastea. Programa hori beka-programak indartzearen osagarri izango litzateke.
4. ekimena. Hezkuntza-aisialdiko hezkuntza indartzea, aisialdiko sare eta taldeekin lankidetzan, gazteen autonomia, parte-hartzea eta gizarte-konpromisoa sustatzen laguntzen baitute.
5. ekimena. "Basque green talent" (enplegu berdea) programa abian jartzea, gazteak ekonomia zirkularraren aukeretan trebatzeko.

9. Demografiaren erronka

Egoera demografikoa lehenetsunezko kezka da munduko gizarte gehienetan, batez ere Europan. Gai horri heltzea oso konplexu gertatzen ari da, eta, aldi berean, aukera-iturri ere bai. Bizi dugun desoreka demografikoa, neurri handi batean eta paradoxikoki, pertsonen oinarritzko eskubideak —osasuna, esaterako— babesteko eta hedatzeko Euskadin garatu ditugun politika publikoen arrakastaren ondorio da, baita bizi-itxaropena eta bizi-itxaropen osasungarria edo desgaitasunik gabea luzatzea lortu izanaren ondorio ere.

Erronka demografikoari erantzutea herri osoaren helburu estrategikoa da. Hurrengo hamarkadetako perspektiban garrantzitsuenetako bat. Euskadi gaztetu behar dugu, belaunaldien arteko oreka hori funtsezkoa baita gure ongizate-eredua bermatzeko.

Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategiak erronka horri erantzuteko emaitza onenak lortzen ari diren herrialdeetan abian jarritako politiken ildoari jarraitzen dio. Legegintzaldi honetan Estrategia osoa garatu behar da, eta, oinarri horren gainean, Euskadik aurre egin behar dion erronka demografikoa konpontzen lagunduko duten politika berriak ezarri behar dira.

Erakunde maila ezberdinen artean zeharkakoak izan daitezkeen politika publikoen eremuan Estrategiaren erakunde arteko dimentsioa zabaltzea, Foru Aldundiekin, Udalekin eta gizarte zibileko beste eragile batzuekin modu aktiboan lankidetzan-esparru bat garatuz.

54. konpromisoa. Familiari laguntzea eta jaiotza-tasa sustatzea.

1. ekimena. Laguntza zuzenen epea luzatzea, hau da, 200 euro hilean ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko. Horrela, progresiboki luzatuko da, semearen edo alabaren 3 urtetik 7 urtera arte, edo, familia ugarien edo guraso bakarreko familien kasuan, 10 urtera arte, indarrean dauden irizpideak errespetatuz.
2. ekimena. Haurreskolen eskaintzaren hedapena sustatzea, lurralde-banaketa handituz. Beste aukera batzuk bultzatzea, ordutegi osagarrietan, kontziliazio-aukerak zabaltzeko, eta seme-alaba adingabeak zaintzeko formula profesionalizatuekin lotutako jarduerak garatzen jarraitzea, 2030erako Erronka demografikorako Euskal Estrategian jasotako parametroetan.
3. ekimena. Ikastetxeetan goizeko gelak sustatzea, kontziliazioa bultzatzeko.
4. ekimena. Ikuspegi demografikoa, landa inguruneko eta hiriko dimentsio bikoitzarekin, politika publiko guztietara zabaltzea, erronka horri erantzuteko eremu guztietatik lan egiteko.
5. ekimena. Aitatasun- eta amatasun-baimenak 24 astera arte luzatzea baimen berdinekin eta besterenezinekin, betiere gizarte-eragileen autonomia errespetatuz, sindikatuek eta patronalak Lanbide arteko Akordioaren esparruan jorratzea komeni dela bultzatuz.
6. ekimena. Guraso bakarreko familiei berariazko estatutua ematea, politika publikoetatik beren berezitasunera egokitutako erantzunak eskaintzeko.

55. konpromisoa. Euskadiko giza kapitala indartzea.

1. ekimena. Euskadiko giza kapitala indartzea 2030erako Erronka Demografikorako Euskal Estrategiaren lehentasunezko jarduera-ardatz berritzat hartzea. Helburua da erantzuna ematea belaunaldien arteko errelebua egiteko gero eta zailtasun handiagoi eta lan-merkatuan dagoen eskulan-defizitari.
2. ekimena. Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategiaren esparruan etorkinak gizarteratzeko eta laneratzeko plan integral bat egitea, kualifikazioa, lan-esperientzia eta lan- eta harrera-baimenen baimenen kudeaketa jasoko dituen, erantzun koherente eta integratu bat eman ahal izateko, Euskadira aukera baten bila iristen direnen kudeaketa adimentsu eta inklusibo baterako.

56. konpromisoa. Migratzaileak eta errefuxiatuak gizarteratzeko laguntza.

1. ekimena. Migratzaileak eta errefuxiatuak hartzeko programak indartzea. Harreragune programa pilotua garatzea, iritsitakoan sartzeko prozesuan harrera eta laguntza hobetzeko zerbitzu integral gisa sortua.
2. ekimena. Gizarteratze- eta bizikidetzaprozesuetan aholkularitza juridikoko eta laguntza espezializatuko zerbitzuak bultzatzea.
3. ekimena. Familia-laguntzarako sarerik ez duten gazte etorkinak helduarora igarotzeko laguntza-programak indartzea.
4. ekimena. Migratzaileei zuzendutako politiken diseinuan genero-ikuspegia txertatzea, emakumeen egoera espezifikokoak eta haien errealitatea kontuan hartuta.
5. ekimena. Migratzaileen eta errefuxiatuen harreraren eta integrazioaren arloan Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak diren politikak bultzatzea, bai eta euskal harrera-eredu bat definitzen eta bultzatzen jarraitzea ere, Estatuko Gobernuarekin lankidetzan. Ondorioz, Espainiako Gobernuarekin baterako gobernanzarako eta lankidetzarako esparru bat ezartzea, lankidetzaharremanak areagotzeko, pertsonen harreraren kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko eta baliabide eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea errazteko, elkarrekiko laguntzaren eta informazio-trukearen bidez.
6. ekimena. Atzerritarrentzako lan-baimenak izapidetzeko eta ebazteko eskumenen transferentzia Espainiako Gobernuarekin negoziatzea eta adostea.

10. Jarduera fisikoa eta Kirola

Eusko Jaurlaritzak honako dimentsio hauetan ulertzen du gorputz- eta kirol-jarduera: balio-eskola, osasunaren eta ongizate indibidual eta kolektiboaren iturria, eta euskal kirol-ekosistemaren ikuspegi integrala defendatuz garatzeko eskubide unibertuala, berau osatzen duten erakunde, eragile, elkarte eta federazio bakoitzaren jarduera-eremua bultzatuz eta errespetatuz.

Kirolaren eta jarduera fisikoaren arloko politika publikoek kirol-jarduera lehiakorra bultzatzea eta osasun publikoa sustatzea uztartu behar dituzte, baita gizarte-kohesioa eta irisgarritasuna ere. Kirola, gainera, nazioartean proiektatzeko faktorea da Euskadirentzat.

57. konpromisoa. Gure kirolak nazioartekotzea eta Euskadiko selekzioei bultzada ematea

1. ekimena. Nazioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzera begira selekzioen ofizialtasunean aurrera egitea erabakitzen duten euskal kirol-federazioei laguntzea, Espainiako Gobernuarekin lortutako akordioa kontuan hartuta.
2. ekimena. Euskal Kirol Federazioen Batasunari laguntzea euskal federazioei behar duten laguntza eta babesa ematen, euskal selekzioek estatuko eta nazioarteko lehiaketetan, ofizialak barne, parte hartzea sustatu eta bultzatzea.
3. ekimena. Euskal federazioei laguntzea selekzioen arteko kirol-ekitaldiak bultzatzen eta egiten.
4. ekimena. Euskadiko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko 2/2023ko Legearekin bat etorritik, euskal selekzioei eta nazioartean lehiatzen diren goi-mailako kirolari eta taldeei ematen zaien laguntza indartzea, Euskadi Basque Country markaren kanpo-proiektzio elementu gisa.
5. ekimena. Erreferentziako nazioarteko kirol-ekitaldiak erakartzeko eta kudeatzeko lan egitea, gure nortasuna garatzeko eta Euskadi kanpoan proiektatzeko aukera gisa, Euskadi Basque Country marka sendotuz.
6. ekimena. Bertoko kirolen etengabeko hobekuntza eta kalitatea sustatzea, ikuspegi estrategiko batetik, nazioartean Euskal Pilota, Arrauna edo Herri Kirolak ageriago egon daitezen.

58. konpromisoa. Jarduera fisikoa sustatzea balore sozialak lantzeko tresna den aldetik.

1. ekimena. Euskadiko jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Legearen eta Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legearen garapena burutzea, eta haren potentzial guztia lantzea eta hedatzea.
2. ekimena. Berdintasuna eta ekitatea sustatzea kirolean eta kirol egokitan, eta ohiko federazioetan sartzeko sustatzea.

59. konpromisoa. Kirola sustatzea jarduera osasungarria dela aintzat hartuz, proiektu estrategikoak bultzatzea eta Euskadiko kirolariei babesa ematea.

1. ekimena. Kirola eta bizitza aktiboa sustatzea. BAPPA Plana (Basque Plan of Physical Activity) sortzea mugarri bat izango da bizitza aktiboaren sustapenean, gure kirolariak bizitza aktibo eta osasungarri baten erreferente gisa jarriz.
2. ekimena. Ikerketa-estrategia bat garatzea, erakunde akademikoekin lankidetzan, jarduera fisikoa eta kirola babesten dituen oinarri zientifikoa sendotuz eta emaitzak euskal gizartean ezagutzera emanaz.
3. ekimena. Kirolarientzako Egoitza eta Fadurako Hobekuntza Zentroa erreferentziazko gune bihurtzea European. Goi-mailako euskal kirol-garapenaren epizentro gisa proiektatuko da.
4. ekimena. Kirol-errendimendu handia eta euskal kirolariek nazioarteko lehiaketetan, besteak beste, Joko Olinpikoetan eta Paraolimpikoetan, garatzeko eta proiektatzeko aukerak sustatzeko bekak indartzea.
5. ekimena. Anoetako eta Donostiako Ilunbeko kirol-hiriaren eraldaketa integrala abian jartzea, Donostiako Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera.
6. ekimena. Usurbilen "Maialen Chorrout-Orbeldi ur bizen kanala" eraikitzea bultzatzea.
7. ekimena. Irungo Plaiaundiko naturgunea berroneratzeko proiektua babesteko formulak aztertzea eta bertako kirol-azpiegiturak Txenpereneara eramatea, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Irungo Udalarekin lankidetzan.
8. ekimena. Bizitza osasuntsu baterako jarduera fisikoa sustatzeko estrategia babestea eta Mugimint Kirol Txartela euskal udalerrri guztietara hedatzea bultzatzea.
9. ekimena. "Basque Team" bultzatzea, goi-mailako euskal kirolaren erreferente gisa. Helburua da nazioarteko lehiaketetan eta Joko Olinpiko eta Paralimpikoetan gure kirolarien presentzia areagotzea.
10. ekimena. Programa bat garatzea, kirol-ibilbidea amaitzen duten kirolari profesionalak ibilbide profesionalerako laguntza-prozesu bat izan dezaten, beren kirol-ibilbidean eskuratutako gaitasunak aprobetxatzeko: mentorizazioa, ikasketetarako bekak eta/edo ekintzailatza-proiektuetarako dirulaguntzak.

II. ARDATZA. HAZKUNDE- ETA ONGIZATE-EREDUA

JARDUN ARLOAK:

11. Kalitatezko enplegua eta Talentua

12. Industria

13. Berrikuntza

14. Digitalizazioa eta Adimen Artifiziala

15. Azpiegiturak

16. Lehen Sektorea eta Arrantza

17. Merkataritza eta Ostalaritza

18. Turismo jasagarria eta bikaintasunezkoa

19. Kontsumitzailea

11. Kalitatezko enplegua eta Talentua

Euskadin dagoen enplegu-tasa altuak erakusten du orain arte garatutako politiken eraginkortasuna krisi-testuinguru batean, non ekintzailtza ere sustatu den eta hazkundera sortzen duen inbertsioa bultzatu den.

2030erako Enpleguaren Euskal Estrategian, Euskadirentzat nahi dugun enplegua eraikitzeke helburu estrategikoa finkatu da, gizarte-eragileekin ahalik eta adostasun handienarekin. Gure ongizate-estatuari eustea eta garatzen jarraitzea ahalbidetuko duen enplegu nahikoa. Eta kalitatezko enplegu inklusiboa, aukera-berdintasun eraginkorrean eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean oinarritua, langileen eskubideak bermatuko dituen eta enpresen aukeretarako balioko duena, eta gizarte aurreratuagoa eta kohesionatuagoa eraikitzen lagunduko duena. Datuek ere bermatzen dute apustu estrategiko horren egokitasuna.

Gure gain hartzen dugu printzipio horietan aurrera egiteko erronka, eta, horretarako, garrantzitsua da kontuan izatea enplegua sortzea ez dela besterik gabe planteatzen den helburu bat. Ikuspegi integral bat behar da, hainbat faktore jorratuko dituen, hala nola hezkuntza, lan-prestakuntza, sektore estrategikoetan enplegua sortzea eta berrikuntza sustatzea. Gainera, lehenetsun ukalezina eta partekatua izango da sortutako enpleguak kalitatezkoak izatea, soldata justuekin eta lan-baldintza egokiekin. Osasun- eta segurtasun-baldintzetan garatuko den enplegua, langileen bizi-proiektuak erabat garatzea ahalbidetuko duena, azken batean, enplegu duina, kalitatezkoa eta inklusiboa, pertsona guztien beharrei erantzuneko diena.

Enpleguaren esparruan indarra hartuz joan den beste kontzeptua da talentuarena, pertsona batek jardura edo zeregin bat trebetasunez eta eraginkortasunez egiteko duen gaitasunari edo trebetasunari dagokionez. Herrialde bateko talentua zaintzea eta garatzea ere badakar bere herritarrei hazkundera pertsonal eta profesionalerako aukerak zaintzea eta eskaintzea, eta, aldi berean, lehiakortasuna hobetzea.

60. konpromisoa. Enplegua sustatzea eta enpleguaren kalitatea hobetzea.

1. ekimena. Enpleguaren Euskal Legearen eta Enpleguaren aldeko Itun Sozialaren potentzialtasun osoa garatzea. Lege horren helburua da enplegu duina bermatzea, berdintasun-baldintzetan, jardura ekonomiko lehiakorra, iraunkorra eta arduratsua bultzatuz.
2. ekimena. Langabezia-tasak murrizteko politikak sustatzen jarraitzea, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sustatuz, langabezia-tasa txikiena duen Estatuko lurraldea izaten jarraitzeko, Europar Batasuneko herrialdeen batez bestekoaren antzekoa, hurrengo legegintzaldian enplegu osoa lortzeko bidean aurrera egiteko helburuarekin.
3. ekimena. Belaunaldien arteko elkarbizitzarako plan bat egitea, edadismoaren edozein alborapen ezabatzeko, dela aurretiko esperientziarik ez izateagatik, dela urteak betetzeagatik baztertzeke arriskua izateagatik. Enpresetan adina kudeatzeko laguntzak zabaltzea aurreikusten duen plan bat, planifikatutako belaunaldi-erreleboa errazteke eta lanbide guztietan talentua galtzea saihesteko.
4. ekimena. Iraupen luzeko zainketen eta bitzita luzearen profesionalak duintzeko estrategia bat lantzea, kualifikazio-programen eta lan-baldintzak hobetzearen bidez (Zainlab).

Zaintzen dutenen parte-hartzea bultzatzea, gizarte-eragileen arteko elkarrizketaren bidez.

5. ekimena. Enpleguaren eta elkarrizketa sozialaren esparru guztietan, Euskadiko langileen soldata eta lan-baldintzak hobetzea eta sustatzea, gizarte-eragileen arteko adostasun-espazioak bultzatuz.

61. konpromisoa. Elkarrizketa sozialean aurrera egiten jarraitzea eta negoziazio kolektiboa sustatzea, kalitatezko enplegua izateko.

1. ekimena. Elkarrizketa Sozialeko Mahaian ordezkatuta dauden gizarte-eragileekin enplegu-estrategia eta -planak adostea eta lankidetzan aritzea.
2. ekimena. Erakundeen parte hartzeari buruzko Legea bultzatzea, sindikatu- eta enpresa-erakundeen parte-hartzearen esparru juridikoa finkatuko duena, erakunde horiek gure gizartean duten garrantzia eta garapen ekonomiko eta sozialari eta herritarren ongizateari egiten dioten ekarpen nabarmena kontuan hartuta.
3. ekimena. Elkarrizketa Sozialeko Mahaian, gizarte-eragileen autonomia errespetatuz, lanbide arteko akordioak Euskadiko errealitate sozioekonomikoarekin bat datorren negoziazio kolektiboko gutxieneko soldata bat jaso dezan sustatzea.
4. ekimena. Negoziazio kolektiboa sustatzea, berdintasunerako tresna gisa. Sindikatuei eta enpresei hitzarmen kolektiboen negoziazioan hobekuntzak ematea ahalbidetuko dieten mekanismoak bultzatzea, bai eta erreferentzia gisa berdintasun-planak erabiltzea ere.
5. ekimena. Gizarte-eragileekin batera, lanaldia murrizteko esperientzia pilotua aztertzen jarraitzea, soldata murriztu gabe, eta telelana eta langileek enpresetako erabaki estrategikoetan parte hartzea sustatzea, helburu estrategikoetan aurrera egiteko, hala nola enpleguaren kalitatean, enpleguaren eta zainketa-lanen banaketa justu eta ekitatiboan gizonen eta emakumeen artean, produktibitatean, iraunkortasunean eta lan-osasunean. Hori guztia, lehiakortasunari eta hazkundeari eusteko beharra kontuan hartuta.

62. konpromisoa. Kalitatezko enpleguaren aldeko bultzada publikoa eta lankidetzak publiko-pribatua.

1. ekimena. Enplegua politika publikoen erdigunean kokatzea, garapen ekonomiko eta sozialeko politiken funtsezko ardatz gisa, eta politika horiek guztiek enpleguan duten eraginaren azterketa sustatzea.
2. ekimena. Enpleguaren tokiko dimentsioa indartzea, udalek Eusko Jaurlaritzaren plangintza estrategikoan duten zeregina indartuz, bai eta tokiko enplegu-planen laguntzea ere.
3. ekimena. Unibertsitatearekin eta Lanbide Heziketarekin lankidetzak-espazioak sortzea, prestakuntza-ibilbide integratuak, malguak eta produkzio-sarearen premietatik hurbil daudenak sustatzeko, lan-merkatuaren eta prestakuntzaren arteko elkarrizketa hobetuz.

4. ekimena. Enpresekin lankidetzan aritzea, haien beharrak etengabe ezagutzeko eta talentua txertatzen laguntzeko, pertsonak zentroan jarriko dituen kudeaketa aurreratua garatu ahal izan dezaten.
5. ekimena. Eragile sozial, sektorial eta akademikoen eta enplegu-zerbitzuen parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzea Enpleguaren Euskal Foroan, Enplegu Politika Publikoaren Euskal Kontseiluaren ekintza aberasteko eta kualifikatzeko.

63. konpromisoa. Enplegu-sistema integrala eta aktibatzailea, Lanbide ardatz egituratzailea duena.

1. ekimena. Lanbideren "Lanbide Hobetzen" eraldaketa amaitzea, herritarrentzako eta enpresentzako arreta eta esku-hartze eredu eraginkor bat lortzeko, langabezia murrizteko eta gaitasun profesionalak handitzeko gai izango dena, pertsonen garapen profesionalaren eta enpresa-lehiakortasunaren mesedetan, enplegu gehiago eta hobea lortzeko.
2. ekimena. Lanbidetik langileen eta kualifikazioen gaur egungo eta etorkizuneko eskaerei buruzko informazioaren transmisioa hobetzea, baita produkzio-sektoreen premien bilakaerari buruzkoa ere.
3. ekimena. Orientazio eta laguntza pertsonalizatuarekin jarraitzea, Lanbiden zerbitzua emateko modu natural gisa, langabezia-egoerak ahalik eta laburren izan daitezten. Enplegu-sistema horrek zentroan jartzen du langabezia, eta beharrezko zerbitzu guztiak (prestakuntza, orientazioa, laguntza eta enplegurako eta ekintzaitzarako laguntza) eskainiko dizkio, ahalik eta lasterren.
4. ekimena. Lanbidetik babes eta laguntza espezifiko eskaintzea enplegua lortzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboetara, batez ere 55 urtetik gorakoei, batzuetan edadismo-egoeren ondorioz diskriminatuak baitira.
5. ekimena. Lanbidetik lan-orientazio integral eta pertsonalizatua indartzea, pertsonen karrera-plan koherente, moldagarri eta malgu garatzeko beharrezko tresnak emango dizkiena, bai enplegua aurkitzen eta lanpostuan jarraitzen laguntzeko, bai enpresen beharrak betetzeko.
6. ekimena. Enplegu Zerbitzu Publikoaren bitartekaritza-zereginean sakontzea, pertsona guztiak lan-aukerak lortzeko aukera berdinak izango dituztela bermatzeko, eta euskal erakundeek abian jartzen dituzten ekonomia- eta lehiakortasun-garapenerako politikekin lankidetzan aurrera egitea.
7. ekimena. Enplegu bila ari diren edo sektore espezializatuatan dutena hobetu nahi duten pertsonen prestakuntzarako laguntzak bultzatzea, prestakuntza hori Lanbideak zuzenean eskaintzen ez duenean.
8. ekimena. Orientazio- eta laguntza-zerbitzua zabaltzea, lan egin arren, arlo profesionalen hobetu nahi duten pertsonen, egonkortasunari, lanaldiari edo proiektu profesionalari dagokionez behar adinako kalitatekoa ez denean.
9. ekimena. Etengabe ikasten jarraitzeko mentalitatea sustatzen duten birziklapen- eta birkualifikazio-programen garapena sustatzea, euskal profesionalen aukera emanez

aurrerapen teknologikoen erronkei eta produkzio-ereduen eraldaketei (digitalizazioa, AA, ekonomia berdea...) arin aurre egiteko.

64. konpromisoa. Enplegu inklusiboa sustatzea eta zailtasun handienak dituzten langabeei laguntzea.

1. ekimena. Erakunde publikoetan eta enpresa pribatuetan pertsona kalteberak, iraupen luzeko langabeak, gazteak, emakumeak eta 45 urtetik gorakoak prestatzeko eta kontratatzeko programa mistoak areagotzea.
2. ekimena. 55 urtetik gorako pertsonak kontratatzeko pizgarriak indartzea eta pertsona horiek enpresekin konektatzeko espazio fisiko eta birtualak ezartzea.
3. ekimena. Gazteen enplegua babesten jarraitzea, lehen lan-esperientzia lortzen lagunduz. Aldi berean, enpresetan praktikak egiteko programak kontrolatzea, tresna horren abusu-egoerak gerta ez daitezen.
4. ekimena. Desgaitasunen bat duten pertsonen eta lan-merkatutik urrunen dauden pertsonen zuzendutako enplegu-programak areagotzea, merkatu arruntean laguntza emanez. Era berean, plan bat garatzea enplegu babestutik enplegu arrunterako trantsizioa sustatzeko, desgaitasuna duten pertsonentzat eta bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzat.
5. ekimena. Merkatu arruntera igartzeko egitura ekonomikoei ematen zaien laguntza handitzea, hala nola laneratzeko enpresei eta enplegu-zentro bereziei ematen zaiena.
6. ekimena. Esku-hartze sozialeko hirugarren sektorearekin lankidetzan aritzea, lan-merkatutik oso urrun dauden pertsonen zuzendutako programetan.
7. ekimena. Enpresetan aniztasuna integratzeko estrategia bat egitea, talentu guztiak Lanbideren laguntzarekin txertatu ahal izateko, Enpleguaren Euskal Legearekin ezarriko diren ibilbide pertsonalizatuaren esperientziatik abiatuta, euskal langabeen eta dagoeneko Euskadin dauden etorkinen laneratzeko lehenesteko helburuarekin.

65. konpromisoa. Bazterkeria egoerari aurre egiteko diru-sarrerak bermatzeko sistema finkatzea.

1. ekimena. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legearen hedapena amaitzea.
2. ekimena. Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak kudeatzeko prozedura berriak finkatzea, euskarri teknologiko sendoarekin.
3. ekimena. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera kudeatzeko prozesuen integrazioan aurrera egitea.
4. ekimena. Gizartean eta lan esparruan baztertuta dauden pertsonen laneratzeko bultzatzea, haien egoera kroniko bihurtzea saihestuz, laguntza-, enplegu- eta prestakuntza-programa integral eta malguen bidez.

5. ekimena. Enplegurako pizgarrien sistema berri bat bultzatzea, beren soldata Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin osatzen duten pertsonentzat, egungo gizarte- eta lan-testuingurura egokituko dena, prestazioak jasotzen dituzten pertsonen enplegurako bidea erraztuko dena, bereziki horretarako zailtasun gehien dituztenei, eta enpleguaren hobekuntza sustatuko duena.

66. konpromisoa. Enpleguan berdintasun eraginkorrerantz aurrera egiten jarraitzea.

1. ekimena. Elkarrizketa Sozialerako Mahaitik soldata-arrakala murrizteko estrategia bat sustatzea, hura eragiten duten arrazoi guztiak jorrazteko. Soldata baxuenak, erantzukizun-postuetan dauden emakumeen kopurua edo industrian eta teknologian dauden emakumeen kopurua, kontziliazio erantzukidea, nahi ez den kontratazio partziala murriztea eta emakumeen jarduera-tasa handitzea bultzatzea.
2. ekimena. Lanean kontziliazio-politikak sustatzea.
3. ekimena. Genero-ikuspegiari arreta berezia eskaintzea, emakumeen gizarte- eta lan-errealitatea eta errealitate interseksionala aztertuz. Profil zehatzak babesteko ekintza positiboko neurriak garatzea, hala nola, guraso bakarreko familietako buru diren emakumeak edo emakume migratzaileak, besteak beste.

67. konpromisoa. Laneko prebentzioa, segurtasuna eta osasuna.

1. ekimena. Lan-araudia zorrotz betetzen dela zaintzen jarraitzea, batez ere laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutakoa.
2. ekimena. Prebentzioaren kultura gizarte osora zabaltzea, prebentziozko alerta-sistema orokor bat ezarriz.
3. ekimena. Prebentzio-ordezkararen prestakuntza espezializatua zabaltzen eta eguneratzen laguntzea. ETEei eta mikroETEei Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategian jasotako neurriak ezartzen laguntzea, tresna gutxiago dituzten enpresei arreta berezia eskainiz lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen aurka borrokatzeko, hala nola langile autonomoei eta enpresa txikiei.

68. konpromisoa. Euskadin talentua fidelizatzea eta erakartzea bultzatzea.

1. ekimena. Ezagutza- eta berrikuntza-inguruneak sortzea, dinamika publiko eta pribatu, ikertzaile, hezkuntza- eta prestakuntza-dinamika eta produkzio-dinamika jasangarri, kalitatezko enplegua eta enplegu inklusiboa sortzen dutenak eta ekintzailetza-aukerak sortzen dituztenak, talentuari eusten eta talentua erakartzen laguntzeko. Alderdi horiek, gainera, pertsona guztien erabateko integrazioa ahalbidetuko duten tresna publikoen erabilera eskatzen dute.
2. ekimena. Basque Talent Center bultzatzea, gizarte-eragileekin lankidetzan, Euskadiko lurralde-lehiakortasunaren eremuan talentuaren garapenean aurrera egiten

jarraitu ahal izateko, euskal ekonomia osatzen duten sektore eta eragileen mesedetan.

3. ekimena. Hezkuntza indartzea, curriculumak egokituz gero eta aldakorragoa den lan-merkatuaren eskaerak asetzeko. Trebetasun digitalak, pentsamendu kritikoa eta sormena sustatzeari lehentasuna ematea. Gainera, etengabeko prestakuntza eta lanbide-prestakuntza berritzea sustatzea, gure tokiko talentua etorkizuneko erronketarako eta aukerentzako hornituta egongo dela bermatuz.
4. ekimena. Gainerako erakunde, sindikatu, enpresa-elkarte eta klusterrekin lankidetzan, enpresek eskatzen dituzten profilak, gaitasunak eta trebetasunak identifikatzea. Ekosisteman eskatzen diren profil profesional berrien eskaintza eta eskaria enpresek, startupek, ZTB eragileek eta eragile publikoek lotzea, profesionalak erakartzea barne, bereziki RIS3 eremuetan.
5. ekimena. Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren esparruan ere, talentuaren erakargarritasuna areagotzeko estrategiak ezartzea, bizi-kalitatean, berrikuntzan, jasangarritasunean eta balioetan ditugun indarguneak nabarmenduz, bai eta enpresei laguntzeko neurriak ere, talentu globala erakartzeko eta fidelizatzekeo estrategietan, enpresa-ingurune dinamikoa eta erakargarria sustatuz.
6. ekimena. Atzerriko tituluen homologazioa sinplifikatzea, behar dugun talentua erakarri ahal izateko.
7. ekimena. Graduondoko eta doktoregoko ikasketetan nazioarteko ikasleak erakartzea bultzatzea.
8. ekimena. Foru Aldundiekin eta Udalekin lankidetzan, nazioarteko talentua gure erkidegoan integratzeko beharrezkoak diren laguntza-zerbitzuak aktibatzea, etxebizitza eta hezkuntza-zerbitzuak eskuratzea barne. Gizarteratze- eta kultura-programak garatzea, nazioarteko talentuaren eta haren familien integrazioa errazteko.

69. konpromisoa. Talentu berritzailea eta teknologikoa sortzea, fidelizatzea eta erakartzea.

1. ekimena. Ikertzaileak sortzea eta fidelizatzea sustatzea, bai eta Euskadira ikertzaile-profilak eta beharrezko funtsak erakartzea ere, profesionalak abangoardiako ikerketa batean sartzeko aukera areagotzeko. Talentu ikertzaile eta zientifikoaren prestakuntza, gaikuntza eta garapena indartzea, gaitasun digital eta teknologikoen hobekuntza eta eguneratzea sustatzea, baita STEAM hezkuntza ere.
2. ekimena. Ikertzaileen prestakuntza eta nazioarteko mugikortasuna sustatzea, bai eta karrera profesional ikertzailea hobetzea ere.
3. ekimena. Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren arloan genero-berdintasuna sustatzea, eta genero-ikuspegia ezartzea erronka globalei lotutako arloetan, bai ikerketan, bai konponbide berritzaileen diseinuan. Aukera-berdintasuna, eskubideak eta erantzukizunak sustatzea.

70. konpromisoa. Ekonomia soziala babestea.

1. ekimena. 2021-2024 Gizarte Ekonomiako Sail arteko Plan Estrategikoaren ebaluazio orokorra garatzea eta, sektorearen eskutik, 2025-2028 Plana egitea.
2. ekimena. Gizarte-ekonomiako enpresetan ekintzailtza bultzatzea eta langileen parte-hartzea erraztea, erosteko mekanismoak hobetuz, hala nola LANPAR funtsa. Baita produkzio-unitateena ere, enpresak birmoldatzeko prozesuetan edo belaunaldi-erreibuko arazoak dituztenetan.
3. ekimena. Kooperatibetako organoetan bazkideen presentzia orekatua sustatzea, bai eta kooperatibetan berdintasun-planak ezartzea ere.

71. konpromisoa. Lan-ikuskaritza.

1. ekimena. Ikuskaritzako baliabide materialak eta giza baliabideak indartzen jarraitzea.
2. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Ikuskaritzaren XIII. legegintzaldirako Plan berriari ekitea, ikuskaritzaren, modernizazioaren, gardentasunaren eta enpresen, sindikatuen eta herritarren irisgarritasunaren erronka nagusiei aurre egiteko, kalitatezko enplegurantz aurrera egiteko berme-tresna gisa.

12. Industria

Euskadik ekonomia modernoa, dinamikoa, garatua eta iraunkorra bultzatzeko beharrezko baldintzak ezartzen ditu, kalitatezko enplegu baten bidez aberastasuna sortu eta banatzeko, zerbitzu publiko sendoei eusteko eta gizarte-politikak garatzeko.

Eredu horren gobernantza arlo publikoaren eta pribatuaren eta erakundeen arteko lankidetzan estuan oinarritu da, eta horren aldeko apustua egiten jarraituko dugu. Era berean, ekintzarako tresnak eta tresnak modernizatzen eta hobetzen jarraituko dugu.

Europak jasagarritasunerako norabide argia hartu du. Bat egiten dugu horrekin, baita arlo ekonomikoan ere. Arlo horretan iraunkortasuna enpresentzako bereizte- eta lehiakortasun-elementu bihurtu du.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzak lehiakortasun iraunkorrerantz bideratuko du Euskadiren berrindustrializazioa, funtsezko 3 trantsizioen inguruan: energetikoa, soziala eta teknologiko-digitala, eta hiru trantsizio handiek eskaintzen dizkiguten aukerak baliatuko ditu, industria berritzeko eta eraldatzeko helburuarekin.

Eusko Jaurlaritzak laguntza emango die baliabideak erabiltzean eta ingurumen-aztarna sortzean jarduera iraunkorrerago baten aldeko apustua egiten duten enpresei eta proiektuei. Era berean, gizarte-konpromisoa bultzatuko du hainbat arlotan, hala nola kalitatezko enplegua sortzean, bidezko ordainsarrietan eta giza baliabideak eta enpresa-ondorengotza zaindu eta garatzean, bai eta ingurunearekiko elkarreraginean ere, Industrian eta Zerbitzu Aurreratuetan BPGren %40 gaitzera bideratuta.

72. konpromisoa. Euskadin errotutako 5.0 industria eta 2028ko Industria Plana.

1. ekimena. 2028rako Industria Garatzeko Plan espezifiko bat abian jartzea, 4.0 eta 5.0 industriak ETEetan txertatzen laguntzeko. Plan horrek teknologiaren, berrikuntzaren, azpiegituren, iraunkortasunaren, ekintzaitzaren, nazioartekotzearen, finantzaketaren eta industriaren ikuspegi sozial berria duten pertsonen kudeaketaren bektoreak jasoko ditu.
2. ekimena. Pertsonekin konprometitutako enpresa-kultura bultzatzea. Konfiantzan oinarritutako kultura, helburu inspiratzailea duena, baloreena, eta erakunde bateko pertsona guztiak fidelizatzen dituen, batez ere talentu gaztea, adina eta posizioa edozein direla ere, dibertsitate funtzionala duten pertsonen inklusioa sustatuz.
3. ekimena. Izapide burokratikoak sinplifikatzea eta gure enpresen erregulazio-prozesuak arintzea, enpresetan karga burokratikoak arrazionalizatzeko plan baten bidez.
4. ekimena. Elkarlan eta laguntzako ekosistemaren (klusterrak, ganberak, elkartek...) eraginkortasuna indartzea, industria-sare eta sare ekonomiko osoa, batez ere ETEak, deskarbonizazioaren, digitalizazioaren eta trantsizio sozialaren ondoriozko erronka handien eta egiturazko aldaketen aurrean elkarren artean lotzeko, inolako arrakala sortzea saihestuz eta lehiakortasunaren hobekuntzan sakonduz.
5. ekimena. Basque Automotive Manufacturing Center (BAM) Jundizen Automobilgintzan Fabrikazio Aurreratuko Teknologiak Garatzeko Euskal Zentroaren proiektua abian

jartzea. Zentro horrek produkzio-egitura eraldatzen lagunduko du, automobilgintza-sektorearen balio-katearen lehiakortasuna eta iraunkortasuna bultzatuz, Mercedes-Benz, Gestamp eta MB Sistemas de Corporación Mondragón enpresekin batera.

6. ekimena. Enpresei laguntzea balio-kateen kanpo-mendekotasuna murrizten eta Euskadin hornitzaile-kateak garatzen.
7. ekimena. Aberastasuna sortzeko eta ekitatez banatzera begira aldi berean garatuko duten politikak diseinatzea. Industria berriak iraunkorra izan behar du, ez bakarrik ingurumenari dagokionez, baita gizarteari dagokionez ere.
8. ekimena. Ekosistema lehiakor bat garatzea lehiakortasuna eta ongizatea sortzen duten enpresa-proiektuak erakartzeko eta tokiko hornidura-kateen iraupena bermatzeko, ezagutza duten hornitzaile txikien segida babestuz.

73. Konpromisoa. Lurzoru industrial berreskuratzea.

1. ekimena. Industria Azpiegiturak Garatzeko Inbertsio Funts bat sortzea, SPRiri atxikia, partaidetza publikotik abiatuta kapital pribatua erakarriko duena industria-azpiegitura berriak garatzeko.
2. ekimena. Interes industrial eta ekonomikoa izanik erabiltzen ez diren aktiboak (lurzorua eta azpiegitura industrial) berreskuratzeke eta horiei balioa emateko estrategia indartzea, kokaleku berrietarako lurzoruaren artifizializazioa minimizatuz.
3. ekimena. Erabiltzen ez diren aktiboak leheneratzeko eta berreskuratzeke jarduketetatik datozen lurzati industrialen eta eraikinen 1.250.000 m² industria berriaren eskura jartzea.
4. ekimena. Hirigintza-garapen berrietatik datozen industria-lurzatiak eta eraikinen 1.600.000 m² gaitu eta merkatuaren eskura jartzea.
5. ekimena. Indarrean dagoen arau-esparruak eskaintzen dituen aukeren barruan, hirigintza-tramitazioa arintzea, gizarte osoan duten eragin positiboagatik interes orokorreko jotako proiektuak garatu eta ezartzeko, betiere kontsulta publikorako bermeak eta, hala badagokio, epeak mantenduz eta garapen-epeak nabarmen murriztuz.
6. ekimena. Industria-sarearen eraldaketa, espezializazioa eta hazkundera indartzea, eta industrian deskarbonizazio-prozesua modu eraginkor eta ordenatuan bultzatzea.

74. Konpromisoa. Inbertsioak egitea kalitatezko enplegua bertan finkatzeko eta sortzeko

1. ekimena. Finkatuz funtsari bultzada bat ematea, inbertsio estrategikoak egiteko, herri honetan giltzarritzat jotzen diren enpresen aurrerapena, hazkundera, sustraitzea eta enpresen sare ekonomiko eta industrialean eragitea bermatzeko. Bultzada hori Funtsaren kapitala pixkanaka handitzean gauzatuko da. Halaber, araudia sinplifikatuko da, inbertsio- eta desinbertsio-erabakien arintasuna hobetzeko.

2. ekimena. SPRI taldeko Euskadiko Arrisku Kapitaleko Sozietatearen eta hark kudeatutako funtsen jarduera indartzea eta zabaltzea, Finkatuz Funtsoaren jarduera eta Euskadiko ekonomia- eta industria-sareari laguntzea osatuz.
3. ekimena. "BasqueFik" Finantza eta Inbertsio Klusterraren jarduera babestea eta indartzea, ekonomia- eta industria-ehunaren errotzea eta hazkundera bultzatzeko ikuspegi integraleko finantza-tresnak eta inbertitzaileak garatzeko, hiru trantsizio handien ondoriozko erronken aurrean lagunduz.
4. ekimena. Euskadiren finantza-gaitasunak lerrotzea eta ardatzea, euskal funts handi bat osatzen duten hainbat tresna publiko-pribatuen bidez, bai eta finantza-inbertsio euskal ekosistema osoaren mobilizazioa ere, enpresak hazteko eta errotzeko eragiketa industrialei eta teknologikoei ekiteko. Inbertsio-ahalegin horrek tamaina ertaineko euskal multinazionalen errotzea ziurtatzera bideratutako ildo bat izango du.
5. ekimena. Euskal BGAEen erregulazioa aldatzea, kapitalaren ehuneko bat euskal industria-, enpresa- eta teknologia-ehuna errotzea eta haztea ahalbidetzen duten proiektuetan inbertitua izan dadin, eta euskal finantza-eragileen artean, hala nola finantza-erakundeen eta banku-fundazioen artean, sozialki arduratsua den inbertsio-politikak sustatzea.
6. ekimena. Hazkunde handiko proiektuen eta enpresa bultzatzaileen finantzaketa erraztea, lurraldean ekimenak errotzea sustatzeko, haien hazkundera eta dibertsifikazioa ahalbidetzeko, eta hornitzaileak lurraldean garatzea eta gaitzea ahalbidetzeko.
7. ekimena. Trantsizio global handi batekin edo batzuekin konpromisoa hartzen duten enpresak bultzatzea, Foru Aldundiekin batera lan-baldintza zuzen eta erakargarriak sustatzen dituzten zerga-politikak sustatuz.
8. ekimena. Lehenetsutako jarduerak eremuetarako eskualde-plan estrategikoak garatzen jarraitzea, Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterri, Oarsoaldea, Aiaraldea, Debabarrena eta Busturialdea-Urdaibai eskualdeetako ekonomia eta gizartea suspertzen jarraitzeko.
9. ekimena. Proiektu bideragarriari bizirauteko eta sendotzeko aukera emango dien finantzaketa lortzen laguntzea, zailtasunak dituzten enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzak indartuz (Bideratu Berria programa), bai eta kaltetutako langileak birkokatze eta birziklatzeko ekintzak ezartzen jarraitzea ere (Aukeraberri programa).
10. ekimena. Finantzen Euskal Institutuaren jarduerak indartzea, euskal enpresa bultzatzaileak errotzen laguntzeko tresna gisa, eta Dirulaguntzak arautzen dituen Lege berriaren aurreikuspenak garatzea, enpresen deslokalizazioak saihesteko.

75. konpromisoa. Euskal industriaren trantsizio energetikoa

1. ekimena. Sare elektrikoaren indartzea bultzatzea, elektrifikazioan, sorkuntza berriztagarriaren garapenean, industria-proiektu berrien ezarpenean eta gure ekonomiaren deskarbonizazioan aurrera egiteko gaitasun nahikoa emanez.

2. ekimena. Gure industria-ehunaren autohornikuntza energetikoa bultzatzea, energia berriztagarrien bidez. Industrialdeetan energia-komunitateetako edo autokontsumoko proiektuak babestea, proiektu horiei lotutako izapideak sinplifikatuz eta finantzaketa-lerroak ere haien eskura jarritz.
3. ekimena. Energia-azpiegitura berrien (hidrogeno berdea, esaterako) ahalmena indartzea.
4. ekimena. Net-Zero Basque Industrial Super Cluster garatzea, bai eta haren jarraipen-plataforma ere, euskal industriako energia-kontsumoaren deskarbonizazioa bizkortzeko eta indartzeko. Horrela, emisio garbiak murriztuko dituzten eta garapen teknologikoetarako aukerak sortuko dituzten irtenbideak bultzatuko dira, eta, horrekin batera, kalitatezko enplegua sortuko duen industria berria.
5. ekimena. Erregai sintetiko deskarbonizatuen proiektuen garapena bultzatzea, hala nola abiazioan erabiltzeko Syntetic Aviation Fuel, hidrogeno berdetik eta CO₂tik abiatuta, elektrifikazio zaileko sektoreen deskarbonizaziora bideratutako proiektuak lehenetsiz.
6. ekimena. Enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna handitzeko beharrezkoak diren ekoizpen-instalazioak berritzeko eta modernizatzeko inbertsioari laguntzea, fokua sortutako prozesuetan, produktuetan edo zerbitzuetan jarritz.
7. ekimena. Foru Aldundiekin lankidetzan, pizgarri ekonomikoen sistema bat garatzea industria-sektoreak, merkataritzak eta zerbitzuek energia-eraginkortasunean inbertsioa egin dezaten. Sistema horrek zuzeneko laguntzak, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda zabaldu eta hobetuko duten pizgarri fiskalak eta euskal enpresek Europako taxonomia berderako duten sarbidea bultzatuko du, digitalizazioan, eraginkortasunean, deskarbonizazioan eta langileekiko elkarreaginean sakonduz.
8. ekimena. Dibertsifikazio produktiboa dinamizatzea, trantsizio teknologiko-digitaletik, energetiko-klimatikotik eta soziodemografikotik sortutako aukera berriak sortuz, silver economy delakoa barne, bai eta produktu eta prozesuen garapen teknologikoa eta berrikuntza eta bioteknologiaren, mikroaren eta nanoteknologiaren inguruko ezagutza aurreratuko industria intentsibo berrien agerpena ere.
9. ekimena. Euskadin jarduten duten finantza-erakundeek, batez ere euskal kapitala dutenek, praktikak egokitu ditzaten sustatzea, ekonomiaren deskarbonizazioa bultzatzeko.

76.konpromisoa. Ekintzailtza babestea.

1. ekimena. 2024-2029 aldirako Ekintzailtza Erakunde arteko Plana abiaraztea, ekintzailtza herrialdearen lehentasuntzat hartuta. Laugarren plan honek sakonduko du ekintzailtza-prozesuaren sinplifikazio administratibo batean. Herri erakargarri gisa kokatzeko garatu behar diren hiru trantsizio handiak aztertuko ditu aukera gisa, eta erakunde arteko eta sail arteko ezarpenari eutsiko dio, eragile publiko eta pribatuen lankidetzara irekita, heldze-etapa guztietan proiektu ekintzaileei laguntzeko, denen artean Euskadiren eraldaketa ekonomiko eta sozialerako ahalegina eginez.

2. ekimena. "Up!" marka indartzea Euskadi ekintzailtza-ekosistema nazioartekotzen jarraitzeko tresna gisa, bai eta enpresei eta ekintzaileei ematen zaien laguntzan sakontzeko ere.
3. ekimena. Titulartasun publikoko BICak (Business Innovation Centers) leihatila bakar gisa eta ekintzailtzaeren euskal ekosistemara eta haren laguntza-zerbitzuetara sartzeko ate gisa posizionatuz indartzea.
4. ekimena. Sortzeko, aurrera egiteko, hazteko eta finkatzeko ahalmena duten proiektuei finantzaketa eta inbertsioa eskuratzeko aukera handiagoak eskaintzea. Tresna propioen arteko koordinazioa hobetzea, baita finantzaketa pribatuarekin ere.
5. ekimena. Basque Tek Ventures sustatzea oinarri teknologikoko enpresa berriak sortzen laguntzeko eta hauspotzeko tresna gisa, Euskadi ekintzailtza teknologiko-industrialeko gune gisa kokatzeko eta industria adimendunean espezializazioa sustatzeko.
6. ekimena. Intraekintzailtzaeren esparruan ekimen berri bat abiaraztea, ekimen eta proiektu berriak azalertzeko, babesteko eta laguntzeko.
7. ekimena. Belaunaldien arteko erreleboa kudeatzen eta ezagutza eskualdatzen laguntzea enpresen eremuan.
8. ekimena. Startupak eskalatzeko BIND berrikuntza irekiko ekimenaren esparruan eskainitako zerbitzuak zabaltzea.

77. konpromisoa. Azpiegiturak industriaren eta enpresen garapenerako

1. ekimena. Gasteizko egungo Campusa handitzea eta, hirian bertan, Gasteizen, Parkerako sarbide berri bat irekitzea.
2. ekimena. Bilboko Campusa eraikitzea, Zorrotzaurreko hegoaldeko zein iparraldeko puntan, enpresak, teknologia- eta ikerketa-zentroak eta prestakuntza-zentroak bertan ezartzeko.
3. ekimena. Abantoko Campusa garatzea, Hidrogenoaren Living Lab-a eta Hidrogenoaren Mugikortasun lursaila ekonomiaren deskarbonizaziorako aitzindaritzat hartuta.
4. ekimena. Ortuellako Campusa hedatzea.
5. ekimena. Donostiako Campusean, Illunben, lehenengo eraikina eraikitzea.
6. ekimena. Hernaniko Campusean eraikin berria amaitzea.
7. ekimena. Hondarribiko Campusa sortzeko lehen urratsak.
8. ekimena. Irungo Bidea (hiri-barrutia) proiektuaren industria-garapenari laguntzea.
9. ekimena. Eibarko Erisono poligonoan eraikitzen ari diren erabilera tertziarioko eraikin berria garatu eta merkaturatzea.
10. ekimena. Zumarragako 1. eta 2. Altzairutegi- eremuko industria-berroneratzea.

78. konpromisoa. Enpresen nazioartekotzea

1. ekimena. Enpresaren nazioartekotzea sustatzen jarraituko dugu, iraunkortasunez eta modu inklusiboan, SPRIren kanpo-sarea indartuz, nazioartekotzen saiatzen diren enpresei laguntzeko, esportazioak, kanpoko ezarpenak eta tokiko banatzaileekiko lankidetzak-estrategiak bultzatuz.

13. Berrikuntza

Berrikuntzaren aldeko apustua Euskadiren nortasun-ikur bat da. Herrialde baten garapen ekonomikoaren funtsezko adierazlea da, eta bere produktibitatea eta lehiakortasuna baldintzatzen ditu, baita hazkunde iraunkorra lortzeko faktore erabakigarria ere.

Euskadi goi-mailako berrikuntzako eskualdeen taldean dago Europan. Hazten jarraitzea eta lurraldea berrikuntzan Europako eskualde liderra izatea da helburua (RIS Regional Innovation Scoreboard adierazlea).

Berrikuntzaren erronkari erantzuteko, beharrezkoa da ahalegin publiko-pribatua egitea eta epe luzerako estrategia bat finkatzea, Euskadi Europako berrikuntza-polo bihurtzeko, hazkunde ekonomikoari eta ongizateari lagunduz, bai eta kalitatezko enpleguak sortzen ere.

79. konpromisoa. I+G+b esparruko inbertsioak handitzen jarraitzea.

1. ekimena. Eusko Jaurlaritzaren I+G+bko politiketarako aurrekontu-inbertsioa gutxienez %6 handitzea legegintzaldian zehar.

80. konpromisoa. Enpresa-berrikuntzari laguntzea, batez ere enpresa txiki eta ertainetan.

1. ekimena. I+G eta berrikuntzako inbertsio-bolumena sustatzea eta berrikuntzan enpresa berriak sartzeko, ETEetan ahalegin berezia eginez.
2. ekimena. Enpresei berrikuntzako lehen urratsetan laguntzea, kudeaketa eta antolaketa eraldatzeko eta hobetzeko proiektuekin, laguntza-ereduak eta -sistemak emanez.
3. ekimena. Euskal enpresa-ehunari laguntzea merkatuan bereizketa eta lehia-abantailak lor ditzan, eragile gisa funtzionatuko duten berrikuntzaren eta teknologiaren bidez.
4. ekimena. Enpresetan I+G+b esparruko jarduerak garatzeko gaitasunak txertatzen laguntzea, giza baliabide espezializatuei zein materialei dagokienez.
5. ekimena. Enpresen I+G proiektuak eta horrelako jardueretan enpresen inbertsioa sustatzen duten mekanismoak babestea, teknologiaren transferentzia bizkortuz.
6. ekimena. Enpresa-berrikuntzako proiektuak, industrializazioa, eskalatzeko lanak, prototipoak, metodologiak eta kontzeptu-probak babestea, bereziki ETEei dagokienez, funtsezko hiru alderdietan: produktuak, negozio-prozesuak eta kudeaketa-ereduak.
7. ekimena. Ikerketatik, garapenetik eta berrikuntzatik eratorritako emaitzei balioa ematea, batez ere ETEei dagokienez, patenteen, diseinu industrialen edo marken bidez babestuz.
8. ekimena. Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren esparruan, Unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren lankidetzaren indartzea I+G+b proiektuen garapenean, ETEen berrikuntzari laguntza ematen dioten eragile gisa.

81. konpromisoa. Berrikuntzarako eskaintza teknologikoa indartzea.

1. ekimena. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareak (ZTBES) enpresa-ehunaren euskarri gisa betetzen duen zeregina optimizatzea, ezagutza eta gaitasunak sortuta, Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko espezializazio-eremuetara bideratuta, bikaintasuna emaitzetan, inpaktua eta transferentzia eraginkorra euskal enpresa-ehunari, bai eta herri-administrazioei eta euskal gizarte-erakundeei ere, egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko.
2. ekimena. BRTA Aliantza (Basque Research and Technology Alliance) indartzen laguntzea, bai eta European eta nazioartean duen posizionamendua ere, herrialdearen erronkei modu espezializatu eta eraginkorrean heltzeko tresna gisa. Hori guztia lankidetzan eta nazioarteko parte-hartzearekin, ezagutza sortzeko eta transferitzeko.
3. ekimena. Euskadiren gaitasun zientifikoak, teknologikoak eta ikerketa-azpiegiturak indartuko ditugu, trantsizio hirukoitzari lotutako erronkei aurre egiteko eta euskal industria-sareari bere ezagutza-oinarria sendotzen laguntzeko.
4. ekimena. Zentro teknologikoen eta lankidetzako ikerketa-zentroen bideragarritasuna egituraz babestea. Halaber, azpiegitura eta ekipamendu aurreratuak eskuratzen laguntzea, zentroek beren jarduera ezagutzaren muga garatu ahal izan dezaten.
5. ekimena. Oinarrizko Ezagutza Sortzeko fasean ZTBESko eragileen arteko lankidetzan I+G+b proiektuak egiten laguntzea, euskal enpresetara transferitzeko eta emaitzak gerora garatzeko.

82. konpromisoa. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren eta Erosketa Publiko Berritzailearen nazioartekotzea indartzea.

1. ekimena. I+G sistemako eragile guztien nazioartekotzea sustatzea: unibertsitateak, CCTTak, CICak, BERCaK...
2. ekimena. Erosketa Publiko Berritzailea sustatzea, horrek funtsezko zeregina izan dezan tokiko negozioen sustapenean eta garapen teknologikoan, batez ere ingurumenaren eta bioosasunaren sektoreetan.

83. konpromisoa. Erakundeen arteko lankidetzaren berrikuntzan inbertsioak sustatzeko.

1. ekimena. Foru aldundiekin lankidetzan aritzea, I+G esparruko inbertsioa sustatzen duten zerga-politikak sustatzen jarraitzeko.

14. Digitalizazioa eta Adimen Artifiziala

Digitalizazioak aurrerapen nabarmena izan du Euskadin, eta gure gizartea eta ekonomia modernizatzen lagundu du. Digitalizazioak zerbitzu publiko eta pribatuen eraginkortasuna hobetu du, berrikuntza bultzatu du eta gure lehiakortasuna indartu du. Hala ere, erronka garrantzitsuei ere egin behar diegu aurre, hala nola arrakala digitalari, batez ere landa-eremuetan, eta zibersegurtasuna bermatzeko beharrari.

Digitalizazioaren aldeko gure apustua bizkortzea funtsezkoa da teknologiak eskaintzen duen aukera handi hori baliatzeko. Izan ere, digitalizazioa herri mailako funtsezko estrategia bihurtu da, eta Euskadi azpiegitura eta zerbitzu digitalen hub bihurtu da. Lehiakortasun ekonomikorako eta garapen sozialerako aukera bat.

Gure apustua Euskadi lurralde ireki eta adimendun gisa garatzea da, datuen kudeaketa adimentsua eta etikoa bermatuz, adimen artifizialak eskaintzen dizkigun aukerak aprobetxatuz, herritarren eta administrazioaren arteko harremana hobetuz, lankidetzeta eta iraunkortasuna sustatuz.

84. konpromisoa. Euskadi digitalagoa izan dadila sustatzea.

1. ekimena. Euskadi 2030 Eraldaketa Digitalerako Estrategia berria egitea eta ezartzea.
2. ekimena. Adimen Artifizialeko soluzioen garapena eta enpresek soluzio horiek ezartzea eta erabiltzea erraztea, algoritmo berriak entrenatzea eta/edo informazioa konfiantzazko ingurune batean ustiatzea ahalbidetuko duten azpiegitura seguruak eta datu-biltegiak sortuz eta enpresen eskura jarritz.
3. ekimena. Datuen kudeaketa adimentsua eta etikoa sustatzea, datuak sendotasunez eta gardentasunez kudeatzeko eta gobernatzeko urratsak emanez, eta bildutako datuak behar bezala egituratuta, eguneratuta, testuinguruan kokatuta eta estandarizatuta daudela ziurtatuz.
4. ekimena. Arrakala digitala saihestuko duen digitalizazio inklusiboa bultzatzea eta gaitasun digitalak sustatzea, ekonomia globalizatu batean Euskadiren garapen ekonomikorako eta lehiakortasunerako ezinbesteko elementu gisa.
5. ekimena. e-Administrazioan sakontzen jarraitzea. Administrazio-prozesu berriak digitalizatzea, izapide berri horiek modu erraz eta seguruan egin daitezkeela ziurtatuz, herritarren eta administrazioaren arteko harremana zailtzen duten oztopoak kenduz.
6. ekimena. Baliabide fisikorik ez duten herritarrek izapide administratiboak modu autonomoan egin ahal izateko puntu digitalak eskaintzea. Horren osagarri gisa, aurrez aurreko eta telefono bidezko arreta nahikoa eta kalitatezkoa ematea.
7. ekimena. Euskadi nomada digitalen lehentasunezko helmuga gisa sustatzea.

8. ekimena. Lankidetzeta eta iraunkortasuna sustatzea. Erakundeen eta ezagutza-sareen arteko lankidetzeta sustatzea eta aurrerapen iraunkorraren alde egitea, ezagutza, adimena, datuak eta eraldaketa digitala baliatuz, pertsonen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko, iraunkortasunari uko egin gabe.

85. konpromisoa. Digitalizazioaren aurrerapena herritarren eta enpresen zerbitzura jartzea.

1. ekimena. ETEei digitalizazio-prozesuak bizkortzen laguntzea, eskuragarri dauden programa publiko guztiei ahalik eta etekin handiena ateratzen lagunduko dien orientazio espezializatua emanez.

2. ekimena. Basque Microelectronics Hub eremuan euskal enpresen eraldaketa digitalerako prozesuari laguntzeko aukera emango duten proiektu berezi berriak sortzea eta erakartzea, bai eta konputazio kuantikoaren erabilera bultzatzea ere, Basque Quantumekin koordinatuta.

3. ekimena. Komunikazio-azpiegiturak garatzen laguntzea, 5G estaldura zabala eta enpresa-erabilerrako zerbitzuak lortze aldera, enpresek teknologia horren inguruko irtenbide aurreratuak inplementatu ahal izan ditzaten.

4. ekimena. Datuaren ekonomia sustatzea, horren inguruan enpresa eta negozio-eredu berriak garatzen lagunduz, eta administrazio publikoek kudeatutako datu ez-sentikorrek gizartearen eta enpresen esku jarritz.

5. ekimena. Datuaren gobernu-eredu bat definitzea eta ezartzea, Euskadiko erakunde guztiak bilduko dituen eta arlo horretako ahaleginen koordinazioa hobetuko duena.

6. ekimena. ROBOTEKIN (Robotika eta Automatizazio Polo) bultzatzea, sektoreko balio-kate osoarekin lankidetzan.

7. ekimena. Euskadiko IoT ekimenak babestea, euskal industria-sareari erantzunak eman diezazkieten.

8. ekimena. Ekintzailtzeta digitala sustatzea, digitalizaziotik eratorritako irtenbide digital eta negozio-eredu berriak garatuko dituzten startup eta enpresa berritzaileen sorrera babestuz.

9. ekimena. Euskal enpresetan zibersegurtasuna indartzeko programa espezifikoa ezartzea, ETEen eskura dauden baliabideak eskainiz.

10. ekimena. Enpresen produktibitatea hobetzeko "Key Enabling Technologies" (Funtsezko Teknologia Bideratzaileak) tresnak ezartzeko eta sustatzeko hainbat urtetarako laguntza-programak sortzea.

86. konpromisoa. Jarduera digital etiko eta eleaniztuna ziurtatzea.

1. ekimena. Lege-esparrua egokitzea ekonomia digitala babesteko, besteak beste, datuen babesa, segurtasun zibernetikoa, merkataritza elektronikoa eta etika adimen artifizialean.
2. ekimena. Soluzio digitalen inplementazioan bikaintasuna aitortzen eta sustatzen duten ziurtapen-programak ezartzea, bezeroek eta bazkide komertzialek euskal enpresetan konfiantza handiagoa izan dezaten.
3. ekimena. Adimen Artifiziala etikoki inplementatzeko politika eta erregulazio espezifikoak ezartzea. Ingurumen-eraginaren erabileraren gardentasuna, kontu-ematea eta ekitatea sustatzen duten arau-esparruak garatzea.
4. ekimena. AAren inguruko kontzientziazioa areagotzea, herritarrek erabaki logikoenak eta zuzenenak har ditzaten, AA gure bizitzan presentzia handiagoa izango duen testuinguru batean.
5. ekimena. Euskararen presentzia digitala sustatzea eta babestea, Euskararen Corpus Digitala modu aktibo eta metodikoan sortuz, hizkuntza-baliabide digitalen Europako esparrura konektatuta. Euskara ingurune digitaletan beste hizkuntza ofizial batzuen baldintza berdinetan egon dadin laguntzea.
6. ekimena. Algoritmoak gardendu, emaitzak argitaratu edo ebaluatuko dituzten sistemak sortuz, eta, horrela, joera artifizialak, arrazistak, matxistak, klasistak edo bestelakoak dituzten adimen artifizialak ez izateko.

87. konpromisoa. Adimen Artifiziala (AA) baliatzea gero eta ongizate maila handiagoa lortzeko bidean aurrera egiteko.

1. ekimena. Euskadiko Adimen Artifizialeko Ekintza Plana egitea, AAren boterea aprobetxatzeko eta euskaldunentzat emaitza positiboak eskaintzeko ekimen zehatzak jasoko dituen.
2. ekimena. Hainbat kolektibori zuzendutako AAren arloko gaikuntza bultzatzea, bai ikertzaileei, bai goi-mailako ezagutzak dituzten teknikariei, bikaintasunaren, teknikaren, akademikoaren eta intelektualaren helburua lortzen laguntzeko, bai herritar guztiei laguntzeko. Gizartea eguneroko bizitzan integratzen joango diren irtenbide berriak ulertzeko eta maneiatzeko gai izan dadin laguntzea.
3. ekimena. Datuen gordailu bat sortzea babestea, Euskadi eta Europako balioetan eta arauetan oinarritutako AA fidagarria gauzatu ahal izateko.
4. ekimena. AAren inguruko kontzientziazioa areagotzea, herritarrek erabaki logikoenak eta zuzenenak har ditzaten, AA gure bizitzan presentzia handiagoa izango duen testuinguru batean.
5. ekimena. Eragile publiko eta pribatuekin lan egitea, Euskadi industriako erreferentzia-nodo gisa kokatzeko.

6. ekimena. Adimen Artifizialeko Euskal Zentroarekin (BAIC) lankidetzan aritzea, AAren ezarpena eta erabilera bizkortzeko, modu etiko eta seguruan, industriaren sektore guztietan.
7. ekimena. Datu-espazioen proiektu pilotuak bultzatzea, non industria-enpresek datuak modu seguruan partekatu eta ustiatu ahal izango dituzten, AAren bidez beren negozioen produktibitatea eta eraginkortasuna optimizatzeko.
8. ekimena. Europar Batasuneko Adimen Artifizialaren Legearen sandbox delakoan parte hartzea eta Euskadin berezko sandbox bat sortzea, adimen artifizialeko erabiltzaileen eta hornitzaileen arteko lankidetzak ahalbidetuko duena.

15. Azpiegiturak

Garraio-azpiegiturak oinarritzko beharra dira herritarren mugikortasunerako, eta politika publikoen konpromisoa da pertsonen garraio publiko irisgarria eta integrala ematea, beren joan-etorriak bermatzeko.

Gure bizi-kalitatea, lurralde-egituraketa eta -kohesioa eta garapen sozioekonomiko inklusiboa eta iraunkorra hobetzen laguntzen dute. Gainera, garraioak funtsezko zeregina du ekonomia deskarbonizatu berria eta gero eta mugikortasun iraunkorrako baterako trantsizioan.

88. konpromisoa. Euskadi Europako korridore atlantikoaren funtsezko lotura.

1. ekimena. "European Transport Networks, TEN-T" salgaien korridore atlantikoa bultzatzea, "Lille-Vitoria-Gasteiz trenbide-autobidea" garatuz, Jundizko plataforma multimodala eraikiz eta Lezoko plataforma logistikoa garatuz, Pasaiaiko portuaren trenbide-eraginkortasuna indartuz.
2. ekimena. Astigarraga-Oiartzun-Lezo abiadura handiko tartearen garapena abian jartzea, "Y" - euskal trenbidearen eta Europako korridore atlantikoaren funtsezko zati den aldetik, indarrean dagoen gomendioan aurreikusten den plataformaren proiektuaren eta obren ildotik.

89. konpromisoa. Bultzada trenbide bidezko garraioan egin beharreko inbertsioei

1. ekimena. Lehentasuna ematea Euskadiko Abiadura Handiko Trenbide Sarea amaitzeari, Europako Sarearekin lotzeari, Nafarroarekin lotzeari eta euskal hiriburuetakoko geltoki berriak eraikitzeari.
2. ekimena. Bilboko eta Gasteizko sarbideen eta geltokien garapena bultzatzea. Geltoki berriak eraikitze behar diren obrak hasiz eta abiadura handiaren hiri-integrazioa garatuz. Bilborako sarbideak eta Basauriko behin-behineko geltokia, eta Gasteizko lurperatzea eta Arkautiko lotunea.
3. ekimena. Ortuella eta Bilbo artean hegoaldeko trenbide-saihesbidea eraikitzea, Bilboko portuarekin eta Abiadura Handiko Sarearekin lotzea (I. fasea) eta Arrigorriagarainoko proiektua idaztea (II. fasea).
4. ekimena. Renferen aldiriko zerbitzuak hobetzea gaur egun dauden bost lineetan, batez ere jende gehien dabilen tartean, hala nola puntako orduetan edo ekitaldi berezietan, baita asteburuetan ere.
5. ekimena. Renferen aldirietako material mugikorra hobetzea, trenbideetako transferentziaren akordioa abian jarri ondoren.
6. ekimena. Araban Araia eta Gasteiz artean, Gasteiz eta Manzanos Erribera Beitia artean eta Bizkaian Bilbo eta Karrantza artean aldiriko zerbitzu berriak martxan jartzeko aukera eta bideragarritasun ekonomikoa aztertzea.
7. ekimena. Karrantza-Aranguren anezka bat bultzatzea Karrantza ibarreko herritarrentzat.

8. ekimena. Vitoria-Gasteizko tranbia Zabalganara zabaltzea. Informazio-azterlana amaitu eta eraikuntza-proiektua idatziko dugu, eta tranbia Zabalganara zabaltzeko lanak hasiko ditugu. Betoñun kotxetegi berriak eraikitzea.
9. ekimena. Tranbia-zerbitzua Buesa Arena pabilioiko kirol-eremuraino eramateko aukerak aztertzea.
10. ekimena. Bilboko tranbia Zorrotzaurrera zabaltzea.
11. ekimena. Atxuri-Bolueta tranbia-zatian geltoki eta igogailu berri bat sartzeko aukerak aztertzea, Santutxuko beheko aldeari zerbitzua emateko.
12. ekimena. Tren-geltoki berriak: topoa Irungo geltoki intermodal berrian integratzea (Irungo trenbidearen operazioa bultzatzea), Astigarragako aldirietako geltoki berria, Anoetako geltoki berria (Donostia) eta Usurbilgo geltoki berria. Zumaia, Gernika, Bermeo eta Lutxanako geltokien birmoldaketak osatzea.
13. ekimena. Gernika-Bermeoko Euskotrenen linearen azpiegitura eta maiztasuna hobetzea. Zugastietan, Autzaganeko tunelaren irteeran, trenbidea bikoiztea, trenak gurutzatu ahal izateko eta, horrela, maiztasunak bikoiztu ahal izateko, Amorebieta eta Bermeo artean 30 minututik 15 minutura. Egungo Murueta ontziolaren parean geraleku berri bat eraikitzeke azterlana egitea.
14. ekimena. Euskal Trenbide Sarearen trenbide-azpiegiturretan hobekuntzak egitea: Aginagako mozketa osatzea, Zumaia eta Donostia arteko 15 minutuko maiztasuna ahalbidezteko; Zumaia eta Eibar arteko 30 minutuen lorpena ezartzea (Altzolako Korta, trenbide bikoitzeko tunela eraikitzea eta trenbide-pasaguneak kentzea); Herreratik Pasaiaiko porturako sarbidea (zabalera metrikoko salgaiak); Altzolako saihezbidea eta trenbide-pasaguneak kentzea (Amorebieta-Bernabeitia, Euba, Usurbil, Deba...).
15. ekimena. Metro Bilbaoko 4. linearen alde egitea, erakunde eskudunek adosten duten proiektuarekin bat etorritz.
16. ekimena. Durangaldea, Bedia, Usansolo, Galdakao, Basauri eta Bilbo lotuko dituen trenbide berriaren (5. linea) eraikuntzan aurrera egitea. Sarratuko erabiltzaileek konexioa hobetzeko dituzten aukerak aztertuko ditugu.
17. ekimena. Bilbo-Loiu aireporturako trenbide konexioa burutzeko lanak aurrera eramatea.
18. ekimena. Baiona eta Donostia lotuko dituen trenbide-zerbitzu berri baten sorrera bultzatzea.
19. ekimena. Eibarren trenbidearen trazadura (Estaziño-Azитайn tartea) hirian integratzeko proiektuarekin jarraitzea, trenbideak estaliz eta oinezkoen eta bizikleten joan-etorrietarako pasealeku bat sortuz.
20. ekimena. Loiolako Erriberetako aldagailua eraikitzea, espazio berean Renfeko eta Euskotrenetako erabiltzaileek bi operadoreen arteko transbordoak egin ditzaten eta Donostiako lurpeko pasabidea zerbitzuan jartzeko, eta Easo-Amarako hiri-berrikuntzako operazioa garatzea.

21. ekimena. Arriagas Erandion trenen kotxetegi berriak egitea, 3., 4. eta 5. lineei zerbitzua emateko.

90. konpromisoa. Bultzada irmoa aireportu eta portuei.

1. ekimena. Forondako aireportua eta haren instalazioak bultzatzea, Euskadin erreferentziazko aireportu gisa, itsasoz haraindiko eta salgaien konexioetarako.
2. ekimena. Planak garatzea Forondako aireportuak behar adina baliabide izan ditzan eguraldi txarra dela eta Loiotik desbideratzen diren hegaldiak hartu ahal izateko.
3. ekimena. Portu-inguruneak elektrifikatzea, hurbiltasuneko sorkuntza berriztagarria eta propulsiio elektrikoko ontzien gehikuntza erraztuz.
4. ekimena. Portu-eremuetako espazioak eta eraikinak doitzeko lanak modernizatzea eta jarraipena egitea.
5. ekimena. Izotz-fabrikak eraikitzea Ondarroako eta Bermeoko portuetako kofradietan.
6. ekimena. Bilboko portuko salgaien trafikoa trenbidez goi-lautadarantz eta ardatz atlantiko eta mediterraneorantz garatzeko beharrezko eskakizunak bultzatzea.

91. konpromisoa. Garraio azpiegituren kudeaketa Euskadira transferitzeko prozesuak burutzea.

1. ekimena. Gernikako Estatutua osorik betetzeko konpromisoarekin bat etorriz, Espainiako Gobernu Kontseiluak 2020ko urtarrilean onartu eta urte bereko urrian berretsi zuen bezala, transferitzeke dauden gaiei dagozkien transferentziak negoziatu eta egitea. Alde horretatik, Bitariko Batzordearen barruan, portuei eta aireportuei dagozkien materia-zerbitzuak transferitzeko akordio egokia landuko da, Euskal Autonomia Erkidegoari egin beharreko transferentziak eguneratzeari buruzko txostenean jasotako baldintzen barruan.

16. Lehen sektorea eta Arrantza

EAEko lehen sektorea ez da nazioarteko egoera ezegonkor eta asaldatutik libre geratu. Ziurgabetasun-egoera horrek areagotu egin du elikaduraren arloan duen izaera estrategikoa, eta funtsezko rola du kultura-, gizarte- eta ingurumen-balioak transmititzen dituen elementu gisa. Lehen sektoreak elikagaien ekoizpen jasangarria eta kalitatezkoa bermatzen du. Ingurumenaren babesle gisa dugun aktiborik handiena da.

Lehen sektore hori klima-aldaketaren ondorioen aurkako babes-oztopo gisa ulertu behar da, eta horren ondorio kaltegarriak geldiarazi behar dira, bai eta Euskadiko landa-eremuetako biztanleriaren iraunkortasuna eta hazkundea bermatu ere.

Lehen sektorearen defentsari heldu behar zaio haren premia eta itxaropenei modu integralean erantzunez. Arreta eman behar zaie beren lan-ingurunean eta beren bizimoduan, ahalegina probetxugarria izan dadin emakumeentzat eta herritar guztientzat. Sektore honen bizitza eta familia- eta gizarte-garapena hiri-ingurunearekiko berdintasun-baldintzetan egin behar dira.

92. konpromisoa. Elikagaien Katearen legearen aplikazioak izan dezakeen potentzialitatea areagotzea.

1. ekimena. Elikagaien Kateari buruzko Legea eraginkortasunez betetzea, norberaren eskumeneko tresnen garapena bultzatuz, hala nola Jardunbide Egokien Kodea, Elikagaien Katearen Behatokia, eta kontrolen, ikuskapenen eta zehatzeko ahalaren sistema.
2. ekimena. Behatokiaren bidez nekazaritzako elikagai guztien ekoizpen-kostuei buruzko aldizkako azterlanak areagotzea, erreferentziazko indize gisa nekazaritzako elikagaien kontratueterako eta Elikagaien Kateari buruzko Legearen ikuskapeneterako.

93. konpromisoa. Tokian tokiko sektore jasangarri, iraunkor eta osasungarriagoak eskaintzen dituen onura ekonomikoak bermatzea.

1. ekimena. Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoa gure errealitatera egokitzen lagunduko duten neurriak ezartzea, hura aplikatzeko autonomia handiagoarekin; eta Europako Batzordeak sartutako azken malgutasun-proposamenei ekitea, nekazariak eta abeltzainak errazago bete dezaten, eta, horrela, NPbN eta Europar Batasuneko ingurumen-araudian ingurumena babesteko ezarritako helburuak lortzea.
2. ekimena. Eskola-jantokietan eta ikastetxe publikoetan hurbileko elikagai-produktuen erosketara eta kontsumoa sustatzea.
3. ekimena. Elikadura-kateko eragileek eta administrazio publikoek elikagaiak alferrik galtzearen aurkako ekimenak sustatzea. Elikagaiak alferrik galtzearen aurkako lege-proiektua bultzatzea.
4. ekimena. Hirugarren herrialdeetatik datozen inportazioei gure ekoizleei eskatutako ekoizpen- eta jasangarritasun-estandar berberak betetzea eskatutako dieten "ispilu-klausulen" implementazioa bultzatzea. Horrela, lehia leiala bermatzea eta gure tokiko ekoizpena babestea.

5. ekimena. Lehen sektoreko jardueraren errentagarritasunaren aldizkako ebaluazioa egitea, laguntza-neurri berrien bidez berehala esku hartu ahal izateko.
6. ekimena. Ezohiko finantzaketa-sistemak aztertzea, tresna publikoen bidez, finantzaketa-lerro berriak garatzeko aukera emango dutenak interes-tasa bigunekin eta amortizazio-aldi luzeekin, ustiategien errentagarritasuna arriskuan jartzen duten merkatu- eta klima-egoerei erantzuteko.
7. ekimena. Sektorean lehengaien (bazka, pentsuak) autosufizientzia mailakatua sustatzea laboreen bidez, kanpoko mendekotasuna eta fenomeno klimatikoengatik edo gatazka belikoengatik izan dezaketen falta murrizteko.

94. konpromisoa. Euskal nekazaritzako elikagaien sektorea indartzen laguntzea, ekintzailetzaren, berrikuntzaren eta jardunbide egokien erreferente gisa.

1. ekimena. Gure lehen sektorearen etorkizunari laguntzea, belaunaldien arteko erreleboa ziurtatuz, Gaztenek programa berrikusiz eta gazteak eta beste sektore batzuetako langileak sartzeko erraztuko duten sentsibilizazio-programak, neurri pizgarriak eta arau-aldaketak hobetuz.
2. ekimena. Familia-nekazaritzaren eredua bultzatzea, sektore- eta lurralde-errealitateetara egokituko den laguntza-sistema bat garatuz, eta nekazaritzaren eta abeltzaintzaren garapen iraunkorrari lagunduko dion finantza-euskarria eta euskarri teknikoa eskainiz.
3. ekimena. Zerbitzu ekosistemikoak sortzen dituzten nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-jardueretan onura edo kenkari fiskalak sartzeko aukera aztertzea, Foru Aldundiekin elkarlanean.
4. ekimena. Gobernantza-esparru iraunkor eta dinamiko bat ezartzea, EAEko administrazioen eta nekazaritzako elikagaien eta arrantzen erakundeen artean nekazaritzako elikagaien sektorea ahalduko duena. Horretarako, Nekazaritza eta Elikadura Politikako eta Landa Garapeneko Batzordea erabiliko da foro egituratzaile gisa.
5. ekimena. Coworking-espazioak garatzea Euskadiko landa-eremuetan, landa-eskualdeen dinamizaziora eta landa-eremuetako ekintzaileek sustatutako proiektuen tutorizaziora eta laguntzara bideratutako zentro balioaniztun gisa.
6. ekimena. Lehen sektoreko politika publikoen eragina aztertzea eta Landa Garapenerako Euskal Sarea ezartzea, lurralde-garapeneko eragileen koordinatzaile gisa.
7. ekimena. Nekazaritzako Lanbide Heziketa bultzatzea, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera behar bezala bideratzeko eta lanbidea duintzeko.
8. ekimena. Landa-ustiategien ekoizpen-, merkaturatze- eta titulartasun-ingurunean emakumeak sartzeko prozesuan aurrera egitea.

95. konpromisoa. Lehen sektoreak ekologiaren alde egin dezakeen guztia sustatzea.

1. ekimena. Nekazaritza-lurra lehen sektorerako erreserba estrategikotzat hartzea eta, ahal den neurrian, bide-azpiegituretako edo energia-azpiegituretako proiektuen ondoriozko galera minimizatzea.
2. ekimena. Intsektu polinizatzaileen lana babestea, biodibertsitatearen berme gisa, nekazaritza-eta industria-inguruneetan azpiegitura berdeak kontserbatuz eta lehengoratzuz.
3. ekimena. Eusko Jaurlaritzaren mendeko nekazaritzako ikerketa- eta esperimantazio-zentro teknologikoen arteko koordinazioa bultzatzea, laborantza-teknika berriak aztertzeko eta klima-aldaketari, nekazaritza-lurren babesari edo sektorean teknologia berriak sartzeari aurre egiteko.
4. ekimena. Ehiza-jarduera iraunkorrak naturguneen kudeaketa egokian duen garrantzia balioestea eta arautzea, lehen sektoreari babesa emateko jarduera den aldetik.
5. ekimena. Nekazaritza-lurzoruaren kontserbazioa sustatzea, haren erabilera eraginkorra eta iraunkorra ziurtatuz, epe luzerako nekazaritza-produktibitatea bermatzeko. Nekazaritza-lurren funtsa sustatzea, ustiategi berrietara eta daudenak bideragarritzera bideratuta. Neurri horrek eragin berezia izango du abeltzaintza-sektorean eta Arabako Errioxan.
6. ekimena. Baliabide natural mugatuak errespetuz erabiltzeko kontzientzia piztea. Horien erabilerari, hondakinen kudeaketari, gasen isurketari, ongarrien erabilerari eta plagizidei buruz kontzientziatzea.
7. ekimena. 2030era begira Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-lurren %25 gutxienez nekazaritza ekologikoarekin erabiltzeko beharrezkoak diren sustapen-neurriak hartzea. Abeltzaintza ekologikoa, arrantza jasangarria eta hurbileko merkatuak sustatzea.

96. konpromisoa. Mahastizaintzako eta ardogintzako sektorea, Euskadi markakoa, lehen sektorekoa.

1. ekimena. Guardiako Ardoaren Etxea egokitzen laguntzea, enologiari buruzko aholkularitza-zentro, mahatsaren kalitate-parametroetan erreferentziatzeko laborategi eta mahastizaintzari buruzko ikerketa-zentro gisa.
2. ekimena. Berrikuntza enogastronomikoko proiektu eta programa berriak garatzea, gastronomiaren eta edarien sektoreari laguntzeko zientzia eta gastronomia uztartzen dituzten zentro berrietan Euskadiren nazioarteko estatusa sustatzeko eta bere izen ona finkatzeko: GOe (Gastronomy Open Ecosystem) eta EDA Drinks & Wine, Gasteizko eta Guardiako campusekin.
3. ekimena. Nazioarteko kideekin lan egitea, ETEentzako eta euskal enpresentzako laguntza-programa bereziak bultzatuz.

97.konpromisoa. Egurra, etorkizunerako material jasangarria.

1. ekimena. Euskadik, bere eskumenen esparruan, lidergo eta laguntza sektoriala bere gain har dezan ahalbidetzea. Lidergo eta babes horrekin bilatuko da euskal administrazioen parte hartzea eta komunikazioa, bai eta ordezkari eta lobby izan ahal izatea, euskal zur-basogintzaren sektorearen errentagarritasuna, lehiakortasuna eta etorkizuna defendatzeko behar diren foroetan.
2. ekimena. Euskadiko eraikin publikoen eraikuntzan zuraren erabilera lehengai gisa sustatzea.
3. ekimena. Egurraren euskal sektorean balio erantsi handiko konponbideak garatzen laguntzea, enpresak, startup delakoak, ekintzaileak eta sektore horrekin lotutako beste erakunde batzuk bilduko dituen Hub bat sortuz.
4. ekimena. Mendien balioa areagotzea, lehengai naturalen eta berriztagarrien hornitzaile gisa duten eginkizuna sustatuz, baldin eta horien ekoizpena bateragarria eta sinergikoa bada beste ingurumen- eta gizarte-zerbitzu batzuekin.

98. konpromisoa. Arrantza sektoreko baliabideen eredu jasangarria sustatzea.

1. ekimena. Flotaren modernizazioa sustatzea, belaunaldien arteko erreleboa sustatzea eta jasangarritasun hirukoitza bermatzea: soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa, arrantza-sektore gero eta jasangarriagoa eta lehiakorragoa bultzatzeko, enplegua eta aberastasuna sortuko dituen.
2. ekimena. Ekintza planifikatzeko eredu bat sortzea, sektore publikoen eta pribatuen artean koordinatutako erabakiak hartzearekin batera, gure itsasoan klima-aldaketaren ondoriozko arriskuak kudeatzeko beharrezkoak diren ezagutzan, tresnen garapenean, prestakuntzan eta gaitasunetan aurrera egiteko. Halaber, itsasertzeko eta itsasoko ekosistemen erresilientzia hobetzeko klima-aldaketaren ondorioen aurrean, horiek egokitzeko beharrezko neurriak barne hartuta.
3. ekimena. Euskal presentzia sustatzea nazioarteko arrantza-akordioetan, Espainiako Gobernuarekin elkarlanean.
4. ekimena. "Itsas Ekoizleak" erakundearen finantza-tresna bultzatzea, Euskadin arrantza-kuotak errotzen dituzten itsasontzien jarduerari laguntzeko.
5. ekimena. Itsas akuikultura jasangarriaren negozio-eredu berriak arakatzea gure kostaldean.
6. ekimena. Arrantza-sektoreko enpresen titulartasunean belaunaldi-errelebuko neurriak erraztea, Euskadin etorkizuna eta sustraitzea bermatuko duen tresna gisa.
7. ekimena. Basordasen akuikultura-poloa garatzea, Euskadin akuikultura indartzeko.
8. ekimena. Itsasoko emakumeen gizarte- eta lan-baldintzak hobetzea, kotizazio-oinarriak eguneratuz eta beren jardueratik lortzen dituzten diru-sarrera errealetara egokituz.

99. konpromisoa. Euskal landa- eta itsasertz-eremuak kudeatzea eta zaintzea.

1. ekimena. Euskadiko eta Akitania Berriko kirol-portuetako zerbitzu eta jardueren eskaintza bateratua bultzatzea.
2. ekimena. Natura-ondarearen kontserbazioa eta itsasertzeko jarduera sozioekonomikoen garapena sustatzeko neurriak bultzatzea.
3. ekimena. Landa-ingurunearen garapen sozioekonomiko iraunkorren laguntzea, lehengaien eta lehen mailako ondasunen ekoizpena eta zerbitzu ekosistemikoak emanez, landa-eremuetako biztanleei errentak eta enplegua emanez. Landa-ingurunean aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa bultzatzea erronka demografikoaren aurrean.

17. Merkataritza eta Ostalaritza

Hurbileko merkataritzak eta ostalaritzak, aberastasuna garatzeko eta banatzeko eragile gisa, funtsezko zeregina betetzen dute Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialean. Hurbiltasun-sektore horren egitura-gaitasunak tokiko hazkunde ekonomikoari eta enplegua sortzeari laguntzen dio. Funtsezkoa da, halaber, iraunkortasuna, ekonomia zirkularra eta hurbileko produktuak bultzatzeko.

Bilakaera teknologiko eta digital etengabeak tokiko merkataritzaren bertuteei balioa ematea eskatzen du, hala nola hurbiltasunari eta arreta pertsonalizatuari. Gainera, beharrezkoa da gaitasun berriak egokitu, profesionalizatu eta garatzea, sektorean belaunaldien arteko erreleboa bermatuz.

Eraldaketa sozialek, ekonomikoek eta ingurumenekoez, eta, batez ere, horiek ematen ari diren abiadurarekin, lankidetzaren publiko-privatua eskatzen dute, etorkizunera begira tokiko merkataritzaren eraldaketa kontsumitzaile digitalaren eta presentzialaren eskaerekin egokitzera begira.

100. konpromisoa. Sektore osoa suspertzeko legeria.

1. ekimena. Merkataritza Ganberen Legea bultzatzea, Euskadiko saltoki eta ETE guztiei aholkularitza eta laguntza emateko zerbitzuen eskaintza hobetzeko.
2. ekimena. Merkataritza- eta ostalaritza-mahaiak abian jartzea, merkataritza- eta ostalaritza-sektoreko elkarteek, udalekin, aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera, sektorerako neurri berriak adostu ahal izateko.

101. konpromisoa. Merkataritzaren eta ostalaritzaren lehiakortasuna hobetzea.

1. ekimena. Digitalizazioaren eta iraunkortasunaren inguruan, merkataritza-enpresak modernizatzeko eta eraldatzeko inbertsioari laguntzeko programa berriak sustatzea.
2. ekimena. Sektorearen profesionalizazioa, prestakuntza espezializatua eta gremio-lanbideen sustapena eta gaikuntza indartuko ditugu, baita gizareratzea eta langile berriak merkataritzan sartzea ere, eta hori guztia lan baldintza onekin.
3. ekimena. Banakako eraldaketa digitala sustatzea, laguntza pertsonalizatuaren bidez, merkatarien gaikuntza digitala babesteko.
4. ekimena. Merkataritzaren ezagutzaren kudeaketa eta dibulgazio eraginkorra sustatzea, Enfokamer Merkataritza Banaketaren Euskal Behatokiaren bidez eta ikerketa espezializatuko ekimenen bidez.
5. ekimena. Merkataritzaren ezaugarri berezietara egokitutako merkataritza-ekintzailtzako programa bat garatzea, merkataritza-enpresari lagunduko diona enpresa-ekintzailtzaren fase posible guztietan: ezarpena, errotzea, barne-ekintzailtza eta enpresa-transmisioa.
6. ekimena. Euskadin ezarritako merkataritza-arreta teknikoko sistema eguneratzea, herrien eta eskualdeen errealitatea zuzenean ezagututa.

7. ekimena. Euskal elkarte-sarearekiko lankidetzaren sustatuko dugu, haien presentzia eta ordezkariak kolektiboa indartzeko, sektoreen erronkei eta eskaerei aurre egiteko.

102. konpromisoa. Tokian tokiko merkataritza eta ostalaritza bultzatzea.

1. ekimena. Tokiko eta eskualdeko saltokien eta establezimenduen mapak sortzen laguntzea, berebiziko eragina izan dezaketenak edo erantzukizun sozialekoak (tokiko produktuak, 0 KM, hurbileko zerbitzua...).
2. ekimena. Hornitzen ez diren landa-eremuetako merkataritzaren eta ostalaritzaren egoeraren diagnostikoa garatzea. Horietan jarduera ekonomikoa sortzea ahalbidetuko duten neurriak bultzatzea.
3. ekimena. Udal-merkatuek eta salmenta-postuek gure hiri eta herrien parte izaten jarraituko dutela bermatzea.
4. ekimena. Hiri-ekonomia ardatz duten politika publikoak bultzatzea, Udallerri Bizien eta Jasangarrien ekimenarekin, toki-erakundeekin lankidetzan.
5. ekimena. Hutsik dauden lokalen poltsa bat sortzea sustatzea. Lokal horiei lotutako ekintzailatza sustatzeko neurriekin eta tokiko merkataritza-arloko eta/edo - ardatzeko mix komertzialera egokitzeko neurriekin lankidetzan aritzea.
6. ekimena. Hirigune programa bultzatzea, eskariari eusteko eta eskari berriak erakartzeko eta udalerrietako merkataritza-guneak dinamizatzeko.

103. konpromisoa. Erantzukizun soziala tokiko merkataritza eta ostalaritzarekin.

1. ekimena. Urrats berriak emango ditugu azken bide zatiko banaketa zerbitzuen alorrean, 0 emisio garraioarekin.
2. ekimena. Merkataritza-establezimenduetan eta ostalaritza-establezimenduetan energia-eraginkortasuna handitzeko dirulaguntzen programa bultzatzea.
3. ekimena. Ostalaritza-sektorean elikagai-hondakinak murrizteko proiektu pilotu berriak abian jartzea.

18. Turismo jasangarria, bikaintasunezkoa

Turismoa izan da azken aldian ekonomia eta enplegua haztea eta Euskadiko egitura ekonomikoa dibertsifikatzea ekarri duen sektoreetako bat.

Helburua da turismoak gure ekonomian duen eragin positiboa areagotzea, turismo jasangarri eta kalitatezkoaren aldeko apustua eginez. Ingurumenarekiko arduratsua den turismoa, ekonomikoki eta sozialki jasangarria, bisitarien eta tokikoen arteko "aberastasun soziala" ahalbidetuko duena, alderdi guztiei mesede eginez.

Hazkunde iraunkorra lortzeko, ezinbestekoa da erantzukizunean, erakundeen arteko koordinazioan, araudia errealitate berrira egokitzean eta epe luzerako ikuspegian oinarritutako estrategia bat izatea, turismoa herritarren ongizateari lagunduko dion garapen ekonomikorako motorra izan dadin.

104. konpromisoa. Turismoaren alorrean Euskadi – Basque Country marka finkatzea.

1. ekimena. Turismo jasangarri eta arduratsuaren euskal ereduaren aldeko apustua sendotzea, Euskadi – Basque Country marka indartuz eta urtaroen arabera izan ez dadin.
2. ekimena. Basquetourren urteko ekintza-plan baten bidez gauzatzen diren B2C eta B2B kanpainak eta ekintzak egitea.
3. ekimena. Euskadiren presentzia areagotzea nazioarteko turismoko azoka erreferenteetan. Euskadin lehentasuna duten merkatu eta segmentuetako preskriptore eta komunikabide garrantzitsuenekin harremanetan jartzeko estrategia ezartzea. Sustapen-jarduera horretan, Euskadik helmuga gisa dituen elementu bereizgarriak nabarmenduko dira bereziki.

105. konpromisoa. Euskadi, bikaintasuneko helmuga turistikoa, segurua, iraunkorra eta berdintasunarekin konprometitua.

1. ekimena. Euskadi berdintasuneko, inklusioko eta aniztasuna errespetatzen duen helmuga gisa finkatzea (Euskadi LGTBI+...). Turismo-jardueretan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatzea dadin sustatzea, women friendly (emakumeentzat lagunkoia) helmuga gisa hartzea indartuko duten neurriak bultzatuz.
2. ekimena. Giza eskubideak sustatzea, eta, bereziki, biztanleria-talde kalteberenen eskubide espezifikoak, hauen artean adingabeenak, adinekoenak eta premia bereziak dituzten pertsonenak, gutxiengo etnikoenak eta tokian tokiko herrienak.
3. ekimena. Turismoari lotutako ekintzailtza eta enpresa-espirtua sustatzea eta turismo-ekintzailtza sustatzeko laguntzak ematea, gazteei eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeari zuzendutako jarduera espezifikoaren bidez. Talentua erakartzea eta bertan gera dadila bultzatzea, lan-baldintzei mesede eginez.

4. ekimena. Belaunaldien arteko erreleboa bermatzeko lan egitea, gazteak turismoaren sektorean sar daitezen bultzatuz.
5. ekimena. Sektorearen profesionalizazioa bultzatzea, profesionalen etengabeko prestakuntzarekin, haien trebetasunak eta gaitasunak hobetuz, eta transferentzia-programei laguntzea, ezagutzaren sozializazioa sustatzeko eta negozioen ondare-transmisioari laguntzeko.
6. ekimena. Enpleguaren egonkortasuna sustatzea, bai eta berdintasun-planak ere, beren ibilbide profesional osoan kalitatezko enplegu egonkorrak eta ingurune erakargarriak sor ditzaten.
7. ekimena. Basquetourrek Euskadi-Basque Country marka bikaintasuneko helmuga turistikoa gisa kokatzeko egiten duen lana indartzea, ekoturismoa eta enogastronomia bezalako funtsezko sektoreetan, ekosistema turistikoa funtsezko eragileekiko lankidetzan indartuz eta tokiko sortzaileekin lankidetzan arituz.
8. ekimena. Turismoaren Euskal Lege berri bat bultzatzea, bertoko eta nazioarteko araudi berrietara egokituko dena, erakunde-mailen arteko koordinazioa hobetuko duena eta hainbat gaitan eskumenez eragiten duten erregulazioak argituko dituena.

106. konpromisoa. Euskadi, helmuga lehiakorra.

1. ekimena. Sektorea digitalizatzeko, euskal turismoa IKTetara egokitzeko eta turismo-produktuak eta -zerbitzuak merkatu berrietara egokitzeko laguntzak eskaintzea.
2. ekimena. Eskualdeaz gaindiko turismo-produktuak eta -zerbitzuak garatzeko laguntzak indartzea. Lurraldeen arteko oreka eta kohesioa indartzea, fluxuen banaketa eta eskaintzaren antolamendua bultzatuko duten ekintzen bidez, lurraldearen konektibitateak eta garraio jasangarriak eskaintzen dituzten aukerak indartuz.
3. ekimena. Gainerako euskal erakundeekin koordinatuta, tasa bat ezartzea bultzatuko dugu, Euskadiko turismo-establezimenduetan ostatu hartzen duten bidaiarien egonaldiak zergapetzeko eta sektorearen lehiakortasuna eta iraunkortasuna sustatzeko.
4. ekimena. Helmugan dagoen turistarekiko interakzio-eredu berri bat definitzea, bikaintasuneko eta kalitateko arreta turistikoa koordinazioa hobetuz, produktu turistikoa haien arteko konexio-esparru batean indartuz, bisitariarentzako arreta-eredu digitalizatuagoa ezarriz, eta Informazio Turistikoko Bulegoen sarearen konexioa indartuz.
5. ekimena. Bisitatzen gaituztenen behar berriei erantzutea, bidaien aurreko eta ondorengo jarduerak azpimarratuz, eta lurralde-kohesioa eta mugimenduak seinaleztapen eta seinaletika turistikoa bidez sustatuz.

107. konpromisoa. Euskadi, helmuga digitalizatua eta adimenduna.

1. ekimena. DTI (Helmuga Turistiko Adimendunak) eredia sustatzea eta enpresetara eramatea, IZT (Enpresa Turistiko Adimentsuak) gehiago izan ditzagun.
2. ekimena. Basquetour Learning zerbitzuen bidez sektoreari zuzendutako prestakuntza-eskaintza handitzea eta barneko eta kanpoko jardunbide egokiak zabaltzea.
3. ekimena. Erabaki estrategikoak hartzeko Turismo Adimenaren Sistemaren erabilera sustatzea, eta lortutako ezagutza sektoreko eragileen artean zabaltzea.
4. ekimena. Euskadiko Turismo Behatokiari gaitasun handiagoak ematea turismo-jardueraren jarraipena gidatu eta koordinatzeko, helmugako zerbitzuaren kalitatea monitorizatzeko jarduera handiagoa barne, iritzi-kanal online nagusietan turisten iritzien jarraipena eginez.
5. ekimena. Adimen artifizialaren erabilera sustatzea, datuak aztertzeko eta bidaiarien portaeran ereduak eta joerak identifikatzeko.
6. ekimena. Turismoaren sektorea ZTBPN (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana, Euskadi 2030) sartzea indartzea. Ezinbestekoa da I+G+b sektorea indartzea, teknologia, ikerkuntzarekin, garapen teknologikoarekin eta turismo-sektoreak behar duen berrikuntzarekin batera bultzatzeko eta txertatzeko.

108. konpromisoa. Euskadi, helmuga konprometitua eta iraunkorra.

1. ekimena. Jasangarritasunaren eta kalitatearen helburuetan eragingo duen Turismoaren aldeko Ituna sustatzea. Itun horrek aisialdirako eta MICErako (bileretarako, pizgarrietarako, kongresuetarako eta erakusketetarako turismoa) politikak modu koordinatuan definitzeko ere balioko du.
2. ekimena. Tokiko eta nazioarteko ikastetxeekiko, mundu osoko turismo-agentziekiko eta helmuga turistiko jasangarrien garapenean erreferentzia izan diren enpresekiko harremana sustatzea.
3. ekimena. Turismo Mahaia bultzatzea, sektoreak parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko gune gisa.
4. ekimena. Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa sustatzea, helmuga iraunkor eta arduratsua sortzeko tresna gisa.
5. ekimena. Kultura- eta natura-ondarearen errespetuzko erabilera sustatzen duten turismo-produktu eta -zerbitzu iraunkorrak sortzen, garatzen eta ezartzen laguntzeko ildoak bultzatzea, gure helmugaren balioak eta nortasuna errespetatzen eta transmititzen direla zainduz.
6. ekimena. Turismo-garraioaren elektrifikazioa eta turismo-jardueren energia-eraginkortasuna sustatzea.

7. ekimena. Klima-aldaketaren aldagaiak turismo-estrategietan dituen ondorioen neurketa indartzea, epe luzerako estrategian funtsezko faktore gisa.

19.Kontsumitzailea

Kontsumoa etengabe aldatzen eta egokitzen ari den gaia da, askotariko gaiekin parekatu behar dena eta pertsona guzti-guztiei eragiten diena. Gure gizartearen garapena kontsumoan oinarritzen da, eta gure kontsumitzeko moduari buruzko erabakiak baldintzatzen du izan nahi dugun gizartea.

Kontsumo arduratsuak eta kontzientziatuak eta kontsumitzaileen eskubideen babesak garrantzia hartzen jarraituko dute etorkizunean. Teknologia berriek, merkataritza elektronikoak eta ordaintzeko modu berriek azkar egiten dute aurrera, adimen artifizialarekin, eta komunikatzeko, harremanetan jartzeko, kontsumitzeko eta informazioa trukatzeko modu berriak zabaltzen dituzte.

109. konpromisoa. Pertsonen babesa indartzea eta herritarrentzako zerbitzuen hurbiltasuna eta irisgarritasuna sustatzea.

1. ekimena. Arreta presentzial nahikoari eustea, telefono bidezko arretaren kalitatea eta online arreta zentralizatuaren erraztasuna zaintzea.
2. ekimena. Pertsona kalteberen kolektiboen plataformekin eta elkarteekin lankidetzan aritzea, horien kalitatezko arreta aztertu, diagnostikatu eta hobetzeko.
3. ekimena. Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetzea, informazioan komunikazio argiko teknikak aplikatzea sustatuz. Helburua informazioa modu erraz, zuzen, garden eta eraginkorrean helaraztea da, hizkera juridikoa saihestuz.

110. konpromisoa. Enpresa-jardunbide egokiak bultzatzea.

1. ekimena. Jardunbide egokien kodeak egitea eta ikusaraztea, kontsumo-erakundeen bitartez.
2. ekimena. Kontsumo-araudia enpresen artean zabaltzea, enpresa-berrikuntzako zentroen bidez sortu berriak azpimarratuz.

111. konpromisoa. Erakundeen arteko gobernantza eta lankidetzaren indartzea, eta kontsumitzaileen elkartearen sarea ikusaraztea eta indartzea.

1. ekimena. Botere judizialarekiko lankidetzaren sustatzea, bereziki Euskadiko Fiskaltza Nagusiarekin, kontsumitzaileen defentsa koordinatzeko.
2. ekimena. Kontsumo-erakundeetan unibertsitate-praktikak egitea bultzatzea.
3. ekimena. Kontsumo arduratsuaren arloko prestakuntza-programa berri bat sortzea, hiru lurraldeetako esperientzia-geletako ikasleekin.
4. ekimena. Kontsumo arduratsuaren arloko prestakuntza sartzeko Lanbide Heziketako maila guztietan.
5. ekimena. Kontsumitzaileen elkartearen jardueraren juridikoa babestea, eta, bereziki, elkarte horiek egindako bukarazte-ekintzei dagokienez.

III. ARDATZA. ERALDAKETA ENERGETIKOA ETA JASANGARRITASUNA

JARDUN ARLOAK:

20. Trantsizio energetikoa

21. Ingurumena

22. Garraio Jasangarria

23. Ekonomia Zirkularra

24. Hiri-berroneratzea eta Hiri Agenda

25. 2030 Agenda

20.Eraldaketa energetikoa

Berotze globala gero eta intentsitate handiagoz eragiten duen errealitate egiaztagarria da. Ondorio negatiboak eragiten ditu euskal ehun sozial eta ekonomikoan. Datuek erakusten dutenez, atmosferako berotegi-efektuko gasen isurketaren ondorioz, batez besteko tenperatura gaur egun industriaurreko aldia baino gradu bat gorago dagoela. 2045ean karbono neutraltasuna lortzeko hartutako helburu handinahiak, erantzuna atzeraezin egiten dute.

Erantzun hau azkarra eta eraginkorra izan behar da. Euskal ekoizpen ehunak trantsizio ordenatu eta koherente bat behar du, sektore industrial, teknologiko eta energetikoarekin koordinatuta; eraldaketa hau aukera gisa aprobeztatzuz, garapen ekonomiko arduratsua mantentzea eta enplegu berri eta hobeak sortzea ahalbidetuz.

Euskadik legegintzaldia hasi du berriki onartutako Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketaren Legearekin. Araudi honek ingurumen helburu handinahiak ditu eta, aldi berean, Euskadiren energia autonomia handitzea du helburu, sektore hau hainbeste baldintzatzen duten gorabehera geopolitikoak saihestuz. Euskaditik autokontsumo partekatua aldeko apustua egin behar dugu, energiaren ekoizpenari etekin handiena ateraz eta balio katean sartu ezin diren hondakinak aprobeztatzuz, balorizazio energetikoaren bidez energia sortzeko.

Trantsizio honen kostuak ezin dira saihestu, ez soilik ekonomiaren arloan. Trantsizio energetikoa atsegina izan behar da, burokrazia izapideak murriztuz eta sinplifikatuz, helburu komunitarioak lortzeagatik enpresen lehiakortasunean kalterik eragin gabe eta gure sektoreei lagundu behar diegu trantsizio honek eskaintzen dituen aukera ekonomikoak, enplegu sorrera eta lehiakortasunaren alorrean identifikatzen.

112. konpromisoa. Energia-politiken plangintza.

1. ekimena. Trantsizio Energetiko eta Klima Aldaketaren Epe Luzerako Bide-Orrri bat, 2030erako Trantsizio Estrategiak eta Lurralde Historikoen eta tokiko erakundeen Klima eta Energia Planak aurreikusten dituen planifikazio-esparru berri bat bultzatzea.
2. ekimena. Euskadiko 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerriek Klima eta Energia Planak izatea sustatzea. Plan horien helburuak izango dira:
 - Arintzea: emisioen murrizketa, 2050 baino lehen karbonoan neutralak izateko helburuarekin, 2045ean neutraltasuna lortzeko beharrezko ahaleginak eginez.
 - Egokitzea: mehatxu eta eraginak hobeto ezagutzea eta klima-aldaketak eragindako ondorioei aurrea hartzeko planak egitea.
 - Udallerriaren erresilientzia: gobernantza hobetzea muturreko gertaeren aurrean eta naturan oinarritutako konponbideak sartzeko egokitzapen eta erresilientzia elementu gisa.
3. ekimena. Euskadiko Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legean aurreikusitako klima-aldaketaren aurkako borrokarekin lotutako ekimenak garatzea, dagokion araudia proposatuz.

4. ekimena. Energia-eraginkortasunari laguntzen dioten inbertsioak laguntzeko mekanismoak bikoiztea, bai industria-eremuan, bai jarduera publiko eta pribatuen eraikinetan.
5. ekimena Energia berriztagarriak bultzatzeko izapideak sinplifikatzea eta azkartzea, ingurumen-, ondare-, gizarte- eta lurralde-integrazioa zainduz.
6. ekimena. Energia-trantsizioa eta klima-aldaketa bultzatzen duen zerga-sistema berria sustatzea, Foru Aldundiekin lankidetzan. Ekintza energetikoen ahultasuna edo karbono isurketak handitzen dituzten jarduketak zergapetzeko, isurketen arintzea, murrizketa eta xurgapena sustatzen dituzten jarduketak bultzatzeko eta klima-aldaketara egokitzeko proposamen bat.
7. ekimena. Administrazio publikoek, beren eskumenen eremuan, kalteak eragiten dituzten jarduketak zergapetzea eta energia-eraginkortasunaren inbertsioak, energia berriztagarrien ekoizpena eta kontsumoa, eta ibilgailu emisiorik gabekoak eskuratzea eta erabiltzea sustatzeko mekanismoak eta neurriak ezartzen jarraitzea bultzatuko da, aurrezpen handienak eta sektoreen deskarbonizazioa eta klima-aldaketara egokitzea lortzen diren erabilerak lehenetsiz.
8. Ekimena Euskal Autonomia Erkidegoko 100 udalerrri Klimaren eta Energiaren Itunari atxikitu daitezela sustatzea.

113. konpromisoa. Trantsizio energetikorako proiektuak lantzea.

1. ekimena Administrazio publikoaren eraikinetan eta etxebizitza publikoetan energia-jasangarritasuna bultzatzea, birgaitze-soluzioen eta energia-kontsumoaren ekipamenduen hobekuntzaren bidez. Instituzioen energia-erosketa zentralizatu bultzatzen jarraitzea.
2. Ekimena Etxebizitza berriek energia-autokontsumo termiko altua izan dezaten eta EBk ezarritako eraikinen energia-eraginkortasunaren helburuak betetzeko neurri berriak diseinatzea. Guzti hori etxebizitzaren erosten finantza-egonkortasuna arriskuan jarri gabe.
3. Ekimena Zero emisio edo passivhaus etxebizitza berrien eraikuntza sustatzea, edo BREEAM ziurtagiriarekin. Eredu horiek sustatzeko pizgarriak ezartzea eta eraikuntza industrializatua eta BIM metodologia diseinu eta eraikuntzan bultzatzea.
4. Ekimena Eraikuntza bioklimatikoaren irizpideak espazio berdeei lotutako azpiegiturretan erabiltzea sustatzea.
5. Ekimena Energia elektriko berdearen erabilera eta autokontsumo termikoaren erabilera sustatzea aerotermia bidez. Baso-biomasa energia-iturri berriztagarri gisa erabilera jasangarria bultzatzea, batez ere mendialdeko baso-eremuetatik hurbil dauden landa-eremuetan.

6. ekimena. Km 0 energia berriztagarrien proiektuen sustapena intensifikatzea, tokiko eremuetan, herritarrek, ETEek eta merkatariek energia hurbil, berde eta lehiakorrera sarbidea izan dezaten.
7. ekimena. Energia berriztagarriak sortzeko instalazioak sustatzea industria-proiektuetan.
8. Ekimena Energia Komunitateak bultzatzea, energia berriztagarrien sorkuntza handitzeko eta euskal herritarrek gai honetan ahalduntzeko tresna gisa.
9. ekimena. Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) bidez udal eta eskualde ekimenak babestea, inbertsio horiek finantzatzeko tresna espezifikoak aktibatuz eta administrazio-izapideak sinplifikatuz.
10. ekimena. Euskadin garatutako proiektu energetikoen sozializazioa indartzea, herritarren eta enpresa-sarearen eskura jarritzeko Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) parte hartzen duen proiektuetan sortutako energia elektriko berriztagarriaren %30 gutxienez.
11. ekimena. 900 MW energia berriztagarrien instalazioa bultzatzea, hurbiltasun-sorkuntza maximizatuz (autokontsumoa, autokontsumo partekatua, energia-komunitateak...), tamaina handiagoko instalazioekin konbinatuta.
12. ekimena. Energia-kontsumo handiko industria deskarbonizatzeko proiektuak erraztea, energia-bektore berrietara, hala nola hidrogeno berdera edo erregai alternatiboaren erabilera, sarbidea erraztuz.
13. ekimena. Mugikortasunean erregai fosilen erabilera ordezkatzeko energia alternatibo deskarbonizatuen erabilera sustatzea eta garraioarekin lotutako isurketak murriztea. Gure lurraldeko garraio publikoaren flotetan zero isurketako helburua lortzea.
14. ekimena. Erregai fosiletan desinbertsio plana egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta sektore publikoko erakundeek 2030 baino lehen, ahal den neurrian, zuzenean edo zeharka, erregai fosilak esploratzeko, ustiatzeko, fintzeko edo prozesatzeko orientatutako edozein gizarte, enpresa, ekimen edo proiektutan parte hartzeari uzteko.
15. ekimena. Energia eta jasagarritasun ikuspegia lurralde-antolamenduan eta hiri-plangintzan txertatzea.

114. konpromisoa. Euskal energiaren ikertzeko estrategien sakontzea.

1. ekimena. Ikerketa, garapen teknologiko eta enpresa-sarea bultzatzea energia-eremuan, RIS 3 Euskadi espezializazio adimenduneko euskal estrategien definitutako lehentasun estrategikoen ildotik.
2. ekimena. Energia-uhinak, biltegitratzea, Offshore itsasoko eoliko flotatzailea, sare adimendunak eta hidrogeno berdea ekoizteko arloetan euskal industria- eta teknologia-posizionamendua sustatzen duten ekimenak indartzea.

115. konpromisoa. Bidezko trantsizio energetikoa.

1. ekimena. Energia-eraginkortasuneko inbertsioak sustatzen dituzten neurriak eta laguntza-programak bultzatzea, kontsumoa murrizten laguntzeko eta, horrela, energia-prezioaren eragina kontsumitzaile domestiko, komertzial eta industrialetan murriztuz.
2. ekimena. Gainerako erakundeekin koordinatutako ekintzak garatzea, euskal herritarrek energia segurua, jasangarria eta eskuragarria izatea bermatzeko, Energia Trantsizio eta Klima Aldaketaren 2024ko Legean jasotako terminoetan.
3. ekimena. Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Politiken programei eustea, pertsonen eta familien energia-kalteberatasuneko egoerari aurre egiteko. Energia Trantsizio eta Klima Aldaketako Planetan helburu hau sartuko da: pertsona guztiek beren etxeetan bizi-baldintza duinak izateko behar duten energia eskura izatea.

21. Ingurumena

Ingurumenaren babes-politikak XXI. mendeko legegintza eta betearazpen lanen pieza funtsezko bihurtu dira. Ingurumena zaintzea eta klima-aldaketaren aurkako borroka mundu osoko kezka nagusien artean kokatzen dira eta herrialde guztien agenda politikoaren parte dira.

Ahalegin horrek ingurumen-adierazle nagusien hobekuntza ekarri du, bai uraren kalitateari dagokionez, bai lurzoruari eta aireari dagokienez. Biodibertsitatearen defentsan eta errespetatuan ere aurrerapausoak eman dira. 2030eko horizontean, eta Garapen Jasangarriaren Helburuekin bat etorritik, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarraren laguntzarekin, klima-aldaketa Euskadiren gai zentral gisa kokatu zuen, Larrialdi Klimatikoaren Deklarazioaren ondoren.

116. konpromisoa. Ingurumenaren defentsarako eta balio ekologikoen sustapenerako ingurumen-politika aurreratu eta berritzailea bultzatzea.

1. ekimena. Azpiegitura berdeetan inbestitzea, leheneratze ekologikoaren eta ekosistemen berezko zereginak leheneratzearen aldeko lana egitea.
2. ekimena. Euskal Azpiegitura Berdeen Estrategia prestatzea, gune naturalen eta erdinaturalen sare planifikatua sortzeko, babestutako eremu guztiak konektatuko dituen, balio ekologikoa duten eremu isolatuak ekiditeko eta bereziki babestutako guneei jarraipena emateko.
3. ekimena. Egungo azpiegituren erantzun-gaitasuna indartzea muturreko fenomeno meteorologikoen aurrean. Klima-aldaketara egokitzeko ekintzak bultzatzea, goiztiar alerta mekanismoak, gure udalerrak berdeagoak eta naturalagoak bihurtuz, karbono-hustubide gisa duten gaitasuna handitzen duten habitatak berreskuratuz, hiri-eremuak ere sartuz, hiriaren birsorkuntza adaptatibo eta zirkularraren bidez. Ingurumen-sentikor diren eremuetan bereziki jardutea, bertako espezie autoktonoen barietateak lehenetsiz.
4. ekimena. Finantza Jasangarrien Plan bat garatzea, euskal enpresen berrikuntza eta lehiakortasun berdea bultzatzeko, baita inbertsio positiboak eta ESG irizpideak Euskadira erakartzeko ere.
5. ekimena. Trantsizio ekologikoari lotutako gobernantza berritzailea garatzea, partaidetza eta deliberazio aurreratuen ereduak bultzatuz.
6. ekimena. Ekoetxea ingurumen-zentroen sarearen aldeko apustua indartzea, zentro horiek modernizatuz eta egokituz. Araban zentro berri bat sortzea.
7. ekimena. Europar Batasunarekin lerrokatutako zerga-politika berdea planteatzea, Foru Aldundiekin lankidetzan, Zerga Koordinaziorako Organoaren bidez.
8. ekimena. Lurralde-antolamenduan hiriaren birsorkuntza, lurra baliabide mugatu gisa baloratzea, klima-aldaketa, mugikortasun jasangarria, paisaia, azpiegitura berdea, ekosistemen zerbitzuak, baliabideen kudeaketa jasangarria, genero-ikuspegia, osasuna, irisgarritasuna, immigrazioa, partaidetza edo gobernantza ona bezalako irizpideak integratzea sustatzea.

9. ekimena. Beste erakunde batzuekin lankidetzan, udal eta eskualde mailako energia eta klima planak bultzatzea eta horiek Europako Alkatetzen Itunarekin integratzea.

10. ekimena. Osasun eta Ingurumen Estrategia bat prestatzeko lankidetzan aritzea.

117. konpromisoa. Biodibertsitatearen defentsa sustatzea.

1. ekimena. Landaguneen garapen sozioekonomiko jasangarria sustatzea, lehengaiak eta oinarrizko produktuak edo lehen mailako produktuak ekoiztea, baita ekosistemen zerbitzuak ematea ere.

2. ekimena. Uraren, airearen eta lurzoruaren “zero kutsadura” programa bat garatzea, kutsadura osasunarentzat eta ekosistema naturalentzat kaltegarriak ez diren mailak murrizteko. Programak arreta berezia jarriko du airearen kalitatea hobetzen, itsas zaborra eta mikroplastikoak murrizten, eta lurzoruaren kalitatea hobetzen.

3. ekimena. Gure ibaien ingurumen-helburuak lortzea sustatzea, baita gure gaitasun hidraulikoa mantentzeko ekintzak egitea ere. Lur-jauzien egonkortze ekintzak egitea, ibaien konektibitatea handitzeko presa txikiak ezabatzea, landare inbaditzaileen espezieak kontrolatzea eta ezabatzea, eta ibaiertzak basoberritzea bertako espezie autoktonoak landatuz.

4. ekimena. Ingurumen-adierazleen bilakaera ezagutarazteko eta euskal herritarrei informazioa emateko sistema ireki bat sortzea.

5. ekimena. Euskadi 2030 Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren betetzean aurrera egitea.

22. Garraio Jasangarria

Garraioa eta mugikortasuna funtsezko elementuak dira pertsonen bizitzaren garapenerako eta gizartearen garapenean eragin zuzena dute. Herritarren behar bat da, eta, beraz, politika publikoek garraio publiko, irisgarri eta integral baten bidez sustatu behar dute. Euskadik aurrera jarraitu behar du, lurralde egituratua izaten jarraitzeko, herritarren arteko lurralde-oreka bat mantenduz, eta horretarako, mugikortasun jasangarri eta eraginkor bat izatea funtsezko faktorea da.

Euskadiko garraio publikoaren sistemak kalitate handiko eskaintza bat izatea ahalbidetu du, eta hala baloratzen da herritarren aldetik. Ildo beretik, Gobernuak sustatuko du Euskadiko mugikortasuna trantsizio energetikoarekin eta trantsizio digitalarekin bat etorritik egotea.

118. konpromisoa. Mugikortasun jasangarria, garraio publikoa eta mugikortasun aktiboa bultzatzea.

1. ekimena. Tarifa-integrazioa osatzea, eskaintzen diren garraio-zerbitzu guztien erabilera intentsifikatzea ahalbidetzeko.
2. ekimena. Ontzi-aldaketen gainkostua aurre egitea, progresiboki murriztea eskainiz, tarifa-sistema bakar eta integratu baten barruan, betiere erakunde bakoitzaren eskumenak errespetatuz.
3. ekimena. Euskadiko Garraio Agintaritzaren baitan, eta inplikaturako erakunde guztiekin lankidetzan, garraio publikoaren erabilerean arabera bonifikazio edo deskontu progresiboen sistema komun bat sustatzea, erabiltzaileen ezaugarri sozioekonomikoak kontuan hartuta, eta kolektibo berezientzat –familia ugariak, 26 urte arteko gazteak, adinekoak, desgaitasunak dituzten pertsonak eta gizarte-profilek (langabeak, etab.)– tratamendu berezi bat eskaintzea, horietako batzuei doakotasuna eman arte, azaroaren 9ko Euskadiko mugikortasun jasangarriaren 11/2023 Legean ezarritakoaren arabera.
4. ekimena. Trenbide-baliabideak lehenestea Euskadiko mugikortasunaren ardatz egituratzaile gisa eta garraio publikoaren metodo ezberdinen arteko osagarritasuna bultzatzea. Merkantziarako mugikortasun trenbidekoa sustatzea, gure portu nagusietarako merkantzien trenbide-konexioa bultzatuz.
5. ekimena. Automobil-parkea berritzea bultzatzea, erabilera-, errenta- eta emisio-murrizketa-irizpideak ezarriz.
6. ekimena. Kargatze elektrikorako azpiegiturak sustatzea eta potentzia handiko karga-sarea handitzea, Energiaren Euskal Erakundearekin lankidetzan.
7. ekimena. Garraio publikoaren elektrifikazioa bultzatzea, floten berritzea bizkortuz, Foru Aldundiekin eta udal erakundeekin lankidetzan.
8. ekimena. Ahalmen handiko autobus elektriko adimendunen proiektuak populazio-dentsitate handiko hiri- eta metropoli-eremuetara zabaltzea.
9. ekimena. Garraioa eta azpiegiturarako irisgarritasuna bultzatzea. Horretarako, irisgarritasun unibertsalaren inguruko neurriak indartu eta ezartzea, desgaitasuna duten pertsonen integrazioa barne, eta bertan ikusmen-desgaitasuna edo

mugikortasun murriztua duten erabiltzaileen laguntzaileentzako garraio-txartelaren doakotasuna barne.

- 10.ekimena. Jatorritik helmugara bidaia multimodala planifikatzeko aukera ematen duten sistema informatikoak garatzea, garraio publikoaren operadore guztiak integratuz (pribatuak, aparkaleku publikoak, aireportuak, bizikletak, patinete elektrikoak, etab. barne). Sistema hauek ordutegiak eta tokiak zehaztuko dituzte, eta irizpideak aplikatu ahal izango dira, hala nola, ibilbiderik azkarrena, jasangarriena, irisgarriena, etab.
- 11.ekimena. Foru Aldundiekin eta Udalekin lankidetzan, Mugikortasun Jasangarriko Planak bultzatzea, baita lantokien mugikortasun-planak ezartzea ere, hala eskatzen dutenean.
- 12.ekimena. Udalekin lankidetzan, zero emisio etiketadun autoek zerga bonifikatuekin aparkatzeko aukera izan dezaten sustatzea, Araututako Aparkaleku Zerbitzuak kudeatutako eremu urdinetan eta berdeetan.
- 13.ekimena. Udalekin lankidetzan, ibilgailu elektriko eta hibrido entxufagarrientzat erreserbatutako aparkaleku-plazak sortzea sustatzea.
14. ekimena. Azken miliako banaketarako motozikleta elektrikoak edo zero emisio ibilgailuak sustatzea, baita logistika-puntuak sortzea ere, merkantzien banaketa hiri-eremutik kanpo egiteko, azken miliako banatzaileek hiri-inguruan zero emisio banaketa egin dezaten.
- 15.ekimena. Mugikortasun jasangarriago eta aktiboago baten aldeko sentsibilizazio-kanpainak egitea.

23. Ekonomia zirkularra

Ekonomia zirkularra funtsezko elementua da lehengaien kontsumoa murrizteko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko, eta, beraz, arriskuak arintzeko ez ezik, gure ehun ekonomikoa indartzeko aukerak sortzeko ere balio du. Beraz, enpresetan zirkulartasun-tresnak aplikatzea funtsezkoa da haien lehiakortasuna hobetzeko, klima-aldaketarekin lotutako CO2 isuriak murrizteko eta zabortegean amaitzen diren hondakinak murrizteko.

Azken urteotan, Euskadik aurrerapen handiak egin ditu arlo honetan, 2030eko Ekonomia Zirkularren Estrategia, 2021-2024 Ekonomia Zirkular eta Bioekonomiaren Plana eta Basque Ecodesign Centre edo Basque Circular Hub bezalako mugarriak onartu ondoren. 400 euskal enpresa baino gehiagok, %80 ETEak, praktika edo eredu zirkularrak aplikatzen ari dira jada.

Lehengaiak kontsumitzetik eta isurketak sortzetik bereizitako garapen eta hazkunde ekonomiko ereduan sinesten dugu, berritzaileagoa, lehiakorragoa eta jasangarriagoa dena, eskuragarri dauden baliabideak ahalik eta gehien maximizatuz, ekoizpen-zikloan ahalik eta denbora gehien iraun dezaten eta hondakinen sorkuntza murrizteko.

Helburua da ekonomia zirkular berri honen eredu hau sustatzeko martxan jarritako tresnak ezartzea eta zabaltzea, lan berdeak eta berrikuntza sortuz, eta horrek Euskadiren lehiakortasuna eta hazkunde jasangarria hobetzea ekarriko du.

119. konpromisoa. Lan berdea eta berrikuntza garatzea ekonomia zirkularren arloan.

1. ekimena. Euskadiko Ekonomia Zirkular eta Bioekonomiaren 2025-2028 Plana onartu eta ezartzea.
2. ekimena. "Basque green talent" programa (lan berdea) martxan jartzea, gazteak ekonomia zirkularren aukeretan trebatzea helburu duena.
3. ekimena. Produktuei bigarren bizitza bat emateko eta balio handiko birziklatze-estrategiekin lotutako negozio-eredu berriak sustatzea eta konponketarako aukerak bultzatzea.
4. ekimena. ETEentzat jasangarritasunaren ebaluazio-sistema bat sortzea.
5. ekimena. Digitalizazioari eta teknologia berriei laguntzeko programa bat garatzea trantsizio ekologikorako. Euskal enpresek blockchain bezalako teknologiak eta produktuaren pasaporte digitala bezalako tresnak erabil ditzaten, jasangarritasun-politiketan jauzi kualitatiboa egiteko.
6. ekimena. Finantzaketa-lerroak sortzea material elektrikoak eta bolumen handiko materialak balorizatzen dituzten enpresentzat, eta ekonomia zirkularra bultzatzen dutenentzat.
7. ekimena. Ingurumen-irizpide berriak sartzeko Finkatuz Funttsaren, SGCRren eta haien Arrisku Kapital Funttsen bidez Euskadin enpresa estrategikoak sustatzeko parte-hartzeak lehenesteko.
8. ekimena. Euskal Garbi Teknologien Zerrenda urtero eguneratzea, zerga-arloan kontuan hartu daitezkeen eta ekonomia zirkularra errazteko.

9. ekimena. Gizartea prestakuntza eskaintzea ekonomia zirkularraren praktika onen balioa nabarmentzeko.
10. ekimena. Ingurumen Azterna Korporatiboa, Produktuaren Ingurumen Adierazpena edo Bizitza Zikloaren Azterketa bezalako ingurumen-ziurtagiriak eta egiaztapenak lortzeko laguntza handitzea.
11. ekimena. Lanbide heziketako enpresak sortzea sustatzea, ekonomia eredu berrietara eta jasangarriagoetara bideratuak, hala nola ekonomia zirkularra.
12. ekimena. Prestakuntza eta gizarteratze programak sustatzea kolektibo jakin batzuentzat, lantegi eskolen eta ofizio etheen programak garatzea, eta ekonomia zirkularraren arloan lana sustatzea.

120. konpromisoa. Hondakinak murriztea eta horien birziklapena eta balorizazioa handitzea.

1. ekimena. Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektoriala onartzea, Euskadi 2030 Hondakinen Plana betetzean aurrera egiteko.
2. ekimena. Urtero zabortegietara eramaten den milioi bat tona balorizatzeko hondakinak kudeatzeko proiektuak martxan jartzea bultzatzea.
3. ekimena. Kontsumo Arduratsuaren programa bat garatzea, "Euskadin kontsumo zirkular eta jasangarri baten aldeko itun sozialaren" esparruan. Itun bat, ingurumen-inpaktu handiena duten kontsumo arloetan zentratzen dena: elikadura, ehungintza eta moda, mugikortasuna, ekipo elektrikoak eta elektronikoak.
4. ekimena. Produktu nekazaritzako-abereentzako ingurumen-etiketak garatzea bultzatzea.
5. ekimena. Kontsumo jasangarria sustatzea: bigarren eskuko merkatuak sustatzea eta berrerabiltzea eta hurbileko elikadura bultzatzea.
6. ekimena. Elikagaien xahuketaren aurkako neurriak garatzea, bai gizarte-sentsibilizazioaren arloan bai kontrol eta zigorren arloan.
7. ekimena. Euskal Bizi-Zikloaren Azterketa Sarea sortzea. Tresna horren bidez, Euskadin fabrikatutako material eta prozesuei lotutako ingurumen-inbentarioaren datu berriak garatu, balioztatu eta argitaratuko dira, eta Europako Batasunak bultzatzen duen produktuaren ingurumen-pasaporteen erregistro publikoa sortu eta koordinatuko da.
8. ekimena. Plastikoen ekonomia zirkularraren programa bat prestatzea, zabortegira doazen plastikoen hondakinak murrizteko, plastiko eta ontziei buruzko legeria betetzen jarraitzeko eta hondakin horiek behar bezala kudeatzeko aukerak identifikatzeko helburuarekin.
9. ekimena. Hondakinak kudeatzeko datuen trazabilitate adimenduneko mekanismoak aktibatzea.
10. ekimena. Euskadi 2030 Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Plana betetzeko bidean aurrera egitea.

24.Hiri-berroneratzea eta Hiri Agenda

Aurreko garai predemokratikoan, biztanleria-nukleo garrantzitsuak eraiki ziren bizitegi-larrialdiei erantzuteko. Ez zuten plangintza eta epe luzerako ikuspegi nahikorik izan, garapen jasangarriaren ikuspegitik kalitatezko hiri-inguruneak bihurtzeko.

Euskadik biztanleria kopuruari dagokionez egonkorra den populazio bati etxebizitza gehiago behar dituen errealitatearen aurrean -etxebizitza bakoitzeko pertsona kopurua murrizten jarraitzen du-, dagoeneko eraikitako hirian zentratzea beharrezkoa da, lurraldearen artifizializazioa handituko luketen hedapen berrien gainetik formula hau lehenetsiz. Herri eta hiri trinkoagoak, jasangarriagoak, bizikidetasun-gune gehiago dituztenak behar dira, merkataritza gehiago eta topaleku gehiago barne hartuko dituztenak. Halaber, Euskal Hiria kontzeptuan aurrera egin, hobeto konektatutako Herri eta hiriak behar dira.

Hiri-garapeneko eredu berri honetan, auzoaren errealitateak, gizarte-interakziorako espazio komunitario gisa, gure herri eta hirien plangintza eta antolaketan bere funtsezko zeregina berreskuratu behar du. Horretarako, funtsezkoa da gure auzoek bizitza-kalitate handiko espazioak izan daitezen beharrezko elementu guztiak izatea.

121. konpromisoa. Euskadi Bultzatu 2050 egitasmoaren Hiri Agendari eustea eta bultzada ematea.

1. ekimena. Auzoen ikuspegi jasangarriagoa txertatzea lurralde-antolamendurako tresnen berrikuste lanetan, lurraldearen erabilera arrazional baten bidez garapen sozioekonomiko orekatua eta jasangarria bermatuz.
2. ekimena. Genero-ikuspegia txertatzea hiri-garapenaren eta hiri-plangintzaren tresnetan.
3. ekimena. Udalekin beti lankidetzan estuan lan egitea, ikuspegi urbanistiko, sozial eta ingurumeneko ikuspuntutik esku-hartze urgenteak behar dituzten auzoak identifikatzeko.
4. ekimena. Hiriko azpiegitura berdea bultzatzea, Ingurumen kontuetan ardura duen Sailarekin lankidetzan.
5. ekimena. I+G+b prozesuak bultzatzea, hirien jasangarritasuna hobetzeko, dagokion Sailarekin lankidetzan.
6. ekimena. Open Gela birsorkuntza-eredua sendotzea.

122. konpromisoa. Etxebizitzaren birgaitzea, hiri-birsorkuntza eta berrikuntza sustatzea, irisgarritasuna, energia-eraginkortasuna eta eraikuntza jasangarria hobetuz.

1. ekimena. Etxebizitzaren irisgarritasun-neurriak indartzea eta areagotzea, barneko egokitapena barne, desgaitasuna duten edo mugikortasun murriztua duten pertsonentzat.
2. ekimena. Eraikinen Ikuskapen Teknikoak (EIT) egiten jarraitzeko bultzadari segida ematea.
3. ekimen. Zero Plana, alokairu publikoko parke publikoaren birgaitzea eta deskarbonizazioa, eta Alokabizi proiektua gauzatzen jarraitzea, alokairu publikoko parke publikoaren

kudeaketa digital, jasangarri eta sozialki aurreratua herrialdearen azpiegitura gisa ulertuta.

4. ekimena. Egungo eraikinak eta etxebizitzak birgaitzea sustatzea, jasangarritasun, energia-eraginkortasun eta irisgarritasun irizpideekin.
5. ekimena. Arkitekturan berrikuntza eta eraikuntza jasangarriaren, ekoberrikuntzaren eta energia-eraginkortasunaren arloan ikerketa-proiektuak sustatzea. Hori guztia, Euskadi Bultzatu 2050 Hiri Agenda ezartzearen Estrategiarekin eta hiri-birsorkuntza integralaren proiektuekin bat etorritik, hiriak eta giza asentamenduak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izan daitezten lortzeko.
6. ekimena. Birgaitze eta hiri-birsorkuntza proiektuetan programa eta gailuak sartzea, gizarte- eta lan-integrazioarako, Lanbidek finantzaturako eta tokiko bultzadatik gauzaturako prestakuntza eta enplegu proiektuen bidez.
7. ekimena. Etxebizitza berriaren eraikuntzaren aldeko apustua egiten jarraitzea, 2010/31-Ec Zuzentarau Europarraren parametroen arabera, ia zero energia-kontsumoa duten eraikinak ("NZEB-Nearly Zero Energy building") eraikitzeko.

25. 2030 Agenda

Euskadiren konpromisoa 2030 Agendarekin sendoa eta ukaezina da, bere helburuak Euskal Agendaren lehentasun bihurtuz. Politika publikoek Garapen Jasangarriaren Helburuen ezinbesteko balioaren isla praktiko eta konkretua izan behar dute, etorkizun ekitatibo, berde eta jasangarri baterako bide-orri gisa.

Gure politikak eta ekintzak bideratuko ditugu helburu horiek garatzera eta betetzera, eta arlo horretan lan egingo dugu, pobreziaren desagerraraztea, genero berdintasunaren sustapena, klima ekintza eta komunitate inklusibo baten eraikuntza lehenetsiz,aldi berean garapen ekonomiko jasangarri eta inklusiboa sustatzen jarraituko dugun bitartean.

Euskadik ez ditu konpromiso horiek soilik bete behar, baizik eta haien aplikazioan eta lokalizazioan bide internazionala gidatu. Eusko Jaurlaritzaren eredu euskal eragileen lankidetzan eta gure politikak diseinatu eta gauzatzean herritarren parte-hartzean oinarritzen da. Guzti hori erronka globalak komunitate gisa aurre egiteko, oraingo ongizatea bermatzeko eta biharko euskaldunei gizarte hobea uzteko.

Aurreko legegintzaldian, Nazio Batuen Erakundeak erabaki zuen 2030 Koalizioaren munduko Idazkaritzaren egoitza Euskadin kokatzea. Gertaera honek jarraitutako ibilbidea aitortzen du eta erantzukizun gehigarria dakar. Garrantzi handiko gertaera bat da, GJHein euskal konpromisoaren garapen lokal eta internazionalerako aukera handiak irekitzen dituen.

123. konpromisoa. Euskadiren konpromisoa Garapen Jasangarriaren Helburuak betetzeko lehentasunari eustea eta 2030 Agendaren gobernantza multinibela eta multifaktoriala dinamizatzea.

1. ekimena. 2030 Agendaren Euskal Lehentasunen Programa eguneratzea eta bere koordinazioa eta lankidetzaren interdepartamentala, interinstituzionala eta soziala bultzatzea, politika koherentziaren ikuspegiarekin.
2. ekimena. 2030 Agenda Euskadi Foroa bultzatzea eta dinamizatzea, Garapen Jasangarriko Helburuen maila anitzeko gobernantzaren alorrean, eta GJHen aldeko Euskal Aliantzarekin lankidetzan aritzea.
3. ekimena. 2030 Agendaren inguruko dibulgazio eta sentsibilizazio politikak lehentasun gisa ematen jarraitzea, gizartearen ezagutza maila eta herritarren inplikazioa handitzeko, baita sektore populista demagogiaren bidez desinformazio kanpainak sustatzen dituztenen aurka borrokatzeko ere.
4. ekimena. Nazio Batuen Erakundearen Garapen Jasangarriaren Helburuak betetzean euskal ekarpena jarraipena, ebaluazioa eta proiektzioa mantentzea eta garatzea. Urteko Jarraipen Txostena argitaratzea eta ondoren Nazio Batuetara bidaltzea.
5. ekimena. Garapen Jasangarriko Helburuak betetzean euskal ekarpena ebaluatzeko maila anitzeko adierazle propioen sistema garatzea.

124. konpromisoa. Euskadiko konpromiso eredia 2030 Agendarekin nazioartean partekatzea eta 2030 Nazio Batuen Koalizio Lokalarekin lankidetzan esparru lehentasunezko bat ezartzea.

1. ekimena. 2030 Now 2030 Basque Country Agendaren lokalizazioarekiko konpromisoaren euskal eredia garatzea eta partekatzea, bai euskal gizartea eta haren erakundeetan barrura begira, bai kanpora begira, nazioartean.
2. ekimena. Bilbon kokatuta dagoen 2030 Nazio Batuen Koalizio Lokalaren Idazkaritzarekin lankidetzan aritzea, eta azpiegitura horrek Euskadirako eskaintzen dituen aukera lokal eta internazionalak garatzea.
3. ekimena. Nazioarteko gobernantzan 2030 Agenda tokikotzeko konpromisoa gidatzera begira, euskal eragileekin eta erakunde anitzekin lankidetzan jarraitzea.
4. ekimena. "Nazio Batuen 2030 Koalizio Lokala" izenekoaren esparruan, GHJen gobernantzara bideratutako HUB bat martxan jartzea.

IV. ARDATZA. BIZIKIDETZA, MEMORIA ETA GIZA ESKUBIDEAK

JARDUN ARLOAK:

26. Genero berdintasuna eta LGTBIQ+ eskubideak

27. Bizikidetza eta Giza Eskubideak

28. Garapenerako lankidetza

29. Justizia eta espetxeak

26. Genero berdintasuna eta LGTBIQ+ eskubideak

Euskadiko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko gai bihurtu da, bai erakundeen agendan, bai gizartean. Gaur egun, oso balio sozial handiko politika publikotzat jotzen da, herritarren gero eta eskaera handiagoari erantzuten dio, eta gure gizartean lehentasunezko eta eztaba daezinezko helburua da.

Halaber, indarkeria matxistaren aurka borrokatzea gizarte osoak egoki jotzen duen betebeharra da, eta Euskadiko botere publiko guztiek heldu behar diote giza eskubideen urraketa delako, bai eta lehen mailako arazo soziala eta osasun publikoko arazoa ere. Botere-harreman desorekatuen eta emakumeen aurkako egiturazko diskriminazioaren adierazpena delako ere.

Berdintasunaren eta LGTBIQ+ aniztasunaren defentsa funtsezko zutabe da gizarte justu baten eraikuntzan. Prozesu hori gizarte-eragileekin eta ordezkari politikoekin elkarrizketan eta akordioan oinarrituta gauzatu behar da.

125. konpromisoa. Indarkeria matxista desagerraraztea eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko berdintasunezko gizartea eraikitzea, indarkeriaren adierazpen guztiak desagerraraziz.

1. ekimena. Indarkeria matxistari buruzko aldizkako inkestak egitea, Euskadin duen prebalentzia aztertuz, bai eta azterlan espezifikoak ere, kuantitatiboak eta kualitatiboak, arazoaren ezagutza eta ulermena areagotzeko eta prebentzio-, arreta- eta erreparazio-politika eraginkorrak proposatzeko.
2. ekimena. Indarkeria matxistako egoerak antzemateko tresnak indartzea eta hobetzea, eta biktimei gizarte-laguntza ematea.
3. ekimena. Arreta-zerbitzuak hobetzea, administrazioen arteko koordinazio eraginkor eta efizientearen bidez, eta zerbitzuak eta prestazioak indarkeria matxistaren biktimen eskura egongo direla ziurtatzea.
4. ekimena. Sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimak hautemateko eta babesteko protokolo bat egitea, administrazioen, polizia-kidegoen eta gizarte-erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko. Protokolo horrek, delitu horren jazarpenaz gain, lehentasuna emango dio delitu hori jasaten dutenei eman beharreko babesari eta ordainari, gizarteratzeko eta laneratzeko neurriak barne.
5. ekimena. "24 orduko krisi-zentroak" sustatzea, sexu-indarkeriaren biktima diren 16 urtetik gorako emakumeei arreta integrala, profesionala, espezializatu eta hurbilekoa emateko baliabide gisa.
6. ekimena. Leihatila bakarra martxan jartzea, indarkeria matxistaren biktimei arreta eta babesa emateko espedienteen kudeaketa integratua ahalbidetzeko eta programak abian jartzeko.
7. ekimena. Gizarteratzeko eta laneratzeko programak indartzea, indarkeriarik gabeko bizitza berri bati ekiteko.

8. ekimena. Gizonduz programaren irismena zabaltzea, berdintasunari aurre egiten dioten gizon-taldeak barne hartzeko eta berdintasunari buruzko kontzientziazio-kanpainak egiteko, bereziki gizonentzat.
9. ekimena. Edozein desgaitasun-mota duten neskatoen eta emakumeen premiei helduko dieten programa espezifikoak ezartzea, haien inklusioa eta laguntza-zerbitzu egokietarako sarbidea ziurtatuz.

126. konpromisoa. Soldata-arrakalaren aurkako talka-planaren aplikazioa sustatzea eta enpresetan eta erakundeetan berdintasuna sustatzea.

1. ekimena. Lan-merkatu inklusiboa sustatzea, lanean hastean, lanpostuan promozionatzean eta lanpostuan geratzean pertsona guztiei aukera-berdintasun eraginkorra eta diskriminaziorik eza bermatzeko.
2. ekimena. Enpresetan eta erakundeetan berdintasunaren alde indarrean dagoen legerian ezarritako betebeharrak zorrotz betetzen direla zaintzea, berdintasun-planetan arreta berezia jarritz, gizarte-ekimeneko kooperatibek beren planak erregistratzeko aukera izan dezaten erraztuz eta laneko jazarpenaren aurkako protokoloak izanez.
3. ekimena. Norberaren bizitza, lana eta familia uztartzea ahalbidetuko duen enpresa-kultura berri bat sustatzea.
4. ekimena. Emakumeei etorkizuneko eskari handieneko lanbideetan sartzen laguntzea, historikoki gizonek okupatutako arloetan parte har dezaten sustatuz.
5. ekimena. Zainketak berdintasun-politiken erdigunean jartzea, gero eta erantzukideagoa den gizarte-antolaketan aurrera egiteko. Kontziliaziotik erantzukidetasunerako trantsizioa eraginkor egitea.

127. konpromisoa. Indarkeria matxista desagerraraztea haurren eta gazteen artean.

1. ekimena. Indarkeria matxistaren eraginpean dauden haurrei arreta emateko estrategia bat garatzea, berariazko zerbitzuak, metodologiak eta arreta-moduak izango dituen. Osasun- eta hezkuntza-arloekin koordinatutako estrategia.
2. ekimena. Haur eta gazteei zuzendutako prebentzio-programa espezifikoak ezartzea hezkuntza informala esparruan, indarkeria txiki-txikitatik prebenitzeko.
3. ekimena. Gazteentzako prebentzio-programen sorrera eta hedapena indartzea, jaietan eta gaueko aisialdian indarkeriaren prebentzioa lantzeko.

128. konpromisoa. LGTBIQ+ pertsonen errealitatea berdintasun-politika publikoen agendan jasotzea.

1. ekimena. Tratu-berdintasunaren eta diskriminazioaren aurkako borrokaren Legea bultzatzea.
2. ekimena. LGTBIQ+ kolektiboaren erronkei ikuspegi interseksionaletik helduko dien estrategia integral bat bultzatzea, aurrez aurre dituzten diskriminazio mota desberdinak aitortuz.

3. ekimena. Sentsibilizazio-kanpainak garatzea, LGBTIQ+ komunitatearen errealitateari buruzko ezagutza areagotzeko eta gizartean haien eskubideekiko errespetua sustatzeko.
4. ekimena. Euskal administrazio publikoetako langileei prestakuntza ematea, LGBTIQ+ aniztasunari eta haien eskubideak babesteko bideei buruzko berariazko prestakuntza-moduluak sortuz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE-IVAP) prestakuntza-planaren barruan.
5. ekimena. Aldian-aldean 'ad hoc' azterlanak egitea, kuantitatiboak eta kualitatiboak, memoria historikoa sustatzeko, eta LGBTIQ+ komunitateak dituen erronkak ezagutzea eta sakontzea, arlo horretako politika publikoen eraginkortasuna hobetzeko.

129. konpromisoa. Balioen aldaketa sustatzea eta emakumeak eta neskak ahalduntzea bultzatzea.

1. ekimena. Haurren artean, txikitatik, berdintasuneko eta hezkidetzako programak indartzea.
2. ekimena. Emakumeen elkarte-mugimenduaren eta mundu feministaren ekimenak sustatzea ahalduntzeko eta balioak aldatzeko proiektuetan.
3. ekimena. Interseksionalitatean aurrera egitea, emakume guztiei beren beharretan erantzun hobea emateko, ahalduntze pertsonal eta kolektibotik eta edozein adin, gizarte-eremu eta jatorritako emakume guztien aitortzatik abiatuta.
4. ekimena. Politika publikoen esku-hartze eremuetan genero-zeharkakotasuna txertatzea, eragin politikoko estrategia gisa, egiturari eragiten diona eta gizartea berdintasunean eraldatzen duena.

130. konpromisoa. Aniztasuna modu eraginkorragoan kudeatzea, inklusio eta berdintasun handiagoa lortzeko.

1. ekimena. Tratu-berdintasunerako plan eraginkorrak bultzatzea, indarrean dagoen araudiaren arabera, sexua, adina, arraza-jatorria edo jatorri etnikoa, erlijioa eta sexu-orientazioa direla-eta diskriminaziorik egon ez dadin. Plan horiek arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko neurriak jasoko dituzte.
2. ekimena. Aniztasuna sustatzea eta babestea, eta pertsonen eta kolektiboen diskriminazioaren eta estigmatizazioaren aurka borrokatzea.
3. ekimena. Inklusioaren eta berdintasunaren alde lan egiten duten gizarte-erakunde eta kolektiboekiko laguntza eta lankidetzak indartzea, kultura-aniztasunaren, jatorriaren eta sexu-orientazioaren ardatzetatik abiatuta.
4. ekimena. Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko politiketan prestatzeko, bullying, homofobia edo mobbing jarrerak prebenitzeko eta desagerrarazteko planak bultzatzea, udalekin koordinatuta.

27. Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak

ETAren desagertzea aurreko hamarkadako gertaera eta lorpen garrantzitsuenetako bat izan zen euskal gizartearentzat. Harrezkero, bizikidetzeta plurala, integratzailea eta giza eskubideekin konprometitu finkatzea lehentasuna da, iraganarekiko memoria kritikoa eta biktimekiko solidarioa eraikitzea eskatzen baitu. Memoria horrek inolako zalantzarik gabe aitortzen du terrorismo edo indarkeria mota orok eragindako kaltearen bidegabekeria, eta berretsi egiten ditu gure egiten ditugun 2016ko eta 2020ko akordioetan jasotzen diren premisak.

Euskadin, terrorismoaren biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko euskal lege bat dugu, motibazio politikoko giza eskubideen urraketen biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko lege bat eta Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege bat. Arau-oinarri horren gainean, eta elkarbizitza-eredu sendo eta justua bultzatze aldera, funtsezko 4 zutabetan oinarritutako ikuspegia sustatuko dugu, oinarri giza jarduten dutenak, eta horien gainean eraiki daiteke gizarte bidezkoago, ekitatiboago eta baketsuago bat.

Zutabe horietako lehena indarkeriaren deslegitimazioa da. Printzipio horrek ezartzen du indarkeria mota oro, fisikoa, emozionala edo estrukturala izan, erabat bidegabea dela. Gatazkak konpontzeko edo ideiak inposatzeko bitarteko giza indarkeriaren onarpen sozialaren hondar oro desagerrarazi behar dugu.

Bigarren zutabea oinarritzen da giza eskubideen urraketen biktima guztien aintzatespen osoan. Aitorpen horrek, lege- eta erakunde-eremua ez ezik, esparru soziala, morala eta sinbolikoa ere hartzen ditu. Bidegabekeriak jasan dituzten pertsona guztiak ikusarazi egin behar dira, eta gizartearen babesa eta elkartasuna jaso behar dute berreskuratzeko eta erreparazio-prozesu horretan.

Hirugarren oinarria memoria inklusiboa, kritikoa eta etikoa eraikitzea da. Horrek esan nahi du historia ikuspegi askotatik berrikusi eta aztertu behar dela, historikoki baztertuak edo isilduak izan diren taldeei ahotsa emanez. Memoria kolektiboak hausnarketarako eta ikaskuntzarako gune bat izan behar du, etorkizuneko gatazkak konpontzen eta prebenitzen lagunduko duena.

Azkenik, laugarren zutabearen printzipio eta balio etiko eta demokratikoak daude. Printzipio horiek harreman sozial eta politikoen gidari dira, eta giza duintasunarekiko errespetua, eskubide- eta aukera-berdintasuna, justizia, elkartasuna eta erabakiak hartzean herritarren parte-hartzea sustatzen dituzte.

Oro har, 4 zutabe horiek osatzen dute bizikidetzarako eredu bat, pertsona guztientzako bakea, justizia eta ongizatea sustatzea helburu duena. Bizikidetzeta horri bide emateko, gizarte osoaren konpromisoa eta lankidetzeta behar da, bai eta funtsezko printzipio horiek islatzen eta sustatzen dituzten politika publikoak eta egitura instituzionalak eraikitzea ere.

131. konpromisoa. Memoriaren, biktimen, bizikidetzaren eta giza eskubideen politikei bultzada iraunkorreko eta belaunaldien arteko proiektio azpiegitura bat ematea.

1. ekimena. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen arloko Legegintzaldi Plan bat onartzea, aipatutako lau zutabeetan oinarrituta. Plan horrek garrantzia emango dio bizitzeta, giza eskubideak, pertsonen duintasuna, iraganaren memoria kritikoa eta biktimekiko elkartasuna errespetatzearen aldeko eta belaunaldien arteko pedagogia sozialari.

2. ekimena. Gogora Institutuaren plan estrategikoa eta urteko kudeaketa-planak eguneratzea, Kontseiluan parte hartzeko eta adostasuna lortzeko asmoari eutsiz.
3. ekimena. Terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa emateko euskal Legea aplikatzen eta garatzen jarraitzea.
4. ekimena. Motibazio politikoko giza eskubideen urraketan biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko euskal legea aplikatzen jarraitzea, eta lege hori eguneratzeko beharrezko akordioa sustatzea.
5. ekimena. Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea garatzen jarraitzea, batez ere kapitulu hauetan: biktimen errekonozimendua eta erreparazioa; memoria demokratikoari buruzko pedagogia soziala; desagertutako pertsonak bilatu, lurpetik atera eta identifikatzea; ikerketa berrien eta lekuen maparen bidez egia argitzea; eta memoriaren espazioak eta ibilbideak Euskadin.
- 6 ekimena. Gogoragunea erakusketa-gunea garatzea.
7. ekimena. Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroarekin lankidetzan jarraitzea.
8. ekimena. Gernikako Bakearen Museo berria abian jartzea.
9. ekimena. Martxoaren 3ko memorial berria garatzea Gasteizen.
10. ekimena. Adi-Adian programa ebaluatzea eta bultzatzea, terrorismoaren eta indarkeria politikoen biktimen testigantza zuzena DBHko eta Batxilergoko eta Euskadiko Unibertsitateetako ikasleei hurbiltzeko. Beste gradu eta master batzuetara hedatzeko aukerak aztertzea, bereziki irakasleen prestakuntzarekin lotutakoak.

132. konpromisoa. Terrorismoaren eta indarkeriaren iraganaren memoria kritikoaren politika publikoa garatzea, biktima guztiekiko elkartasun-konpromisoari lotuta.

1. ekimena. Memoria kritiko batekiko konpromisoari eustea. Izan ere, uko egingo zaio iraganean gertatutako edozein terrorismo edo indarkeria mota legitimatu, konpentsatu edo minimizatzeari, eta gaur egun edo etorkizunera begira indarkeria eta terrorismo hori berriz agertzearen kontra adieraztea, elkarbizitzarako gizarte-proiektu bat partekatzea bideratuta eta terrorismoak eta motibazio politikoko beste indarkeria batzuek ekarri zuten bidegabekeriaren aitorpenean oinarrituta.
2. ekimena. Bizikidetzarako zoru etikoaren onarpen politikoa bultzatzea, giza eskubideen urraketa guztien bidegabekeriaren aitorpenean oinarritua, eta, bat bera ere baztertu gabe eta ETak eragindakoak berariaz barne hartuta, Euskadiko tradizio politiko guztiek lehen aldiz partekatuko dutena. Biktimen sentsibilitatea eta haien familien mina urratzen duen edozein jarduera baztertzea, eta haien iraintzea, umiliatzea eta berriz biktimizatzea saihesten duten neurriak hartzea, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko 4/2008 Legean aurreikusitakoaren arabera.

3. ekimena. Azterketa gehigarri bat egitea argitze-prozesu osatugabeek eragindako biktimen kasuei.
4. ekimena. Memoria plurala eraikitzeke ekarpen gisa, auzo-, politika-, gizarte-, langile- eta ikasle-mugimenduen ekarpena aztertzea, ikertzea eta zabaltzea, bai frankismoaren aurkako borrokan eginikoak, bai Euskadin kultura demokratikoa eta kontzientzia zibikoa eratzeko alorrean garatutakoak, bai terrorismoaren eta indarkeriaren aurrean bakea defendatzeko egin zirenak.

133. konpromisoa. Giza Eskubideak, aniztasuna eta pluraltasuna errespetatzeko kultura sozial eta politikoa sustatzea, edozein diskriminazio-motaren aurrean.

1. ekimena. Giza Eskubideak eta haien kultura gizarteratzea, Euskadiren DNAren osagai gisa, eta giza eskubideen defentsa eta bermea herrialdeko eremu guztietan txertatzea.
2. ekimena. Giza Eskubideen defendatzaileen programak babesteko ekimenei eustea.
3. ekimena. Erradikalizazioa eta gorrotoaren diskurtsoak prebenitzea, hezkuntza-, gizarte- eta kultura-izaerako neurriak barne, espazio publikotik biktimekiko edozein adierazpen iraingarri edo indarkeriaren justifikatzaile desagerrarazteko eta gizalege demokratiko eta tolerantia lantzeko.

28. Garapenerako lankidetzak

Gero eta interkonektatuago dagoen eta aurrekaririk ez duten egungo erronka globalei aurre egin behar dien mundu honetan, garapenerako lankidetzaren politika funtsezko pieza da gobernu demokratikoentzat eta nazioarteko elkartasunarekin konprometituta daudenentzat.

Muturreko pobrezia Afrikako kontinentean kontzentratzeak eta Asiako eta Latinoamerikako hainbat estatu bizitzen ari diren trantsizio desorekatuak erronka berriak dakartza, tokikoak eta globalak. Beraz, giza eskubide iraunkorraren gaineko erantzukizun kolektibo horretan egon behar du fokuak. Euskadik aliantza eta proiektu esanguratsuak sustatu behar ditu, ekimen globaletan parte hartuz eta euskal gizartearen izaera solidarioa eta kooperantea proiektatuz.

Eusko Jaurlaritzak aliantzak sortzeko, lankidetzako eragileak mobilizatzeko eta gizartearen parte-hartzea sustatzeko gaitasuna handituko du. Hori guztia gure gaitasun ekonomiko, sozial eta teknikoetan oinarrituta, eta betiere gure gaitasunak errespetatuz.

Nazio Batuen 2030 Agenda eta haren Garapen Iraunkorreko Helburuak oinarri hartuta, ezinbestekoa da gure ahaleginak pobrezia desagerrarazteko, desberdintasunaren eta bidegabekeriaren aurka borrokatzeko edo gure planeta babesteko urrats sendoak ematera bideratzea.

Gure politiken bidez, euskal herritarrok, mundu osoan gerra-gatazketan harrapatuta dauden pertsonen laguntzeko konpromisoa har dezakegu, Ukrainan edo Palestinan gertatu berri direnetan, esaterako.

134. konpromisoa. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Lege berrian diseinatutako garapenerako lankidetzaren euskal eredu deszentralizatu berria garatzea.

1. ekimena. Garapenerako lankidetzaren euskal ereduak modu kualitatiboan pixkanaka eraldatzea, krisi-garaian berehalako premiei erantzuten dien ereduak osatuz eta pobrezia eta bazterkeria sortzen duten egiturazko kausak eraldatuz. Eredu horrek desberdintasunen aurka borrokatuko du, giza eskubideen eta justizia globalaren alde. Ikuspegi integral horrek etorkizunarekiko konpromisoa adierazten du, ez soilik orainarekiko konpromisoa.
2. ekimena. Garapenerako Lankidetzaren V. Gida Plana bultzatzea. Euskadiren behar eta gaitasun espezifikoekin bat datozen eta nazioarteko lankidetzaren arloko lehentasun eta erronka globalei ere erantzuten dieten programak eta proiektuak diseinatzeari lehentasuna ematea.

135. konpromisoa. Garapenerako lankidetzaren finantzaketa handitzea.

1. ekimena. Finantzaketa-baliabide egonkorak bideratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren % 0,7 lankidetzaren eta elkartasun-politikerara bideratzeko konpromisoan aurrera eginez.

136. konpromisoa. Garapenerako lankidetzaren gardentasuna eta gobernu ona sustatzea.

1. ekimena. Gardentasun-mekanismoetan sakontzea eta kontuak argi eta eraginkor ematea, lankidetzarako baliabideen erabilera egokia ziurtatzeko. Herritarrei programa horien emaitzen ebaluaketan parte hartzeko aukera ematea.

2. ekimena. Gobernantza-eredu berriak garatzea, euskal lankidetzaren eragile tradizionalen (GGKE) gaitasunak sustatzeko eta garapen-eragile berrien arteko aliantzak bultzatzeko, itun horiek funtsezkoak baitira Euskadiko garapenerako lankidetzaren hedatzeko eta sendotzeko.

137. konpromisoa. Sailak Lankidetzaren politiketan zeharka inplikatu daitezkeen sustatzea.

1. ekimena. Sail guztiek, Euskal Fondoaren bidez, nazioarteko lankidetzaren proiektuetan parte har dezaten sustatzea. Helburua da giza eskubideetan, genero-berdintasunean eta garapen-politiken koherentzian oinarritutako zeharkako ikuspegia garatzea Eusko Jaurlaritzaren politiketan.
2. ekimena. Nazioarteko elkartasunaren arloko jardueretan ikuspegi feminista, berdea eta Giza Eskubideena jasotzea, zuzeneko laguntza humanitarioko ekimenak barne, bai eta arlo kritiko horietako garapen iraunkorrera bideratutako proiektuak ere.
3. ekimena. Euskal Diasporak eta bere zentroek garapenerako nazioarteko lankidetzaren proiektuetan parte har dezaten sustatzea. Beren adopzio-lurraldeetan lankidetzaren proiektu berriak zehazteko eta identifikatzeko prozesuetan parte har dezaten sustatzea.

138. konpromisoa. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak nazioartean duen zereginean sakontzea.

1. ekimena. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eginkizun aktiboa indartzea, Europan eta nazioartean deszentralizatutako lankidetzaren eredu propioaren bultzatzaile gisa
2. ekimena. Nazio Batuen Local 2030 Idazkaritzaren Egoitzaren zeregina indartzea, Garapen Jasangarriaren Helburuei lotutako lankidetzaren politiketan jardunbide egokien eta nazioarteko ezagutzaren bultzatzaile den aldetik.

29. Justizia eta espetxeak

Justizia funtsezko zerbitzu publiko gisa ulertuta, gure helburua da haren baitan egitura-aldaketak sustatzea eta garatzea, haien irisgarritasuna eta eraginkortasuna bermatzeko, eta denon helburu diren kohesio- eta jasangarritasun-ahaleginean laguntzeko.

Ildo horretan, bultzatu egingo dugu justiziak bere zerbitzua erraz ematea, pertsona ahulenei bereziki lagunduz, pertsonak ekintza-ardatz nagusitzat hartuz, herritarren beharrei erantzunez, iraunkortasunean, digitalizazioan, erantzun-denboren hobekuntzan, ulergarritasunean eta justizia errestituatiboaren sustapenean aurrera eginez, eztabaidak konpontzeko bitarteko egokiekin, eta lankidetzaren bidez berrikuntzaren alde lan eginez, babes judizial eraginkorra bermatuz. Eragindako kaltea konpontzera begira, politika integral baten barruan kokatuko den zerbitzua.

Espetxe-sistemak berebiziko garrantzia du justizia-administrazioan eta segurtasun publikoaren kudeaketan. Bere eginkizunak ez du arau-hausleak zigortzera mugatu behar; delituak egin dituzten pertsonen birgaitzea eta gizarteratzea ere kontuan hartu behar ditu. Berrintegrazio horrek mesede egiten die bai pertsoneri, bai gizarte osoari.

139. konpromisoa. Egungo beharretara egokitutako sistema judiziala bultzatzea.

1. ekimena. Justiziaren digitalizazioa bultzatzea, arrakala digitala saihestuz edo teknologiak justiziak eskaini behar duen hurbiltasuna deshumanizatzea saihestuz. Espediente Judizial Elektronikoa justizia digitaleko plan batekin garatuko dugu.
2. ekimena. Egoitza Judizial Jasangarrien Plana sustatzea, Euskadin sistema judizialak behar dituen espazio judizial berriak eskuratzeko neurriak jasotzen dituen. Plan horrek, halaber, jasangarritasun- eta irisgarritasun-estandarretara egokitzea eta egungo eremu judizialeko biktimentzako bermeak barne hartuko lituzke.
3. ekimena. Euskal udalerrriak, ikuspegi judizialek, pertsoneri zuzendutako justizia-administrazioko eredu batera igarotzea ahalbidetuko duten taldeetan integratzea.
4. ekimena. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako jardura-plan bat bultzatzea. Auzitegiko balorazio integralko unitateen eta talde psikosozialen jarduna indartzea, arriskua goiz antzemateko eta indarkeria matxistako kasuetan adingabeen egoera modu eraginkorrean balioesteko.
5. ekimena. Euskal Zuzenbide Zibila Sendotzeko eta Integratzeko Lege berri bat bultzatzea.
6. ekimena. Euskal Ondare Zuzenbidearen eta Ondarearen eta Familia Enpresaren Defentsaren Arloko Espezialitatearen Legea bultzatzea.

140. konpromisoa. Justizia unibertsala eta eskuragarria bultzatzea.

1. ekimena. Doako laguntza juridikoagatiko eta espetxeetako lege-laguntzagatiko konpentsazioak indartzea, herritar guztientzat justizia eskuragarri egon dadin, beren baliabide ekonomikoak edozein direla ere.
2. ekimena. Desgaitasunen bat duten pertsonen, kolektibo kalteberek eta adinekoek justizia-zerbitzura iristeko jasaten dituzten oztopoak ezabatzeko bidean aurrera egitea. Prozesu judizialean pertsona horientzako laguntzak eta egokitzapenak sustatzen dituzten programak garatzea, bideratzaileen figura txertatzeko aukera baloratu.

3. ekimena. Harengana hurbildu behar duten haur eta nerabeentzako justizia irisgarria bultzatzea eta Gazte Justiziaren VI. Plana abian jartzea.
4. ekimena. Justizia euskalduntzeko prozesuan aurrera egitea, Justizia Administrazioaren Hizkuntza Normalizatzeko 2023-2032 Planaren arabera, herritarrek eta profesionalak zerbitzuak euskaraz erabil ditzaten sustatuz.
5. ekimena. Doako laguntza juridikorako eskubidea arintzea eta abokatutzako, prokuradoretzako eta lan-harremanetako graduatuek egiten duten lana duintzea. Helburu horrekin, doako justizia eta defentsa-eskubidea arautzeko beharrezko erreformak bultzatuko dira, biktimari laguntzeko zerbitzua indartuko da, eta bitartekaritza eta justizia leheneratzailearen ikuspegia bultzatuko dira.
6. ekimena. Lan-baldintzei buruzko IV. Akordioa garatzen jarraitzea, prestakuntza-planak sustatzea eta lanpostuen balorazioa amaitzea, aldi behin lan-eskaintza publikoak eginez.

141. konpromisoa. Espetxe-erakunde eguneratuak bultzatzea, gizarteratzea sustatzeko.

1. ekimena. Euskadiko eremuan zigor-betearazpeneko zerbitzuen antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendu bat egitea. Euskal espetxe-administrazioaren eta espetxeen zerbitzu zentralen egitura organikoa eta funtzionala arautuko duen erregelamendua, bai eta espetxe-jardueraren esparruan lan egin behar duten gainerako erakunde-eremuen esku-hartzea ere, eta gizartearen eta herritarren parte-hartzea, espetxe-sistemari eta birgizarteratzeari dagokienez.
2. ekimena. Azpiegitura berriak bultzatzea, euskal espetxeetako plazen eskaintza jatorriz Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren edo gizarte-lotura duten espetxeen eskarira egokitzeko; horretarako, erregimen irekiko unitate berriak izango dira lehentasunez, espetxe-administrazio integralaren ikuspegitik.
3. ekimena. Dauden azpiegiturak espetxe-biztanleriaren profil heterogeneora egokitzea, kolektibo kalteberenen, buru-nahasmendu kronikoak dituztenen eta substantzia toxikoen kontsumorako adikzio-arazoak dituztenen behar espezifikoak azpimarratuz. Benetako beharretara egokitutako plantillak sustatuko ditugu, eta genero-ikuspegia espetxe-kudeaketan benetan txertatzea bermatuko duten jarduerak garatuko ditugu.
4. ekimena. Espetxe-sistemaren birsozializazio-politikak indartzea, berrerortzea saihesteko, presoengan iraganaren berrikuspen kritikoa eta eragindako kaltearen aitortpena sustatuz, eta ingurune irekian tratamendu-, lan- eta prestakuntza-jardueraren esku-hartzea eta katalogoa indartzea.
5. ekimena. Aukerak-Gizarteratzeko Euskal Agentziaren bitartez, prestakuntzaz eta laneratzeaz baliatuz, askatasunik gabe dauden pertsonen bigarren aukerak errazteko neurriak garatzea.
6. ekimena. Espetxeetan lan egiten duten erakundeetako profesionalak (espetxeetako SIP, Justizia Administrazioa, Ertzaintza...) plataforma informatikoetarako zeharkako sarbidea izatea, horietan jasotako informazioari dagozkion murrizketekin.

V. ARDATZA. AUTOGOBERNUAN HAZTEA

JARDUN ARLOAK:

30. Autogobernua

31. Gobernantza eta gardentasuna

32. Euskadi globala – Euskadi Basque Country

30. Autogobernua

EAJ-PNVk eta PSE-EEK (PSOE) konpromiso argia hartu izan dute egonkortasun instituzionalaren eta autogobernuaren garapenaren printzipioarekin. Printzipio hori udal-, foru- eta autonomia-esparruetan hartutako akordioetan gauzatu da, eta, berriki, estatu-eremuan ere adierazi da, Espainiako Gobernua osatzeko.

Bi alderdiok positiboki baloratzen dugu eredu hori, leialtasunez eta osagarritasunez garatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen baitugu, elkarrizketaren eta akordioaren bidez erakundeen egonkortasuna errazteko.

Autogobernua ongizate handiagoaren sinonimoa da herritar guztientzat. Hori defendatzea eta burutzeke geratzen diren eskumenak erreklamatzeko funtsezko zutabeak dira estatutu-ituna eguneratzeko, Legebiltzarreko autogobernu-lantaldeak XI. legegintzaldian egindako lanetan oinarrituta.

Printzipio horien gainean, Euskadiko autogobernua zabaltzeko eta hobetzeko konpromisoa berresten da, honako konpromiso hauetan oinarrituta: lortutako autogobernuaren lege-garapena zabaltzea; lortutako autogobernua defendatzea, indarrean dauden mekanismo politiko, juridiko eta instituzionalak eraginkortasunez erabiliz; Euskadiko ekonomia- eta finantza-autogobernua indartzea eta garatzea; Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak Euskadiko autogobernua osatzeko hartutako konpromiso politikoak eta instituzionalak betetzearen alde lan egitea.

Euskal autogobernua Europar Batasunaren esparruan ere garatzen da. Eusko Jaurlaritzak Europaren eraikuntza bultzatuko du, bai eta euskal instituzioek Batasuneko instituzioetan duten presentzia eta parte-hartzea ere.

142. konpromisoa. Autogobernuaren lege-garapena zabaltzea.

1. ekimena. Legegintza-programa onartzea, Jaurlaritza berria eratu ondorengo lehen hiru hilabeteen barruan. Jarraipena eta ebaluazioa egitea.
2. ekimena. Politika estrategikoen eta gainerako erakundeen (Foru Aldundiak eta Udalak) arteko koordinazioan sakontzea, ezarritako koordinazio-mekanismoak eta -organoak ezarriz, edo, hala badagokio, erakundeen arteko lanerako eta lankidetzarako guneak sortzen lagunduz, gizarte gisa aurre egin behar diegun erronka handiei heltzeko helburuarekin.

143. konpromisoa. Lortutako autogobernuaren defentsa.

1. ekimena. Lortutako autogobernuaren defentsa zaintzea. Haren garapena sustatzea eta Legebiltzarrak edo Eusko Jaurlaritzak, bere eskumenen esparruan, onartutako politika publikoetan sartzea, hustea, baldintzatzea edo murriztea dakarten jarduerak salatzea.
2. ekimena. Euskal Ekonomia Ituna errespetatzen dela bermatzea, bai eta Konstituzioaren 156. artikuluan aurreikusitako koordinazio-eskumenetatik erator daitezkeen neurriak ere, zerga- eta finantza-politikari dagokionez, dagozkien aldeko organoetan hartutako akordioei dagokienez. Aplikatzeko edo gauzatzeko, aldeko bilera-organoaren edo Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren bilera behar duten neurriak, denboran eta forman.

3. ekimena. Autogobernuaren defentsaren arloan eskumena duen sailak, ofizioz edo gainerako sailek eskatuta, Estatuaren araugintza-ekimenen legezkotasun konstituzionalari eta Gernikako Estatutuarekiko errespetuari buruzko txostenak egitea koordinatzea. Autogobernuaren defentsaren arloan eskumena duen sailak egingo ditu txosten horiek, eragindako sail sektorialari kontsulta egin ondoren. Euskal autogobernuaren urraketak hautematen diren kasuetan, gatazka judizialak saihesteko dituzten prebentzio-irtenbideak bilatzen saiatuko dira, dagokion "lankidetzeta-gutunaren" bidez. Era berean, lehentasunez sustatuko da Aldebiko Lankidetzeta Batzordearen aurrean negoziatzeko bidea, euskal autogobernua zaintzeko eta konstituzio-judizializazioa saihesteko.
4. ekimena. Gobernu Kontseiluari euskal autogobernuaren, Euskadiri esleitutako eskumenen eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-antolaketaren defentsan gauzatzen diren prozesu konstituzional edo judizialak aurkezteko proposamenak helaraztea. Lankidetzako prebentzio-neurriek emaitzarik ez duten kasuetan gaituko da bide hori, autogobernuaren defentsaren arloan eskumena duen sailak dagokion sailari kontsulta egin ondoren.
5. ekimena. Lehentasunez, Bitariko Lankidetzeta Batzordearen aurrean negoziatzeko bidea sustatzea, euskal autogobernua ahalik eta baldintzarik onenetan zaintzeko eta Konstituzioaren judizializazioa eta autogobernua interpretatzeko hutsegiteak eragiteko arriskuak saihesteko, gure eskumen-eremurako ondorio txikitzaileei buruzko doktrina sendotuz. Aldebiko Batzordean negoziatzeko bide hori aplikatuko da, bai Eusko Jaurlaritzak auzi-jartzaile gisa esku hartzen duen prozesuetan, bai Euskal Autonomia Erkidegoak emandako arau eta egintzen aurka Estatuak jarritako errekurtsoen ondorio diren prozesuetan. Negoziazio horiek autogobernuaren arloan eskumena duen sailak egingo ditu, eragindako sail sektorialaren laguntzarekin.
6. ekimena. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko titularrak JAI Kontseiluan (Justizia eta Herrizaingo Gaiak) parte har dezan bultzatzea.

144. konpromisoa. Autogobernu aitortua transferitzeko zain.

1. ekimena. Espainiako Gobernuarekin batera lan egitea, transferitu gabe dauden eskumenen, gaien eta zerbitzuen inguruko negoziazioak gauzatzeko. Gernikako Estatutua osorik betetzeko konpromisoarekin bat etorriz, Espainiako Gobernuaren Kontseiluan 2020ko urtarrilean onartu eta urte bereko urrian berretsi zuen bezala, transferitzeke dauden gaiei dagozkien eskualdaketak negoziatu eta egitea. Alde horretatik, Bitariko Batzordearen barruan landuko da aipatutako materia-zerbitzuak transferitzeko dagokion akordioa, Euskal Autonomia Erkidegoari egin beharreko transferentziak eguneratzeari buruzko txostenean jasotako baldintzen barruan eta eskatutako eskualdatzei buruz adostutako negoziazio-zerrendan oinarrituta, bi alderdiek 2023ko azaroaren 10ean ezarritako epeetan.

145. konpromisoa. Euskadiren ekonomia- eta finantza-autogobernua indartzea eta garatzea.

1. ekimena. Euskadiren eta Estatuaren arteko Ekonomia Ituna eguneratzea, euskal erakundeen zerga-arloko autogobernua sendotzeko. Zerga itunduetan araugintza- eta erregulazio-gaitasun handiagoak lortzea, eta itundutakoez bestelako zerga berriak ezartzeko aukera, zerga-eskumenik ez izateko konpromisoarekin.

2. ekimena. Kupoa zehazteko metodologiari buruzko bost urteko lege berria onartzeko beharrezko akordioak sustatzea.
3. ekimena. Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren indartzea, Euskadiren eta Estatuaren arteko ekonomia- eta finantza-harremanak arautzeko eta bideratzeko instantzia gisa.
4. ekimena. Euskadiko ekonomia eta finantza arloko ordenamendu juridikoa etengabe eguneratzen jarraitzea (aurrekontu-erregimena, laguntza eta dirulaguntza publikoak, politika eta finantza-tresnak...), Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gaiak modu eraginkor, moderno, egonkor eta gardenean arautzeko.
5. ekimena. Euskadik, zerga- eta tributu-eskumenak dituen autonomia erkidego gisa, ekonomia- eta zerga-arloko Europako erabaki-organoetan duen partaidetza eta ikusgarritasuna indartzea. Ildo horretan, eta Ekonomia Itunaren 4. artikuluan ezarritako lankidetzaren esparruan, goi-mailako taldeen bileretara eta osoko bileretara joaten den Espainiako ordezkariaren sartzea bultzatuko du, horietan D-4 (zerga-gaiak) eta D-5 (jokabide-kodea) taldeetan aztertutako gaiak jorratuz. Era berean, euskal erakundeen presentzia bultzatuko du ELGaren nazioarteko fiskalitate-foroetan: FHTP, Global Forum, FTA; baita ELGaren BEPSri buruzko esparru inklusiboko lanetan (MI) eta G-20an ere, ELGaren zerga-gaietarako batzordeak zuzenduta.
6. ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion defizit-helburuak zehazteko prozesuan parte hartzea, Itunaren Batzorde Mistoaren esparruan, bai eta, hala badagokio, toki-erakundearen superabita berrinbertitzeko irizpideetan ere. Zorraren muga Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien artean bereizten jarraitzea.

146. konpromisoa. Euskadiko Estatutu Itun berri bat lortzea.

1. ekimena. Eusko Jaurlaritza bat dator, dagokion esparruan, EAJ-PNVk eta PSE-EEk (PSOE) autogobernuari buruz adostu duten akordioarekin.

EAJ-PNV eta PSE-EEk (PSOE) alderdiok autogobernua eguneratzeko prozesu bat planteatu genuen 2016ko azaroan, indarrean dauden legezko arau eta prozeduren arabera izapidetuko zen erreforma bat juridikoki eta legalki egokituko zela bermatzeko, bizikidetzaren demokratikoan sakontzeko eta kohesio eta justizia sozialean aurrera egiteko.

Hori oinarri hartuta, 2020an lortutako akordioan, bi alderdiek Eusko Legebiltzarrean egindako lanetan sakontzeko aukera planteatu genuen, euskal autogobernua eguneratzeko prozesuarekin amaitzeko, ahalik eta adostasun handienarekin eta ezarritako eta aurreikusitako legezko bideei jarraituz, estatutuak aldatzeko lege-proposamenaren proiektua aurkezteko aukera emateko.

Gogoeta horiei gehitu behar zaie PSOEek eta EAJ-PNVk 2023ko azaroaren 10ean sinatutako akordioa. Akordio horretan jasota dago alderdi biok parte hartuko dugula, Euskadin zein Estatuarekin, etorkizuneko autogobernua negoziatu eta onartzeko prozesuan, Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarriaren eta Gernikako Estatutuaren Xedapen Gehigarriaren ahalmenak baliatuz. Akordio horretan, fede onez negoziatzeko eta akordio bat aurrera ateratzeko konpromisoa adierazten

genuen, bai euskal erakundeetan, bai Gorte Nagusietan, ondoren euskal herritargoak lortutako akordioa berrets zezan. Euskadiren naziotasunaren aitortza, euskal eskumenen babesa eta aldebikotasunean eta forutasunean oinarritutako berme-sistema bi alderdien artean hitz egin eta negoziatu beharreko eremuak izango dira.

Lortuko den akordio horrek Euskadiko Legebiltzarraren gehiengoaren eskaerei erantzun beharko die, Gernikako Estatutuan ezarritakoaren arabera, Euskal Herria legitimoki ordezkatzeko baitu.

Bi alderdiok ulertzen dugu aurreko legegintzaldietan egindako lanetan EAJ-PNVk eta PSE-EEk (PSOE) hainbat arlotan bat egin dugula, baina desadostasunak ere izan ditugu gure artean. Alde horretatik, bi alderdiek berretsi egiten ditugu 2016an, 2020an eta 2023an sinatutako akordioak, eta, bat egite horretan oinarrituta, uste dugu gai horri buruzko eztabaidak alderdi politikoei dagozkiela, eta ez Jaurilaritzari, eta onartzen dugu gai horri buruzko legegintza- eta politika-ekimena alderdi politikoei dagozkiela, eta ez Gobernuari, Eusko Legebiltzarrak bere eskumenaren eta indarrean dagoen legeriaren esparruan ildo horretan har ditzakeen akordioei lotuta sentituko baita, ezinbestean.

Ondorioz, gobernagarritasun-akordio hau sinatu dugun bi alderdiok berretsi egiten ditugu alde aurretik sinatutako akordioen edukiak, eta elkarri askatasuna aitortzen diogu autogobernuaren arloko gure postulatuak eta planteamenduak defendatzeko, eta, era berean, hitz ematen dugu ez dugula eragotziko zentzu horretan hemen, Euskadin zein beste eremu instituzional batzuetan egin nahi diren eztabaidak edo proposamenak, eta bat gatzon gai honetako edozein legegintza-ekimen Eusko Legebiltzarraren gehiengo osoak adostu eta onartu beharko lukeela, eta, ondoren, Gorte Nagusietara bidali beharko litzatekeela, ezarritako legeko bidean arabera izapidetu eta, hala badagokio, herritarrek erabaki dezaten eta erreferendumean berrets dezaten.

31. Gobernantza eta gardentasuna

Erakundeak eta zerbitzu publikoak funtsezkoak dira gure gizarteak ondo funtziona dezan. Beharrezkoa da arlo publikoarekiko konpromiso irmoa eta zerbitzu publikorako bokazio erabatekoa.

Erakundeen kalitatea hobetzeko lanean jarraitu behar da, funtsezko alderdia baita Euskadin hazkunde ekonomikoa eta gizarte-kohesioa bermatzeko. Kalitate instituzional hori funtsezkoa da, herritarrengan konfiantza sortzen duelako, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzen dituelako, herritarrei eskubideak bermatzen dizkielako eta zerbitzu publikoetan berrikuntzak egitea errazten duelako.

Herritarrei kontuak ematen dizkien Administrazio ireki batean sakonduko dugu, kudeaketan gardentasun handiagoa izateko esparrua garatuz, herritarrek politika publikoetara hurbiltzeko eta horietan parte hartzeko aukera izan dezaten. Kalitatezko enpleguan aurrera egiten jarraituko duen administrazioa, bitartekotasuna pixkanaka murriztuz, Legeak ezartzen duen bezala, sindikatuen ordezkarezekin mahai sektorialetan lortutako akordioen bidez.

147. konpromisoa. Administrazio hurbilagoan, errazagoan eta eraginkorragoan sakontzea.

1. ekimena. Euskal Administrazioaren desburokratizazioari ekitea, eraginkortasunez, arintasunez eta pertsona mota guztiei egokituta jarduteko mekanismo berriak aztertuz, herritarrek politika publikoak bultzatu, diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko prozesuan parte har dezaten bultzatuz.
2. ekimena. Administrazioa bizkortzeko eta sinplifikatzeko lege-proiektua bultzatzea.
3. ekimena. Sistema instituzional oso bat egiteko lanetan sakontzen jarraitzea. Erakundeekiko konfiantza funtsezkoa da populismoei ateak ixteko eta erakundeen kudeaketan inplikaturako gizartea izateko.
4. ekimena. Euskadiko Administrazio Orokorraren egitura optimizatzea, beharrezkoak diren esparruak birformulatuz eta etorkizuneko erronkei aurre egiten jarraitzeko beharrezko tresnekin ordezkatzuz, langile publikoen parte-hartze aktiboarekin, mahai sektorialen bitartez.
5. ekimena. Herritarrei aurrez aurre eta telematikoki ematen zaien arreta hobetzea, herritarrek Administrazioarekin elkarreragin ahal izan dezaten, ematen diren zerbitzuak ezagutu ahal izan ditzaten eta zerbitzu horiek eskura izan ditzaten. Sarbide errazagoko zerbitzu publikoen katalogoa diseinatzea.
6. ekimena. Politika publikoen eraginkortasuna ebaluatzea eta hobetzea, herritarren beharrei erantzun egokia emateko. Politika publikoen ebaluazioa eta kudeaketaren auditoria sustatzea, gobernu onaren parametroetan oinarrituta, baliabide publikoen kudeaketaren eraginkortasuna ebaluatuz, helburuak benetan betetzeko eta herritarrei kontuak emateko.
7. ekimena. Gainerako euskal erakundeekiko lankidetzeta eta koordinazioa indartzea, eta, are gehiago, toki-administrazioarekiko lankidetzeta eta koordinazioa indartzea. Horretarako, arreta berezia eskainiko zaie langileak hautatzeko prozesuei, bai eta herri-administrazioek erabiltzen dituzten sistema eta aplikazioen bateragarritasunari, elkarreragingarritasunari eta herritarrekiko harreman elektronikoari. Halaber, euskal administrazio publiko guztietan informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egikaritzeko leihatila bakarra garatzen lagunduko duten ereduetan aurrera egitea aurreikusten dugu, administrazio elektroniko bultzatzeko eta herritarrei administrazio-informazio argia, eguneratua eta zalantzarik gabea ematera begira.
8. ekimena. Bilboko Aduanetako Agente eta Komisio-hartzaileen Elkargoa Kentzeko Legea bultzatzea.

148. konpromisoa. Administrazio irekiagoa, adimentsuagoa eta gardenagoa bultzatzea, kudeaketaren berri emateko.

1. ekimena. Euskadiko gardentasunari buruzko lege bat bultzatzea, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea errazteko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko.
2. ekimena. Euskadi Gardena Gardentasun Atariaren edukiak zabaltzea, euskal herritarrentzat interesgarrienak diren gai buruzko informazio berria argitaratuz.

3. ekimena. Euskadi Gardena Gardentasun Atariaren eta Irekiaren edukiak ulergarriagoak egitea, irakurketa errazeko irizpideak neurri handiagoan txertatuz, eduki erakargarrien eta didaktikoen bidez, hainbat sakontasun-mailatan irakurtzeko aukera emango dutenak eta elkarreragina ekarriko dutenak, grafikoak, bistaratzekoak, infografiak eta mapak erabiliz, hizkuntza argia erabiliz.
4. ekimena. Herritarrei gure kudeaketa-datuak zabaltzen jarraitzea, Open Data Euskadi ataria indartuz eta sustatuz, gardentasun-estrategiarekin lerrotatuz, beharrezko datuak formatu egokietan emateko eta berrerabilera inplementatzeko.
5. ekimena. Erakundeen eta ezagutza-sareen arteko lankidetzak sustatzea. Aurrerapen iraunkorraren aldeko apustua egitea, ezagutza, adimena, datuak eta eraldaketa digitala baliatuz, pertsonen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko. Datuen kudeaketa adimentsua eta etikoa bermatzea.
6. ekimena. Parte hartzeko dauden bideak indartzea, demokrazia deliberatiboko tresnei bultzada berezia emanez.
7. ekimena. Eskura dauden informazio-aktiboen inbentarioa egiten jarraitzea eta herritarrei kontuak ematen dizkien gobernantza-eredu baten iraunkortasunerako sistemak egokitzea.
8. ekimena. Nazioarteko estandarrak betetzen jarraitzea eta munduko praktika onenekin bat egitea.

149. konpromisoa. Administrazioa digitalizatzen jarraitzea, arlo horretan finko diren eta trebatuta dauden pertsonekin.

1. ekimena. Datozen urteetan egingo den belaunaldi-erreleboari modu planifikatuan heltzea. Funtzio publikoaren aldeko apustua egiten jarraitzea, gaitasunean eta profesionalizazioan oinarritutako profesional kualifikatuekin, funtzio publikoan sartzeko prozesuak bultzatuz, zerbitzu publikoan pertsona onenak izateko, karrera profesionala arautuz eta garai berrietara egokitutako etengabeko prestakuntza garatuz, Administrazio Orokorreko Negoziazio Mahai Sektorialean hartutako akordioaren bidez.
2. ekimena. Enplegu publiko egonkor eta kalitatezkoaren aldeko apustua egiten jarraitzea, indarrean dagoen araudia aplikatuz egiturazko bitartekotasuna murriztuz eta aldian behin Enplegu Publikoaren Eskaintzak deituz. Euskal Administrazioaren barruan belaunaldien arteko erreleboari modu integralean ekitea, ezagutzaren traspasoa ziurtatuz. Negoziazio-eremuak bultzatzea, langileen hornidura eta hautaketa arautzeko, bai eta behin-behinekotasuna arautzeko ere. Gure administrazioa pixkanaka euskalduntzen jarraitzea, bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko eta zerbitzua emateko behar diren baldintzak bermatzeko.
3. ekimena. Itunaren Batzorde Mistoaren barruan, Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarria betez eta foru-lurraldeetako erakundeek darabilten finantza-autonomia errespetatuz, honako hauek adostea: sartu berri diren enplegu publikoaren eskaintzaren birjarpen-tasak erabat lehentasunezko zat jotzen diren sektore, funtzio eta lanbide-kategorietan, eta enplegatutako publikoaren ordainsari-masaren

gehikuntzaren gehieneko orokorrak, betiere aurrekontu-ekitaldi bakoitzean dagokion oreka eta aurrekontu-egonkortasunaren bidea bermatuz.

4. ekimena. Eusko Jaurlaritzako langileei zuzendutako prestakuntza-eskaintza indartzea, funtsezko tresna baita antolaketa berritzaileago, malguago eta dinamikoago baterantz aurrera egiteko, eta egungo eta etorkizuneko erronketara egokitzen laguntzeko, betiere arreta eskaintzen ditugun zerbitzuen kalitatean jarritz, langile publikoen parte-hartze aktiboa bultzatuz.
5. ekimena. Eraldaketa digitalaren esparruan lan egitea, eta, aldi berean, eten digitala gaitzetzeko behar diren ekintza guztiak egitea, lurralde osoko konektibitatea eta ingurune digitalean zailtasun gehien dituzten pertsonen prestakuntza bultzatuz.
6. ekimena. Gainerako euskal erakunde publikoekiko konbergentzia teknologikoa eta elkarreragingarritasuna bultzatzea.
7. ekimena. Prototipoak eta etengabe aldaketak egin ditzaketan berrikuntza-taldeak bultzatzea, gardentasunak eta gobernu adimendunak aurrera egin dezaten.

32. Euskadi globala – Euskadi Basque Country

Egungo testuinguru globalean, munduari irekita dagoen eta egongo den Euskadi defendatzen dugu, Euskadik bere historian egin duen ibilbidearekin bat etorriz. Zeregin hori funtsezko pieza da Euskadiren eta bertako herritarren interes sozial, ekonomiko, kultural edo politikoen defentsan, nazioarteko testuinguruan.

Euskadiren kanpo-proiektzioak estrategia argi eta zehatza izan du betidanik, ahalegin publiko eta pribatuaren batuketan izan delarik, bai eta "Euskadi Basque Country" marka ere, balio eta indargune propioetan oinarritua.

Europa da, zalantzarik gabe, Euskadirentzat erreferentzia nagusia nazioartean. Lurralde desberdinen arteko lankidetzak funtsezkoa da. Horregatik, Iparraldeko Communauté d'Agglomération du Pays Basque erakundearekiko harremanak sakontzen jarraitzeko asmoa dugu, "Euskadi-Akitania-Nafarroa" euroeskualdea indartuz, Europako Arku Atlantikoan lidergo eta bultzada gune bat eratzeko eta Makroeskualde Atlantikoari behin betiko bultzada emateko.

Euskadiren izaera berezi hau, emigrazioak erabat baldintzatua, euskal diasporarekin duen lotura estuan islatu behar da, euskal diaspora tradizionala eta euskal emigrazio berria bilduko dituen benetako Komunitate globala egituratzeko.

150. konpromisoa. Munduan euskal interesak sustatzea eta bultzatzea.

1. ekimena. Euskadiren kanpoko ordezkariak, bulego komertzial edo ekonomikoen erakunde-sarea berrikustea eta indartzea, fokua Afrikako eta Asiako hego-ekialdeko interes-eremuetan jarritz.
2. ekimena. Kide estrategikoen sarea handitzea, sektore anitzeko eta alde biko lankidetzak proiektu bateratuak garatuz.
3. ekimena. Lehentasuneko herrialdeetako erakundeekin, ordezkariak diplomatikoekin eta erreferentziako Think Tank-ekin harremanak areagotzea. Nazioarteko erakundeekin eta sare garrantzitsuekin harremanak sustatzea. Euskadiko eragile ekonomiko, sozial edo akademikoei nazioartekotze-proiektuak hedatzen laguntzea.
4. ekimena. Diplomazia ekonomikoko eredu bat sustatzea, gure enpresak nazioartean sustatzeko eta laguntzeko, bai eta Euskadira inbertsioak erakartzeko ere.
5. ekimena. Euskal kultur sortzaileei babesa ematea, euskal kultura munduan erakusteko.
6. ekimena. Joera geopolitiko globalak aztertzea, nazioarteko dinamika giltzarriak aurreikusi eta ulertzeko, Euskadi eta bere ehun sozioekonomikoa alde aurretik egokitzeko gertatzen diren aldaketa globalen ondorioetara.

151. konpromisoa. Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzea.

1. ekimena. Euskadi Basque Country marka atzerrian sustatzeko plan berri bat onartzea, Euskadi nazioartekotzeko esparru-estrategiarekin bat datorrena.

152. konpromisoa. Euskadik Europako proiektuan parte-hartze aktiboa izan dezan sustatzea.

1. ekimena. Euskadik Europar Batasunean duen zeregina indartzea, Europako foro eta erakundeetan bere parte-hartze aktiboa defendatuz.
2. ekimena. Gobernu-maila desberdinen (tokikoa, eskualdekoa, nazionala eta europarra) arteko elkarketan lan egitea, EBn maila anitzeko gobernantza eraginkorra sustatzeko.
3. ekimena. Modu aktiboan lan egitea Makroeskualde Atlantikoa behin betiko bultzatzeko eta instituzionalizatzeko, Euskadiren eta Europako lurralde atlantikoen interesak defendatzeko organo gisa.
4. ekimena. Euskadiren parte-hartze aktiboa indartzea mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzaren sareetan, bereziki Arku Atlantikoko Batzordean edo Pirinioetako Lan Elkartean, POCTEFA programa eragile berrian oinarrituta.

153. konpromisoa. Munduan Euskal Diasporarekin loturak sendotzea.

1. ekimena. Euskal Diasporaren historia zaintzea eta zabaltzea, eta Euskadiri egindako ekarpena nabarmentzea.
2. ekimena. Atzerrian dauden euskal herritarrentzako berariazko zerbitzuen zorroa garatzea, Lege berriaren esparruan.
3. ekimena. Euskal Diasporaren Legea bultzatzea, besteak beste, atzerrian dauden euskal herritarren eskubideak eta prestazioak ezartzeko.
4. ekimena. Irailaren 8a Euskal Diasporaren Nazioarteko Eguna izatea.
5. ekimena. Itzulera-politika integrala garatzea eta leihatila bakarra bultzatzea, Euskal Diaspora osatzen duten pertsonen eta Administrazioaren arteko harremanak errazteko.
6. ekimena. HAN-HEMEN plataforma sendotzea, Euskal Diasporarekin etengabeko harremana izateko tresna gisa. Euskal Etxeen sarearekin harreman eta lankidetzaren modu berriak ezartzea munduan.

154. konpromisoa. Euskadik nazioarteko sare eta erakundeetan duen parte-hartzea indartzea.

1. ekimena. Nazio Batuen 2030 Tokiko Koalizioaren Idazkaritza Iraunkorraren Bulegoaren epe luzerako presentzia sendotzea. Bulego honi beharrezko gaitasunak eta harremanak ematea, Euskadiren kanpo-proiektioari egiten dion ekarpena sendotzeko.
2. ekimena. Euskal "Roster" bat eratzea. Nazioarteko euskal pertsona ospetsuak identifikatzea lankidetzaren proiektuak bultzatzeko, Euskadi atzerrian sustatzen laguntzeko.
3. ekimena. Euskadi nazioarteko erakundeentzat interesgune gisa finkatzea. Nazio Batuen sistemako eta Europar Batasuneko nazioarteko hainbat erakundearen arteko harremanak areagotzeko, ekimenak garatzeko edo egoitzak Euskadin kokatzeko aukerak aztertzea eta erraztea.
4. ekimena. Euskadiren aldebiko aliantzak eta harremanak zabaltzea, gure eskumenen esparruan eta beste eragile batzuekin lankidetzan. Euskadik hirien eta eskualdeen

nazioarteko sareen plangintza- eta koordinazio-organoetan duen zeregina berritzea.

